***Eromenaren laudorioa*- Hitzaurrea.**

“Kretarrok beti esaten dugu gezurra”. Epimenides kretarraren enuntziatu hori, egia ala gezurra da? Egia bada, kretarrek beti gezurra esaten badute, Epimenides ez da gezurretan ari, eta egiazko baieztapena faltsua gertatzen da. Egia ez bada, ez badute beti gezurra esaten, Epimenides gezurretan ari da, eta gezurra esatean kretarrek beti gezurra esaten dutelako egia frogatzen du. Hori eta hori bezain beneragarriak ziren beste paradoxa batzuk eztabaidatzen eman zituen ehundako orrialde eta milaka ordu Rotterdamgo Erasmok gorrotoen zuen tradizio intelektualak. Ondo etorriko da, beraz, ohartaraztea tradizio horren barruan paradoxa ebatzezina zela, aldiz Erasmok berea zuen kulturak soluzio egokia eman ziezaiokeela.

Izan ere, filosofia hertsiki formala eta logikan zentratuak, nola zen holandarrak hainbesteko higuina zion metodo eskolastikoak, aurresuposatzen du horren gisako enuntziatu bat egia edo gezurra dela termino absolututan, zeren eratzen duten hitzek esanahi uniboko, unibertsal eta betierekoa baitute. Hortik dator, kretarrek gezurra esaten badute, beti eta nonahi gezurra esatea, eta Epimenides kretarra bada, haiek bezalaxe jokatu behar izatea. Ikuspegi erretorikoa, erasmotar pentsamenduaren abiagunea honelako edo halako pertsona jakinen ahoan eta honelako edo halako zirkunstantzian eta honelako edo halako garaitan esanahia hartzen dutela ohartarazterik hasten da.

Aipaturikoa bezalako perpaus batek testualki dioena esan nahi duela postulatzeak lengoaia teoriko, artifizial hutsera mugatzea esan nahi du, gizakiek izatez errealitatean, eguneroko bizitzan, erabiltzen dutenarekin zerikusirik ez duen batera. Horretan, “kretarrok beti esaten dugu gezurra” bezalako esaldi bat, entzuna izatera iristen bada, ezin pentsatuzkoa da hitzez hitz hartua izan daitekeela edo behar duelakoa. Behar bada, baliteke “Kretan gezurti bat baino gehiago dagoela” esan nahi izatea; edo bestela, baldin Epimenidesek jakin berri badu bere herritarrek jakintsutzat goresten dutela, apaltasun-esamolde bat izatea; edo, alderantziz, agian egun horretan Epimenides umore txarrean dago eta guztiaz gaizki hitz egiteko gogoa dauka, bere herrikideak libre utzi gabe... Nolanahi dela ere, ez dago lengoaiaren esanahi bakar eta denboragaberik, baizik eta gizakiak eta situazioak adina, eta kontuan izan behar da nori, noiz eta nola esaten duen, azken finean, zer esaten den jakiteko.

Zentzu batean *Eromenaren laudorioa* (*Stultitiae laus* edo, zehatz esateko, *Morias enkomion*) “kretarrok beti esaten dugu gezurra” moduko baieztapen batetik abiatzen da eta azkenean garbi uzten du Kretan, alderdi guztietan bezala, batzuetan gezurra esaten dela eta beste batzuetan egia esaten dela. Jakina: eromena, hor, katedrara igotzen da, entzuleei aurkezten zaie eta bere buruari laudorio egiten dio, gizadiak zor dizkion ondasunei buruz luzaz mintzatuz –bizitik beretik hasiz, zeina ez baita gertatzen sexuaren menpe erortzearen burugabekeriaz izan ezik--, jainko eta gizakiek ezinbestez segitzen dioten era askotarikoez –hierarkia, egoera eta lanbidetan-- eta agintari jentil, judu eta kristauez, zeinek berresten duten laudorio horien egia.

Hitzez hitz hertsiki hartzen badugu, planteamenduak bere burua ezeztatzen du, Epimenidesenak bezala, zeren eromenaren ezpainetatik, printzipioz, aldrebeskeriak eta tentelkeriak soilik entzun baitaitezke. Hala ere, behin eta berriz agertzen dituen iritzi, kritika eta jarrerekin geure burua ados aurkitzean, eromen hori ez dela halakorik pentsatzera jotzen dugu, aitzitik zentzu ona eta adimenarekin bizitzearen arte ona. Baina ezin dezakegu beti baliozkotzat eman proposatzen digun guztia ere: eta orduan

ondorioztatzen dugu eromena kasu batzuetan jakituria dela, beste batzuetan ohore egiten diola bere izenari... eta askotan ez dakigu zein aldetara jo. Hortik, zalantza eta antitesi sistematikoa lantzen trebatuak, konbentzitzen gara *Laudorioa*ren muina bera ez ezik, obran tratatzen diren gai guztiak eta gizakiekin zerikusia duen guztia "Alkibiadesen silenoak" bezalakoak direla (Erasmok Platonengandik hartzen duen motiboaren arabera), barruan jainko baten imajina daukaten itxura zatarreko iruditxo-iruditxoak:

Principio constat res omnes humanas, velut Alcibiadis Silenos, binas habere facies nimium inter sese dissimiles. Adeo ut quod prima, ut aiunt, fronte mors est, si interius inspicias, vita sit; contra quod vita, mors: quod formosum, deforme; quod opulentum id pauperrimum; quod infame, gloriosum; quod doctum, indoctum; quod robustun, imbecille; quod generosum, ignobile; quod laetum, triste; quod prosperum, adversum; quod amicum, inimicum: quod salutare, noxium; breviter omnia repente versa reperies, si Silenum aperueris.

Ez soilik *Eromenaren laudorioa*-k (1509an sortua, 1511n argitaratua), baizik eta obra osoak eta, segur aski, areago oraindik, Erasmok berak ere (1466-1536) ez dute kidetasun gutxi Alkibiadesen Silenoekin. Nabarmenarazi beharko balitz bere alde agortezinetariko zeinek ematen dion Erasmori XVI. mendeko lehen herenean Europan lortu zuen aparteko itzala, ez dut uste inork begia ezarriko liokeenik Karlos V.aren kontseilariari, ezta Luteroren mintzakideari ere: erabaki handien protagonistek sarritan gogoan eduki bazuten ere, holandarrak ez zuen agian inoiz eragin erabakigarririk izan historia garaikidearen joanarian. Garai zakarregiak ziren belarriak erne jartzeko ahots bati, zeinak behin eta berriz esaten zuen Kristandadeak "definizioak ahalik eta gutxienera murriztu eta puntu ugariei buruz bakoitzari iritzi-askatasuna utziz" soilik lortuko zuela bakea: gaur gugana hurbiltzen duten arrazoiak atzo izatezko eragimena kendu ziotenak berak dira.

Bestalde, bere pentsamendua aztertu eta utzitako arrastoak aztarnatzen dituenak, gutxitan esan dezake "ideia Erasmorena da", berehalaxe zehaztu gabe "baina jadanik Origenesek (edo Jeronimo Santuak edo Tomas Akinokoak edo Lorenzo Vallak) beste horrenbeste idatzia zeukan", eta are erantsi gabe: "hala eta guztiz ere, une horretan, autore horrengan, Ideia Erasmorena da, Erasmok ezartzen du". Eklektizismoak, ikuspegi-zabaltasunak eta plastizitateak edo, nahiago bada, bere posizioen anbiguetateak gutxiago eman ziezaioketen eskola bat jarraibide pertsonalak eragindako miresle-andana bat baino. Horrek izan zuen noski, baina bere giza irudiari eta bere jarrera hertsiki lotuei zirkunstantzia errepikaezin batzuen aurrean izan zelako, iraizekoa eta doktrinalki ezegonkorra gertatu zen. Kapitulu osoak idatzi ahal izan dira haren espiritualitatearen fortunaz "erasmismo" kategoria inoiz erabili gabe; eta ondorengoek Erasmoren jarrera asko berreskuratu zituzten, baina salbuespenez soilik erasmotar ziren heinean.

Ez, eragin sakonago, zabalago eta iraunkorragoko Erasmo ez da pertsonaia publikoan, ezta pentsalariarengan beragan ere, baizik eta humanitate-irakaslearengan. Haren izaera beti areago izan zen pedagogoarena adituarena baino, kezkatuago zebilen gauza baliagarriak ikasteaz besteei irakasteko aplikazio ziurrezko egia berriak aurkitzeaz baino. Humanismoaren izarrek eta etsaiek, biek gutxiesten zituzten "gramatikalari-huskeriak"; Erasmok harrotasunez hartu zituen beretzat eta "ad institutionem studiorum" liburuak bere *Opera omnia*-an lehen liburukirako gorde zituen. Lorenzo Vallak ezin zuen oso begi aldekoegiz ikusi Niccoló Perottik *Rudimenta grammatices* batean lan egitea: Erasmok adimen emankor eta apala izan zuen humanista gorenek

idaztera dinatu ez ziren eskuliburu guztiak paratzeko. Egiteko horretara bultza egiten zion, hasteko (baina inola ere ez horretan gelditzeko) latina beti elkarrizketa txairoan mundu garaikidearekin mantendu zitekeelako fede erreparo guztien gainekoak, hizkuntza bernakulu baten itxura hartuz, arau eta agindutan nahas-mahasetako premiarik gabe, baizik eta autore onen ezaupideari ezker, modismo, adagio eta logikara makurtu ezinezko berezitasunetan blai eginez, jolasa, atseginezko irakurketa eta eguneroko esperientziatik bereizi beharko ez litzatekeen ikasketa batean.

Hain perfektu eta unibertsalki bizi nahi zuen latin horren adierazpide hoberen eta bertute nabariena baliteke *copia*-n egotea, izan ere ez bailitzateke bidegabea Erasmok asmatu zuela esatea. Ariketa didaktiko gisa, *copia, copia verborum*-en abiapuntua esaldi imitagarri bat hartu eta sinonimo, metafora, esatezko figurarekin aldatuz joatea zen, ez gauza bera era desberdinetan errepikatzeko asmo alferrez, baizik, alderantziz, formulazio bakoitzaren berezitasuna preziatzeko. Gero, *copia rerum* horrek gai bat aztertzera eramaten zuen hurrenez hurren kontsideratuz bere elementu eta tasun desberdinen arabera, prozesu zabaleko batean kokatuz, historia eta literaturako testigantzekin, autore desberdinen iritzia eta hari buruzko uste arruntekin parekatuz, hitz batean, ikuspegi-aniztasunarekin. Eskola-errutinez kanpo, *copia* erasmotarrak bortizki ernaldu zituen Errenazimenduko letrak (aski litzateke esatea lehen mailako zeregina izan zuela entseiuaren sorreran, eta ez Montaignerengan soilik), zeren ez baitzen artifizio erretoriko hutsa, baizik eta ulerkuntza eta arrazonamenduzko egiazko metodo bat, bai gauzen alderdi berriak aurkitzeko aukera emango zuen hitz-jariakortasuna lortzera eta bai hizkuntzaren, maneiu errazagoan ekarriko zuen pertzepzio osoago batera zuzendua.

Esana dut Erasmok garaiak behar zituen eskuliburu guztiak ondu zituela, ia ez dago bapikatzerik horretan, zeren ozta-ozta ageri baita etapa edo mailarik *studia humanitatis*-en tirozinioan titulu egokia eskaini ez zionik. Aitortu beharra dago doitasuna eta suharra, baina baita egokieraren dohain ere. Alpeetatik gorantz, goi-klaseetan lortzen zituen jarraitzaileen baitan gizarteko humanismoaren hedapena batik bat gertatzen zen garai bat izan zen, eta kausaren apostoluak, atseginez zein atsekabez, jauregitarren artean bikoiztu behar izaten zuten. Erasmo bera 1499an Ingalaterrara iristean bezala, izan ere" ia egiazko ehiztari bihurturik ikusi beharra baitzegoen, ez zaldunik kaxkarrena, gortesau ez gutxi trabatu, jasezko gurketak egiten, galaitasunez irribarrezka", "hain aurpegi dibino, hain ezti, hain txairoko ninfen artean, non gutxi behar zen musen aldean haiek nahiago izateko". Estadio horretan, emankorragoa zen, edozein zentzutan, ugazaba on bat bilatzea eskuliburu on bat prestatzea baino. Hamarkada batzuk geroago, etxe leinargi batean prezeptore-postu bat oraindik enplegu bikaina zen (eta prezeptore italiarra hautatasun-zeinu zen oraindik ere, institutriz frantsesa edo alemaniarra 1900. urte aldera gertatzen zenez), baina boterearen gailurretan ongi kokaturik humanismoak orain areago egiten zuen orain aurrera kantitatez neofitoen kalitatez baino: eta aurrerapenak liburu-merkatuaren hedapen nabaria zekarren berekin eta, hortik, lanbide-irteera berriak eskaintzen zizkion adituari. Bizitza erdian zehar, Aldo Manuzio bigarren mailako gorteetan irakasle iluna izan zen: baina urte gutxitan europar argitaldari gailenena bihurtu zen

Erasmok testu greko eta latindar, kristau eta jentil ugari sinatu edo abalatu zituen hitzaurrez, eta *studia humanitatis*-en nobiziadua eskuliburuz estali zuen. Orduan zeuden ezaguera tekniko hoberenez horniturik, zuhurtasun miresgarriaren jabe zen eskuizkribuzko transmisioan errakuntza nola sortzen den argitzeko, ez dago aurpegira

botatzerik bere praktika ez zitzaionik hertsiki teoriari lotzen eta edizio bikain batzuekin (batez ere Elizako Gurasoenak) ertain batzuk eta txarren bat edo beste ere izatea. Jakin badakigu hilbizikoa zuen independentziari eutsi nahi bazion lumatik bizitzea beste erremediorik ez zuela, sarritan argitaldariek beharturik, zeinak ez ziren beti Veneziako Aldo, Basileako Frobenio edo Parisko Badioren tamainakoak, ezta beti bere buruen duintasunari eusten ziotenak ere. Baina justifikazio biografikoa garai hartan jadanik testu-kritikak erabateko dedikazioa eskatzen zuen maila eta dentsitatea lortu zuelakoaren aztarnaren heinean axola zaigu orain: filologiarik gorena ez zen jadanik bateragarri Erasmorena bezalako jarduera anitzarekin. Espezialisten orduak jo zuen: humanismoaren ametsa bukatzera zetorren, zibilizazio hobe oso bat testu klasikoetatik abiaturik eraikitzeko bere ideal eskergarekin.

Amets horrek, ideal horrek Petrarcaren egunetatik hasita italiar kulturaren emaitzik jatorrenak elikatu zituen, baina hasierako bulkada galdu ondoren, 1500. urte aldera, batez ere Alpeez iparraldera zegoen oraindik bizirik. Ulertzekoa da "barbaroak" izatea garai hartan *studia humanitatis* haiek mundu berri berdin bat ernaraziko zuten ilusioari suhartasunez eustea, letren eremuan ez ezik, bizitzako gainerako sailetan ere. Konbertitu berrietako askok erudizioaren gailur gorenak lortu zituzten baina beraiek ere ez ziren pozik gelditzen Poliziano baten filologia filigranatu eta ezkutukoarekin: *in partibus infidelium*, misio-lurretan, --haienak oraindik hala baitziren--, humanismoaren bertute berrerosleak argitasun handiagoz sentiarazten ziren, kontrastez, eta kemen eta konfiantza handiagoz borrokatzera bultzatzen zuten zabalagoak ziren helburuen alde. Bestalde, baldin eta neofitoek beren buruan azken eredu italiar handien klasizismo xaramelan esparrutu izan balituzte, pertsonaia abstrusu eta marginal gertatuko ziratekeen: hertsiki justiziazkotzat zeukaten begirune eta prestigioa eskuratu nahi bazituzten, ezinbesteko zuten lantzen zituzten arte eta irizpideek literaturazko soila baino askozaz irismen handiagokoa zutela erakutsi eta egiaztatzea. Guarino bezalako guraso fundatzaileen espiritua berreskuratzea esan nahi zuen horrek, baina ondorengo konkista guztien etekina berenganatuz, Polizianorenganaino iritsi arte: 1500. urteko arma birfinduak 1400. urteko armarri heroikoen azpian astintzen ziren, eta mende batez baino gehiagoz Italian metaturiko esperientziak epe laburrean jaulkitzen ziren kanpoan energia konprimituaren potentzia harrigarriarekin.

Testuinguru horretan, inork ez zion itzalik egin Erasmoari ebanjelio humanistaren propagandagiletzan eta, zehatzago, eskuliburugiletzan –sarritan, klase partikularrak emanez ogia irabazten zuenean egindako lanen birmoldaketak izaten ziren--, zeren inor ez baitzen gai izen sonatuagorik, pedagogi talentu handiagorik ezta emaitza-gama osoago eta organikoagorik eskaintzeko, premia handieneko abagune hartan. Orain ezin gaitezke xehetasunetan sar, baina emandako datuek aski izan beharko lukete sintomatzat: Erasmoren obra didaktikoarekin, gauzen egoera baten ordezkari goren zen heinean, azkenean humanismoa oinarrizko bibliografia batean mamitzen zela esan liteke, nortasun propioko *required readings*en zerrenda batean objektibaturik gelditzen dela. *Studia humanitatis* deituak hor daude, edonoren eskura, eta gehiago nahi ez zuenak aski zuen bertsio hor hartzen zen "biguinarekin", horrela hezkuntza egokia jaso zuela pentsatu eta bere arazoei jaramon egiteko. Humanisten eskola-egitarauak onartu egiten du orain autonomo gisa erabilia izatea, bere bizitza propioa egiten hasten da, hasierako irensmenaren lehoi-partea galtzearen trukean. Epe luzerako garitzapen anbiguoa da, humanismoaren "*uncertain glory*"a: zibilizazio baten motore izateari utzi "kultura orokor" baten zutabe bihurtzeko.

Erasmo, hori bai, oso urrun zegoen horrela pentsatzetik: ezin zuen jakin bataila-kantak eta abesten zituen garaitzapen-kantak eta zisne-kanta era bazirela. Berak, nolanahi ere, suhar eta eraginkortasun apartekoz borroka egin zuen gauza beste era batera izan zitezen. Horregatik, Europan latinaren maisu bihurtu zuten eskuliburuen barrenean baldintzamendu eta eragingarri ekonomikoak gehiegi puztearekin erne ibili behar da. Gutxiago lan egiten zuen haietan komenientziarengatik bere obra nagusietan nabari den konbikzioarengatik baino: batzuekin eta besteekin helburua berak zituen. Hainbesteraino, non erasmotar parabola, bai ibilbidearen zentzu orokorrean, eta bai etapa bakoitzaren edukian, eskuliburuei soilik jaramon eginez jarrai liteke, baita *Adagioak* eta *Kolokioak* ere halako direla ahaztuko bagenu ere.

Parabola hori, 1489 aldera hasten da, Vallaren *Elegantiae*ren alfabetoaren arabera ordenaturiko epitome apal batekin, non ez dion sartzeari utziko, beste antzeko askoren artean, gramatikazko eta erlijiozko abusuen aipamen batek, zeinak *indulgere*-k bide ematen duen. Amaitu, berriz, 1535 aldera, indulgentzien suari egurra botatzearen arriskuak krudelki frogatu zituztenean zisma eta gerrek, argitaraturik ikusi zuen azken liburuarekin, hil baino urtebete lehenago: *Ecclesiastes, sive de arte concionandi* zuen izena eta predikarientzako metodoa zen, edo, nahi bada, erretorika klasiko bat gizarte garaikidearen esparruan ezarria, Jainkoaren hitzaren zerbitzutan eta, kaskagortasun tematiz, gizakien arteko bakearenean ere bai. Bi zuinen artean, holandarrak ez zion utzi *De copia* (1512) obrak aldarrikatutako hamar mila eratara, hain zuzen ere bere hori zela bide zuzena: *pietas*-era *litterae*-n eskutik iristea, “cum elegantia literarum pietatis christianae sinceritatem copulare”, “ut cum bonis literis floreat sincera pietas”, eta horrela infinituraino.

Harritzekoa da humanismoaren filologiaren ikertzaile bikain batek zalantzan jarri izana Erasmok *bonae* eta *sacrae litterae*-n artean egindako ezkontzaren eraginkortasuna, galdetuz “ea izatez zer eginkizun duen bokantzaren ikaskuntza xeheak “Kristoren zaldunaren” ikaskuntza espiritualean, azkenean “bokantza latindarreko eskuliburu eraginkorren eta moral edo debozioko ezein metasistemaren artean” benetako loturarik dagoelako ukatuz. Baina, lehenik, gauzei beren izenez deitzea mereziko du eta, “any moral or devotional meta-system”-az hitz egitea baino hobe izango da lainoki teologiaz, XVI. mendearen hasierako teologia kristauaz hitz egitea. Erasmoren ibilbidea teologian jotzen du gorena hain zuzen ere. Ordurako, hala eta guztiz ere, ez zen teologia Jainkoaren inguruko edozein mintzaira. 1495ean, Erasmo gaztea Sorbonan paseatzen denean, John Mair, Monteagudoko kolegioan ikaskide izan zuenak berak ere artean orientabide desberdineko “teologia positiboa” artean kontzebitu gabe zeukan. “Teologia” teologia eskolastikoa zen soilik eta bakarrik, unibertsitate-fakultateen gailurretan ezarria, curriculum hertsi batekin, zeinak Petri Lombardoren *Libri sententiarum* ezinbestekoetatik hasita, Tomas, Eskoto edo nominalen hiru bideetatoren batetik dabilenarekin. Teologo da soilik eztabaidatzen dakiena “maisu-definizio, ondorio, korolario, proposamen agiriko eta ezkutuko ugarirekin”, gisa honetako *quaestiones* zeritzatenak: “ea aldiunerik badagoen sorkuntza jainkozkoan, ea Kristorengan filiazio bat baino gehiago dagoen, ea posible den “Jainko Aitak Semea gorrotatzen du”, ea Jainkoak emakume-, edo deabru-, edo asto-, edo kalabaza-, edo harri-itxura har ote zezakeen, eta ea kalabaza batek predikatu, mirariak egin, gurutzean iltzez josia izateko gai ote zen, eta zer sagaratuko zuen Petrik, baldin eta Jesusen gorputza gurutzetik zintzilik zegoela egin izan balu”, eta abar, eta abar. *Eromenaren laudorioak* infolio, koaderno eta ikasgela diferentetako zentzugabekeriak laburbiltzen ditu lerro banaka batzuetan baina ez ditu asmatzen. Sarkasmo gutxiagorekin, garaiko

teologia ofiziala, printzipioz espekulatiboa zena, zorrotz debekaturik zegoela laikoentzat eta espezialistek ardura handienaz babesten zuten pertsona arruntek ulertzetik.

Argi gera bedi Erasmok egindako *pietas* eta *litterae* arteko uztarduraren helburua ez zela soilik itxura hobea ezartzea, antzinakoari dotorezi berniz bat emanez, halakoaren titulua zeukan teologia bakarrari. Hori izan zen, adibidez, Paolo Cortesiren asmoa Petri Lombardoren liburuak berridaztean ustez Zizeronen arabera moldaturiko prosa batean: asmo horrek anakronismoa sagaratzen zuen egun egungotasunaren mozorropean eta Erasmok gogorarazteko premiarik gabe gezurtatu zuen *Ciceronianus*-en, non autoreak, guztiarekin ere, jipoi ederra jaso zuen antzeko arrazoiengatik. Ez zen, halaber, kontua teologia eskolastikoari eta *studia humanitatis* deituei lasai parez parez, eta azken finean, independente ibiltzen uztea ere, jesuiten kolegioetan edo, *mutatis mutandis*, Erreformako hainbatetan bezala: giza horretako konpromiso batek esan nahi zuen humanismoari bere izateko arrazoi berezia ematen zion irrika anexionistari uko egitea.

Ez, Erasmoren proiektua ez zen txakur berari koilare desberdina jartzea, ezta katuarenaz bestelako leku batean sartzea ere. Erasmok, ez gehiago eta ez gutxiago, teologia ofizialaren alderantzizkoa eskaini nahi zuen, erabat kontrajarria zen beste batez ordeztu. Teologia eskolastikoaren alferrekotasuna, pentsatzen zuen, nola edukian hala forman frogatzen da: gai esoteriko batzuei jargon ulergaitza dagokie (eta alderantziz), eta batean eta besteetan eten berbera gertatzen da bizitza erreala eta fedearen eguneroko esperientziaren artean. Ez da horrelakorik gertatzen kristautasunaren iturri egiazko bakarrean: Jesusek eta bete apostoluek ikasiek bezala ezjakinek ere antzematen zuten mintzaira erabiltzen zuten, “guztiei era berean komunikatzen zaien” espiritu bat erakusteko “eta gaixo eta txikiak direnei falta ez zaienez, horrela zaie miresgarri betegin eta handiei ere”. Ezinbestekoa da Itun Berriko mintzaira hori eta espiritu hori berreskuratzea, Biblia aztertuz, ahal izanez gero jatorrizko hizkuntzan eta begia erne dela liburu bakoitzaren eta aldi bakoitzaren berezitasunetara, Idatzi Santuan blai eginez, bera baita portaera eta pentsamendu kristau ororen iturburu, barne-bizipenetik hasi eta predikuraino. Inor ez dago, ezein unetan, Berreroslearen mezuaz kanpo, eta horregatik “guztiak izan daitezke teologo ere”. Erasmoren *Colloquia* latinezko elkarrizketarako eskuliburu eta teologi eskuliburu dira aldi berean, *philosophia Christi*, merkatuetan erosten duena, plazetan eguzkia hartzen duena eta otoruntzetan topa egiten duena: emazte zoriontsuak eta senar txarra duenak ezkontzaren alde onak eta txarrak kontrastatzen dituzte, harakinak eta arrain-saltzaileak ez dute iritzi bera berauaz, zahar batzuek galdetzen diote beren buruari ea bizitzan gehien komeni zitzaien bidetik ibili diren...Guztiak dira aukera on teologia egiteko: Jesus, norbanakoaren begiragune eta komunitatearen ardatz izaki, bizitzako edozein zirkunstantziatan presente egon beharra da. Gizarte kristauak alderdi guztietatik dario teologia.

Espirituak espirituari hitz egiten dio eta beratzaz erantzuten zaio, ez kanpo-jarduera soilez ezta zeremonia hutsalez ere. Ezta inolako silogismoez ere. San Paulok berak ere ez zukeen jakingo agian teologoen *trust*-a kezkatzen duten arazoen berri ematen (ongi jakina da Petrarcak ordurako esana zuela: "In Apostolo Dei nichil dyalectice artis erat”): zilegi izango ote den jatea eta edatea berpiztu ondoren, *a quo* terminoa eta *ad quem* terminoa edo zer segundotan gertatzen den Transubstantziazioa, baldin eta Eukaristiako formula “segida bateko kantite diskretua bada. Baina Jesusen irakatsiak argi eta garbiak dira. Kristautasunaren klasikoak “ez dira ezer baieztatzera ausartzen Idatzietan zehazki adierazita egon ezik”, eta beste horrenbeste egin eta fede onean, zinez irakastean “datza teologiaren egiazko zientzia”. Hirutasunarekin elkarturik sentitzea posible da filosofiako

teknizismorik gabe zertan bereizten diren Aita eta Semea, ezta zer esan nahi duen Praklitoaren *processio*-ak ere. Sinetsi egiten da edo ezta sinesten. Dogmak ez du arriskurik, karitatea ziur badago. Bihotz garbia da beharrezkoena, eta gure ahalegin guztien helmuga barrena grinetatik jaregitea izango da, “zeluetatik, inbidiatik, gorrototik, harrokeriatik, gutiziatik, lizunkeriatik..., eta Espirituaren fruituak lortzea: maitasuna, alaitasuna, bakea, egonarria, ontasuna...”. Kristo da mintzaira ("In principio erat *sermo"*, itzultzen du Erasmok) maitasunaren indarrez nagusitzen dena. Bere irudira, teologoak ere ez du “suharrik gabe Jainkoaren gauzez hitz egin behar”, bera hunkitu gabe eta entzulea hunkiarazi gabe, bere burua eraldatu gabe eta besteak eraldatzeko asmorik gabe, espiritura irekitzera, karitatearen arabera jokatzera bultzatuz: teologoaren egitekoa “areago datza arimako afektuetan argudioetan baino eta gehiago agertzen da ongi bizi izatean ongi argudiatzean baino”:

Gure iritzian, horiek dira Erasmok fededun guztiei sarrarazi nahi zien teologiaren ezaugarri nagusiak teologia sistematiko ofiziala baztertzeko. Baina, gauzak horrela, nekez izan liteke zalantzarik “Kristoren zaldunaren” instrukzio espiritualean bokantzak duen... -zereginaz: bokantza instrukzio horren eredua bera da. Edo beste hitz batzuetan esateko: Erasmok *eloquentia*-ren txantiloien arabera kontzebitzen du teologia, *studia humanitatis*-en koordenatu eta planteamenduak neurri erabakigarrian errepikatzen dituzte koordenatu batzuetan eta planteamendu batzuen arabera begiztatzen du. Ez dago esan beharrik korrespondentzia horrek ez duela eragozten *philosophia Christi*-k substantibitate erlijiozko bat izatea (orain ez dagokigu originaltasun-mailaz hitz egitea) bereak dituen aurresuposatu, eduki eta kutsuarekin: kristologia bat, haragia eta espirituaren arteko kontraesana, Elizaren irudia komunitate gisa, bere funts propioaren arabera, maitasunak definitua, eta abar. Zenbaitetan, *eloquentia*-ren aztarna doktrina-printzipioen taxukeran bertan ere hautematen da, baina daturik esanguratsuena guretzat ez dago horretan ere, baizik eta antolatzen dituen eskema orokorra funtsean humanismoaren paradigmen errepikatzaile izatearen ebidentzia.

Izan ere, Erasmok porrokatu nahi duen idoloa humanismoaren tradizioko etsai da, metodo eskolastikoa, eta orain ere ez eskolen arteko lehia hutsez, baizik eta hautatu beharra dagoelako iniziatuentzako kode artifizial baten eta gizaki guztien neurrira egindako mintzaira baten artean, zeren jokoan baitago, espezialista batzuentzat bakarrik den teoria arkano gisako jakitearen nozio baten nagusitasuna, edo kultura bizi bezala, ahalik eta onuradun gehienen esperientzia erreala argitu behar duenarena. Arazoaren ikuspegi hori aldi berean historiaren ikuspegi da; Erdi Aroko espiritualitate-korronteek Erasmok bezala teologia espekulatiboari higuina bazioten ere, historiaren ikuspegi hori falta zuten. (“Et quid curae nobis de generibus et speciebus?”, protestatzen zuen orduko *Kristoren Antzbideak*).

Zeren *philosophia Christi*-k itzulera zabal bat eskatzen baitu milurteko dekadentziaz aurreko garai batera, mende ilunetan endekatuz joan den letra eta espirituko liburu oinarrizko batzuetara bihurtuz: eta argi dago abailtzen zuten ajeetatik kristautasuna araztea nekez aurkez zitekeen Jesusenganako itzulera bezala izan ezik, baina era berean argi dago testu, jakite eta ohituren parez pareko endekatze-prozesua azpimarratzea, baita aldi berean parez parekoa zen haiek guztiak lehengoratzearen ideala, zuzen-zuenean datoz *studia humanitatis*-eko ikuspegi filologiko sakonki radikalenetik. Horietan bezala, Erasmoren teologiaren muina mintzairan datza, eta erabateko koherentziaz, Jainkoa mintzaira bihurtu delako eta mintzairaren bitartez bilatu behar delako, agindu gutxi batzuekin eta giltzarri diren liburu batzuetara sarri-sarri joz; eta horietan bezala, bistan

dagoenez, teologia horren hedakuntzak, bere lorkuntzak bezalaxe, antzinako erretorikaren egitaraua jarraitzen du: hitz gutxitan esateko, eraberrikuntza moral eta sozial handios baten horizontearekin, jendea konbentziaraztea axola zaio eta egintzara bultzarazteko *pathos*-era, jotzen du tresna pribilegiozkora bezala, oratoreek beren baitan sentitzen dituztelako eta jaramon berezia egiten dietelak beren entzuleen izaera eta zirkunstantziei iratzartzen dituzten "arimako afektu" horietara.

Koordenatu horietan hartzen du zentzu betea *Eromenaren laudorioa*-k. Liburuak gainez egiten du, noski, Erasmok gogoko dituen gai guztiez, eta bereizgarri ere badu nolako neurrigabeziaz lantzen dituen horietako zenbait, sofistakeria eskolastikoaren kritikari egindako espirituzko kultua, monakatoa edo Elizaren egitura tenporalak. Baina oraindik askozaz erasmotarragoa da autorearen estrategiak eta egikera-moduak jasotzen dituen garaierarengandik-

Azken erro bakar bat bilatu nahi izango bagenio, *docta ignorantia* nozioan aurki geniezaioke agian; Erasmok tradizio horren ideala kristautasuna eta kultura klasikoa etengabe eta zuhurki komunztatuz korritzen du, alde batetik, gogora ekarriz –Sokratesek –maisu jentilaren kemena eta jarrera hain ereduzkotzat jotzen zituen, non batzuetan "Sancte Socrates, oro pro nobis!" errezatzeko gogoa ematen zion –gizakirik jakintsuena dei zezaten onartu zuela ezer ez zekielakoaz jabeturik zegoelako, eta bestalde, azpimarratuz "Kristok berak eroarena egin zuela gurutzearen eromenaz salbazioa ekar dezakeen ero antzera aurkeztuz": "Munduak zorotzat duena aukeratu du Jainkoak jakintsuak lotsarazteko, eta munduak argaltzat duena indartsuak lotsarazteko" (I Korintoarrei, I, 27).

Docta ignorantia-ren erroak hazi eta fruitu bikaina ematen du erretorikaren mota zahar eta ospetsuari esker. Horrek aitortzen dituen hiru generoetatik: judizial, deliberatzaile eta panegirikotik, oihartzun literario handienekoa azkena izan zen beti, *laudativum genus* deitua, ez baitzuen inolako erabakirik eskatzen, judizio artezkoa soilik, oratorearen trebetasun eta virtuosismoa preziatzea soilik. Mota horren barruan, sofisten egunetatik hasita, askok aurkitu zuten gozamena buru-zorroztasuna erakusten eta txaloak jasotzen gai hutsal, duinez edo irrigarriak goratuz, eta Erasmok berak aipatzen ditu eltxo, bidegabekeria edo sukarrei buruzko laudorio klasikoak.

Hala ere, ez zuen inork konposatu inoiz *Stultitiae laus* bezalako enkomio paradoxazkorik, hain sakon eta errotik, hain barrutik asmaturik. Harren edo burusoiltasunaren laudorio – Erasmok berak gogora ekartzen dituenak bezalakoak-- *divertimento* azaleko soila besterik ez zitekeen izan, buru-zorroztasun eta umore onaren adierazgarri, inolako garrantzirik gabea. Eromenaren beraren laudorioak, zentzuzkotasunaren ikuspegitik planteatua, Sebastian Brandten *Eroen Untzia* sonatuak egiten duenez aspektu batean baino gehiagotan, ez zeukan irrizkoaren kategoria horretatik berorretatik zertan pasaturik, nahiz eta txantxa artean egia bat baino gehiago eduki.

Baina Erasmok eromenak bere buruaren laudatzaile bihurtzearen burutada aparta izan zuen, Espediente horrekin, erabilitako gaiak alde batera utzirik ere, liburuaren kontzepzio orokorra berez esanguratsua gertatzen zen, bere baitan zituen printzipiozko auziengatik, bere burua baieztatzen eta ukatzen duen berbaldiaren planteamendu orokorrarengatik. Esan dudanez, Moria Erasmoren gai nagusi guztien laburbilduma da eta autoreak berak aitortu zuen funtsean *Enchiridiom*-ak bere irakatsien bilduma

behinenak zioena bera esaten zuela. Baina horretan, bere ekoizpenaren gainerakoan bezala, holandarraren pentsamendua eduki gisa soilik dago, bokantza handiago edo txikiago estiloan, baina azken finean estalki dotorean gelditzen denean.

Eromenaren laudorioan aldiz, ez dago bereizterik forma eta edukiaren artean: ideiak aurkezten dituen artifizioa bera adierazten den doktrinaren funtsezko dimentsioa da. Bereziki, beti nor ari den kontuan izatearen eta bere baiztapenak inoiz baliozkotzat ez ematearen inperatiboak arretaz kontsideratu gabe bai arartekogabeko testuinguruan eta bai liburu osoaren horizontean, eraginkortasun apartekoz argitzen du, ageriki aurkeztu beharrik gabe, teoria erretorikoaren muina, zeinak Erasmok bere aldetik jakitearen bere ikuspen propio eta, zentzu askotan, bere nortasunaren muin ere bihurtu zuen. Zeren nor, noiz zertarako ari den hitz egiten sistematikoki galdetzearen ohitura, erretorikak funtsezko duena, besterik gabe sentsibilitatea trebatzeko era bat da pertsonak, gauzak eta hitzak nola aldatzen diren eta zeinen desberdin eta konplexu diren osokiago atzematen; eta ondorioz, zeinen single bakoitza eta zeinen erlatibo diren guztiak.

Behin Jorge Luis Borgesek galdetzen zion bere buruari, zergatik idazle batzuk, beste zenbaiten goibetea baion gutxiagokoak ez zirenak, ez diren iritsi inoiz hedapen zabal izatera eta klasiko eztabaidaezin bihurtzera. Arriskatu zuen erantzuna zen ez zutela inoiz lortu bere pentsamenduaren eta estiloaren bikaintasunak fikziozko pertsonaia konbentzigarri batean mamitzerik, bakar eta ahantzezin egiten duten zertzeladaz hornitzen autoreak asmatuko zuen izaki imajinario batean, eta aldi berean irakurlearen eskuhartzeari sarrera zabala ematen dion “irekitasun” eta zehazkabetasunez hornitzen ere bai. Humanismoko literatura latindarrak sortu zituen milaka eta milaka orrialdetatik, gaur egun oraindik bizirik eta irakurle kultu ororen eskura dirauten bakarrak *Eromenaren laudorioak* obrakoak dira zalantzarik gabe. Horren arrazoia baliteke Borgesek egiazki klasikoak diren liburuetan aurkitzen zituen bertuteak Erasmoren *Moria*-k bere baitan izatea.

Francisco Rico

Erret Akademia Espainiarrekoa

ROTTERDAMGO ERASMOK TOMAS MORO BERE ADISKIDEARI1 OSASUNA!

Aurreko egunetan, Italiatik Ingalaterrara nentorrela2, zaldi gainean iragan behar zen denbora hura guztia berriketa hutsal eta alferretan ez galtzeko, batzuetan nahi izaten nuen nire artean edo geure zaletasun komunetaz arduratu edo bestela hor utzi nituen lagun jakintsu bezain bihotzekoen gomutaz gozatu. Eta hauen artean zeu zinen, ene Moro, oroimenera lehen etortzen zitzaidana; beraz, nirekin egon ez arren ere, zeurekin egon nintzenean zure eguneroko harremanaz gozatzen nuen modu berean, (eta zin dagizut, bizitzan izan ditudan guztietatik atsegingarriena harreman horixe izan dela) gozatzen nuen hemen zure oroitzapenarekin. Zerbait egiteko erabakia harturik nuenez eta egoera hura gogoeta serio baterako desegokia iruditzen zitzaidanez, jolas moduan Moriaren gorespena egitea otu zitzaidan. Gauza hori zein Palasek sartu zizun buruan?3, galdetuko duzu. Hasteko, Moro zeure deiturak iradoki zidan gaia, Moria hitzarekin duen antza zu berarengandik urrun zauden bestekoa delako, zuk horrekin inolako zerikusirik

ez duzula baitio mundu guztiak4. Gainera nire buru-zorroztasunaren joko honek zure onespen osoa mereziko zuela uste nuen, asko jostatzen duzulako, oker ez banago, holako jolasgarriekin, hau da, ganorabako izan gabe bere gatz-puntua eramaten badakiten motakoekin, eta bestalde, eguneroko bizitzako gauzetan gehienetan Demokrito berri baten antzera jokatzen duzulako5.

Nahiz eta egia izan, duzun buru-azkartasunaren agudezia ukaezin eta zorrotzagatik, arruntkeriekin ez zarela nabariro bat etortzen, hala ere harremanetako zure ematasunak eta jendetasunak ezaguera handiko gizona egiten zaituzte, edozeinekin tratuan ibiltzeko gai eta bertan atsegin hartzeko.

Beraz ziur nago deklamazio txiki hau ez bakarrik pozarren onartuko duzula zeure lagunaren gomutagarri delako, baizik eta zeure babespean hartuko duzula, zeuri eskainita dagoenez, zeurea delako eta ez nirea. Ez dira faltako, ziur aski, hauek teologo bati dagozkion baino ezteuskeria ergelagoak eta kristau baten apaltasunari dagozkionak baino garratzagoak direla salatuko duten kritikariak; esango dute berriro hasten garela antzinako komediarekin6 beste Luziano bat bezala7 eta guztiari haginka erasotzen ari garela. Baina nire argumentuaren arinkeria eta bere jolas-izaera dela-eta min hartzen dutenek nahiko nuke kontutan izango balute hau ez dela neuk asmatu dudan eredu bat, hainbat autore handik, gainera antzina-antzinatik eta hainbat aldiz erabili dutena baino. Adibidez, Homerok, jolas gisa Batrakomiomakiari eskaini zizkion bere olerkiak duela hainbat mende eta mende8; Marok eltxoei eta nahaste-borrasteari9; Ovidiok intxaurrari10. Polikratesek Busirisi zuzendu zizkion bere laudorioak eta Isokratesek gaitzetsi, hori idatzi zuelako11; Glaukok12 bidegabekeria goraldu zuen; Favorinusek13 Tersites eta lautik laurako elgaitza; Synesiok14 burusoileria; Luzianok eulia eta jantxakurrak.

Bestalde Senekak Klaudioren apoteosia txantxetan idatzi zuen15; Plutarkok Gryllo eta Ulisesen arteko elkarrizketa16; Luzianok eta Apuleiok "astoa"17; eta norbaitek, Jeronimo doneak aipatzen duen Grunio Korokota txerrikumearen ordeinua18. Beraz kritikari horiek egokiago baderitzote, xake edo dama-jokaldi bat jolasten egon naizela pentsa dezakete edo, nahiago badute, erratz luze baten gainean zamalkatzen ari izan naizela. Azken batean, ez al da bidegabekeria izugarri bat ikaszalei jostaketa batera ere jolasten ez uztea, aukera hori gizarteko maila guztiei ematen zaienean, eta gainera huskeria horiek elementu serioak ere baldin badituzte eta gai laketgarri horiek usaimen oneko irakurleak idazle batzuen argumentu garratz eta distiratsuetatik baino fruitu nahiko gehiago ateratzeko moduan tratatzen badira? Esaterako, batek erretorika eta filosofia goraltzen ditu hemendik eta handik hartutako txatalez luze eta zabal osaturiko hitzaldi batekin, beste batek printzeren baten laudorioak deskribatzen ditu, hurrengoak turkiarren kontrako gerrara jendea eramateko aholkuak ematen ditu. Honek etorkizuna iragartzen du, hango hark, ahuntzaren gauerdiko eztulean abiapuntua hartuta19, inolako interesik gabeko arazo berriak asmatzen ditu. Eta gauza serioak hutsalki tratatzea baino gauza hutsalagorik ez dagoenez, ez dago, ezta ere, gauza alaigarriagorik, hutsala baino gehiago beste edozer zarela antzemanik huskeriei buruz tratatzea baino. Niri buruzko balioztapena besteen esku geratzen da; dena den, Buruestimak guztiz okerreko bidetik eraman ez banau, nik, egia esan, Eromenaren laudorioa egin dut, baina ez guztiz eroki. Erantzun diezaiogun jada, garraztasunaren sofismari; buru-zorroztasunari beti eman zaio giza bizitza arruntari buruz gatzaz eta piperraz, horregatik zigorrik hartu gabe, jolasteko askatasuna, baldin lizentzia hori amorru bihurtzen ez bada.

Horrexegatik gero eta harridura gehiago ematen dit gure aldiko belarrien fintasunak, ez baitira ezer jasateko gauza, titulu arrandiosak izan ezik. Gehiago oraindik, erlijiosoak ikusiko dituzu pontifize edo printze bati buruzko txantxarik txikienaren zipristina bat baino erraztasun handiagoaz zentzugabeki jasaten Kristoren kontrako irainik handienak (batez ere bere ogiarekin bere alpisterekin zerikusi duenean). Beraz, nire galdera da: batek gizakien bizitza gaitzesten duenean izenik inoiz aipatu gabe, hori haginka ari al da ala irakasten eta aholkatzen? Bestalde, ez al dut neuk nire burua hainbat alderditan kritikatu? Gainera, gizaki-mota bat ere alde batera uzten ez duena, ezin da gizaki konkretu baten kontra amorraturik agertu, hoben guztien kontra baino. Beraz zauritua

sentitzen den baten bat balego, hau edo bere kontzientzia txarra erakusten ari da edo, gutxienez horren beldurra du. Jeronimo doneak asko ere askatasun eta garraztasun gehiagorekin jokatu zuen jenero honetan, batzuetan izena bera ere ez zuelako barkatzen. Guk, aldiz, izenak jartzea baztertzeaz gain, luma bera ere bigundu egin dugu, irakurleak errazago uler dezan haginkada baino gehiago plazera bilatu dugula. Ez dugu jarraitu Juvenalen eredua ere20, inoiz ez diogulako eraginik egin gaiztakerien sastegiari eta nazkagarriak baino gehiago barregarriak ateratzen saiatu garelako.

Eta arrazoi hauek baretu ez duten baten bat balego, gutxienez gogoan izan dezala ohore handia dela Eromenak iraintzea, zein, hitz eginarazi diogunez, pertsona batek behar duen deduarekin aurkeztu behar baita. Baina, zer dela-eta ari natzaizu hau guztia esaten zuri, babesle hain bereziari, auzi ez hain onak ere ederki defendatuko zenukeen horri? Agur Moro eleder bikain hori eta defenda ezazu adorez zeure Moria hau. Baserritik, M.D.VIII.eko ekaineko Idusen bosgarrena21.

MWRIAS EGKWMION
HAU DA
EROMENAREN
LAUDORIOA
ROTTERDAMGO ERASMOREN
DEKLAMAZIOA22
I
Eromena mintzo da23
Esan beza jendeak nitaz nahi duena, ongi bai ongi baitakit zein gaizki hitz egiten den Eromenari buruz eroenen euren artean ere; baina neu naiz bakarra, bakarra diot, jainkoak eta gizakiak nahi dudan guztian pozten ditudana. Eta honen erabateko froga, batzar jendetsu honetan hitz egitera agertu naizen bezain laster, zuon denon aurpegiak bat-batean ohi ez bezalako barregura berri batekin betetzean datza, bekoki ilunak ustekabean argitzean eta txalo bero eta alaiak niretzat jotzean; ze begiratzen zaituztedan den-denak katamendaz24 nahastekaturiko nektarearekin horditurik egongo bazinete legez agertzen baitzarete, Homeroren jainkoen antzera; ni etorri aurretik, aldiz, hor zeundeten eserita kopetilun eta kezkati, Trofonioren haitzulotik25 etorri berri egongo bazinete legez. Bestalde, ohizko den moduan, eguzkia bere urrezko aurpegi ederra lurrari erakusten hasten denean edo, negu gogor baten ostean, udaberria Mendebal-haizearen hasperen bigun eta emeekin heltzen denean, berehala gauza guztiek erakusten dute agerkera berria, kolore berria eta, jakina, gazte-itxura;

berdintsu zuok ere, ni ikusi nauzuenerako, beste aurpegi bat jarri duzue. Eta beraz, predikari handiek, euren aldetik, hitzaldi luze eta asko prestatuarekin ozta-ozta lor dezaketena, ardura izorranteak arimatik aldentzea alegia, nik berehala lortu dut begirada soil batekin.

II

Laster, bada, jakingo duzue zergatik agertu naizen gaur itxura bakan honekin, hitzaldian esaten dizuedana entzutea aspergarri ez bazaizue egiten bederen; baina niri ez didazue entzun behar predikariei jartzen dizkiezuen belarriekin, feriako berbontziei, koblakari eta bufoiei entzuten dizkiezuenekin baino, gure Midasek antzina Pani entzuten zizkion belarriekin alajaina (26). Atsegin zait, egia esan, pixka bat sofista-papera zuon aurrean egitea, baina ez ezteuskeria saputinak haurrei sarrarazten eta gehienbat emakumezkoena den matrakarako setaz hornitzen dituzten gaurregungo horiek bezala; nik, jaun-andreok, jakintsu izen laidagarriari itzurtzeko *sofista* deitzea nahiago izan zuten antzinako haiek imitatuko ditut, hauen zeregina jainkoen eta gizaki ospetsuen alabantzak gorespenez ospatzea izan baitzen. Beraz, gorespen bat entzungo duzue, baina ez Herkules edo Soloni zuzendua, neroni baino, hau da EROMENARI.

III

Egia esan, nik ez ditut jakintsutzat hartzen, norbere buruaren laudorioak kantatzea guztiz ero eta ahogorri dela esaten duten horiek. Sano eroa izango da, nahi duten bestekoa, baina laster aitortu beharko dute itxurosoa dela. Nor da Moria bera baino egokiago, bere laudorioen handiesle izateko eta bere buruaren laudoak egiteko? Nork adieraziko du neuk baino hobeto ni nor naizen? Neure burua neuk baino hobeki ezagutzen duen baten bat ez badago behintzat. Bestalde, nire jokabidea, nonbaition, jende printzipal eta jakintsu gehienek gehienetan daramatena baino zerbait apalagoa dela uste dut, hauek ahalge okerraren eraginez-edo, edozein erretoriko lausengari edo poeta harroputz erosten baitute, eta azken hauek, hartu duten sariak iradokita, haiei buruzko laudorioak, hau da: gezur hutsak, botatzen, jendeak entzun ditzan; eta bitartean, gure pertsonaia lotsatiak lumak arrotzen ditu indioilarraren antzera eta gangarra tente jartzen, gure lausengari lotsagabeak ia-ia jainkoen pare jartzen baitu gure gizona eta bertute guztien eredu hobezintzat aurkezten, nahiz eta lausengukoiak ongi dakien bertute horiek berarengandik izarrak lurretik bezain urruti daudela; eta bitartean lausengaria hor ari da belabeltza inoren lumakin janzten: Etiopiarrek zuritzen eta orobat eulia elefante bihurtzen. Nik, azken batean, ez dut beste ezer egiten herri esaera zahar oso ezagun hari kasu egin baino, goraipamenik egiteko inor ez duenak, amonarik ere ez zoritxarrez, bere buruaren alabantzak egitea normala dela dioen esaerari alegia. Eta honetaz guztiaz gogoeta eginaz, azkenez ez dakit jendearen zerk harritzen nauen gehiago: bere eskergaiztoak ala zabarkeriak, zeren guztiek gurtzen bainaute etengabeki eta nire eragin onuragarria pozarren onartzen; hala ere, hainbat mende iragan den arren oraindik ez da jaio EROMENAren laudorioak hitzaldi atsegin batetan kantatuko dituenik, nahiz eta falta ez diren Busiris27, Falaris28, lau eguneroko sukarrrak, euliak, burusoileria29 eta antzeko beste hainbat lazeria beren olio eta loaren lepotik goraldu dituztenak. Nire ahotik, ordea, benetan bat-batekoa eta gutxi landutako hitzaldia, eta horrexegatik egiazkoagoa, entzungo duzue.

IV

Ez nuke nahi pentsa dezazuen idazlan hau prestatu dudanik argia naizela zuoi erakusteko, nahiz eta idazle gehienek horixe egin. Hauek, dakizuenez, hogeita hamar urtetan zehar atsedenik hartu gabe lantzen egon diren idazlana, eta inoiz gainera eurek asmatu ere ez dutena, argitaratzen dutenean, zin egiten dute hiru egunetan idatzi, edo, gehiago oraindik, diktatu dutela, ia-ia denborapasa. Niri, aldiz, beti gustatu zait gauzak ahora datorkidan bezala esatea. Eta ez dezala inork nigandik itxaron nire buruaren azalpena definizio baten bidez egiterik, erretorika-maisuen ohitura onartuta, eta, gutxiago oraindik, zatiketan hastea. Zeren asturugaitzak izango bailirateke bata zein bestea, hala jainkozko eragin hain zabala duena zedarriz mugatzea nola izaki guztiek aho batez gurtu beharrekotzat aintzatesten dutena moztea. Egia esan, zertarako balioko luke definizio baten bidez nire itzal edo irudi bat adieraztea, zuok, hemen zaudetenok, ni, naizen moduan, zeuon begiekin ikusten banauzue? Izan ere ni, ikusten duzuenez, ondasunen egiazko banatzailea naiz, latindarrek "STULTITIA" eta Greziarrek "MORIA" deitzen nauten bera.

V

Bestalde, hori esateko premiarik ez zegoen, ni nor naizen, esaerak dioen bezala, neure aurpegian edo bekokian idatzita daramadalako. Minerva edo Sofiarekin inork nahasiko banindu, nahikoa litzateke begirada soil bat, okerraz hitzik ere esan gabe konturatzeko, aurpegia baita arimaren ispilurik onena. Nik ez dut apaingarririk behar, eta ez dut ematen, ezta, aurpegiarekin gauza baten itxura eta bularrean beste gauza bat gordetzen. Ni neure guztian naiz berdina,

ni mozorrotzeko gai ez direlako ez jakituriaren mozorroa eta titulua berentzat eskatzen gehien ahalegintzen direnak purpuraz jantzitako tximinoak eta lehoi-larruz jantzitako astoak bezala paseatzen ari direnak eurak ere. Itxura guztiak eginda ere, belarritzarrak beti agertzen direlako, han Midas nabarmentzen da. Jende-mota hau, ene Herkules, eskertxarrekoa da gainera, zeren, talde berdineko garen arren, nire izenaz jendaurrean hain lotsatzen baitira, non sarri besteen kontra erabiltzen duten irain astun bezala. Horiei, bada, errealitatean ero hutsak direlako, baina hala ere Sofia eta Tales30 bezalakoak agertu nahi direnez, ez al diegu eskubide osoz deituko erojakintsuak 31.

VI

Egoki deritzot parte honetan gure egunetako hizlari maisuei imitatzea, izainak bezala mihibiko32 direla erakutsi ahal izanez gero benetako jainkoak direla uste baitute eta grekoko hitzar batzuk euskarazko hitzaldietan mosaiko antzera txertatzea balentria handitzat baitute, nahiz eta tokirik egokienean ipini ez. Eta hitz arrotzik ezagutzen ez badute33, lauzpabost hitz zahar ateratzen dituzte pergamu higatuetatik irakurlea liluratzeko, ulertzen dituztenak pozik senti daitezen eta ulertzen ez dituztenek zenbat eta gutxiago ulertu hainbat eta miresmen handiagoa senti dezaten. Izan ere, plazer handia da nire kideentzat, eta gainera sotiltasuna duena, gauzak zenbat eta harrigarriagoak izan hainbat eta gehiago mirestea. Beraz, handiguragoak direnek egin dezatela barre, txaloak jo eta astoaren jokabideari jarrai ta; mugi ditzatela belarriak, gainerakoei jakinarazteko ongi ulertu dutela. Eta hauxe da dena. Bihur gaitezen, bada, gaira.

VII

Ezagutzen duzue bada, nire izena, jaun-andre... Zein epiteto erants nezake? Zein, oso erook baino hoberik? Egia esan, hauxe ez bada, zein beste deitura erabil lezake EROMENA jainkosak bere fidelei hitz egiterakoan?

Baina, askok ez dakienez zein leinutik natorren, horixe azaltzen saiatuko natzaizue Musen laguntzaz. Nire aita, egia diot, ez da ez Anabasa, ez Herio, ez Saturno, ez Japeto, ez-eta jainko zaharkitu eta gainbeheranzko horietariko beste edozein ere, Plou`to"34 baino; Pluto, eta bera bakarrik, nahiz eta honek min eman Hesiodo eta Homerori eta baita Jupiterri berari ere gizakien eta jainkoen aita. Plutoren buru-keinu txiki batekin, orain ere goitik beheraino nahasten dira gauza sakratu eta profano guztiak lehen bezala. Bere irizpidearen arabera burutzen dira gerrak, bakeak, inperioak, epaiketak, biltzarrak, ezkontzak, itunak, hitzarmenak, legeak, arteak, jolasak eta gauza serioak, ...; gehiagorako arnasarik ez zait geratzen eta, beraz, laburbilduz, hilkorren iharduera pribatu eta publiko guztiak hain zuzen ere. Bere laguntzarik gabe, poetek aipatzen duten jainkoteria hura guztia eta, esan dezan argiago!, jainko nagusiak eurak ere, edo bizi ere ez lirateke biziko, edo ez lukete gauza berorik jango etxean bertan ere. Pluto inork kontra balu, hari Palasek berak ere ez lioke laguntza eraginkorrik emango. Eta alderantziz, norbaiten alde agertuko balitz, norbait horrek Jupiter bera ere urkamendiraino eramango luke bere tximista eta guzti. Holako aita baten alaba izateaz harrotzen naiz. Eta honek ez ninduen burmuinetik sortu, Aita Jupiterrek Palas bere alaba goibel eta zakarra egin zuen erara, Neoditirengandik baino35, ninfa guztien artean askogatik ninfa xarmangarrien eta alaienaren sabeletik. Eta ez zuen egin ezkontza-eginbehar nekoso bat zuelako berarekin, forjari herrena jaio zen erara36, guztiz atsegin zitzaionarekin maitasunaren gozotasunean lotuta baino, gure Homerok esaten duen bezala. Baina, ez zaitezte tronpa, ni ez baininduen sortu Aristofanesek deskribatzen duen Pluto hark37, hanka bat hilobian eta itsu t'erdi zegoenak, gaztetasunaren berotasuna zuen aurreko urteetako osasuntsu hark baino, eta ez bakarrik gaztetasunarena, baizik eta batez ere garai hartako jainkoen gonbiteetan oparo edana zuen nektare hutsak emandako berotasuna.

VIII

Eta jaioterriagatik galdetzen badidazue, entzute ona izateko gaurregun garrantzia handia duelako bere lehenengo haur-negarrak egin dituen tokiak, esan behar dizuet ni ez naizela jaio ez Delos erratuan, ez uhinez beteriko itsasoan, ez leizezulo sakonetan 38, Irla Zoriontsuetan baino39, erein gabe eta lanik egin gabe guztia ematen den tokian. Irla haietan ez dago nekerik, ez zahartzarorik, ez eritasunik ere; hango lurretan ez da ikusten anbulurik, ez malbarik, ez tipularik, ez eskuhoririk, ez babarik, ez-eta mota honetako beste huskeriarik ere; alderantziz baino, han begiak eta usaimena nonahi laketzen dira batera moly40, panazea, katamenda41, maiorana, anbrosia, loto, arrosa, bioleta eta hiazintoz beteriko benetako Adonisen lorategietan. Delizia horien artean jaio nintzenez, bizitza ez nuen negarrez hasi, jaio nintzenerako ene amari egin nion irribarreaz baino. Egia esan ez diot inbidiarik Kronion Gorena elikatu zuena ahuntzari42, bular ederdun bi ninfa atseginek, Hordi, Bakoren lehenalabak eta Jakineza, Panen alabak43, eman baitzidaten ditia. Biak ikus ditzakezue hementxe, nire beste andre-lagun eta jarraitzaileen artean. Eta gainerakoen izenak ezagutu nahi baldin badituzue, nire ezpainetatik ez duzue, ene Herkules, horien izenik entzungo, grekoz ez bada behintzat.

IX

Hara, bekainak zubiturik dituen hori Buruestima da. Begi irribartsuak eta txalo jolearen eskuak dituen horren izena Lausengua da. Beste hori, erdi lo eta lokartuaren antzera dagoena, Ahanztura deitzen da. Hau, eskuak gurutzaturik bi ukondoekin sostengatzen dena Nagi da. Horri, ostera, arrosazko buruntza eta miritzaz beteriko gorputza duenari, Guri deritzo. Begi iheskorrak dituen hori eta bere begirada galdua toki batetik bestera darabilena, Buruarin da. Eta hori, azal argia eta gorputz ondo zaindua duena, Faun. Nesken artean bi jainko ikus ditzakezue: bati Orrits deitzen diote eta besteari Betilo Oheti 44. Zerbitzari-talde honen laguntza zintzoari esker, egia diotsuet, dena dut neure menpe, enperadoreen eurenganako enperadoretza bera ere neuk dudalarik.

X

Entzun duzue zein den nire jatorria, hezkuntza eta halaber nire lagun-taldea ere. Eta orain, inork pentsa ez dezan arrazoi gabe usurpatzen dudala Jainkosa titulua, entzun ezazue belarriak adi-adi dituzuela, zenbat mesede egiten diedan jainkoei eta gizakiei batera eta noraino hedatzen den nire jainkozko eragina.

Izan ere, norbaitek idatzi zuen hura45, jainkoei dagokiena, azken batean, hilkorrei laguntzea dela alegia, baiezpen hutsa ez baldin bada, eta bidezkoa baldin bada ardoa edo garia, edo antzeko zerbaiten aurkikundea hilkorrei egin dienak jainkoen batzarrean onartuak izatea, zergatik ez zait jainko guztien a[l? a deituko, eta zergatik ez naute Alfatzat edukiko, neu bainaiz guztiei dena erruz ematen dien bakarra?

XI

Hasteko, zer egon daiteke bizia bera baino atseginago edo ederragorik? Eta horren sorburua, nori doakio neuri baino hobeto? Zeren giza askazia sorteraz, edo heda, dezakeena ez baita ez Palas aita ahaltsuaren alabaren lantza, ez Jupiter ekaiztsuaren ezkutua. Egia esan, buruaren mugimendurik txikienaz Olynpo osoa dardar jartzen duen jainkoen aita eta gizakien erregeak berak ere, berari dagokion eta sarri burutzen duen seme/alabak egin gura duenean, bere tximist hirukoitza eta nahi duenean jainko guztiak izutzen dituen bere haserre-aurpegia alde batera utzi eta histrioien ohitura hertsiki betez beste mozorro bat jarri behar izaten du. Estoikoek, euren aldetik, esan ohi dute beraiek jainkoak baino gutxi gutxiago direla. Baina aurki iezadazue estoiko bat, hiru aldiz, edo lau, edo ongi baderitzazue, seiehun aldiz estoiko izango dena; honek ere, jakituriaren ezaugarri den, baina akerraren antza ematen dion bizarra mozten ez badu ere, kendu beharko du kopeta iluna eta bekokia argitu, beregantik urruti bota beharko ditu bere printzipio diamantea bezain gogor haiek eta inozokeria eta nabarmenkeria batzuk egin. Azkenean jakintsu horrek ere neugana jo beharko du, neugana diot, inoiz aita izan nahi badu bederen. Eta zergatik ez dut nik zuekin hitz egin behar neuri dagokidan moduan, hau da argiago? Eta galdetzen dizuet: burua, aurpegia, paparra, eskuak edo belarriak, hau da: nobletzat jotzen diren gorputz-atal horiek al dira jainkoak eta gizakiak sortzen dituztenak? Ez jaun-andreok. Giza askaziaren hedatzailea beste atal hura da; atal hain alu eta hain irrigarria non izendatu ere ezin den barrerik egin gabe. Horixe da, bai, gizaki guztiei bizia ematen dien iturri sakratua, ez pitagorikoen launako zenbaki hura!46. Egia esateko, zein gizonek, esan arren!, zein gizonek nahiko luke bere lepagaina ezkontzaren idustunari eskaini, baldin ezkontza-bizitzako eragozpenei buruz ezkondu aurretik hausnartuko balu, zuhur horiek egiten duten beste?, edo zein emakumek nahiko luke gizonezko batekin harremanak eduki, baldin haurgintzako lan arriskutsuak edo seme-alabak hazteak dituen eragozpenak ezagutuko balitu edo hasiko balitz horietan pentsatzen? Beraz, bizia ezkon-loturei zor badiozue eta ezkontza, bestalde, Buruarin nire kideari, erraz ulertuko duzue niri zer zor didazuen. Zeren, horretatik guztitik behin pasaturik egonda, zein emakumek nahiko luke berriz hori guztia pasatzea, Ahanzturak bere jainkozko eraginarekin zuzenean lagunduko ez balio? Venus bera ere, nahiz eta Lukreziok protestarik gogorrenak egin47, ez litzateke ukatzen ausartuko bere indarra, gure jainkozko ahalmenaren laguntzarik gabe urria eta antzua ez denik. Hortaz, gure jolas hordi eta irrigarri horrexetatik datoz hala filosofo kopeta ilunak, -eta horien postua gaurregun herriak *fraide* deitzen dien horiek betetzen dute-, nola purpuraz estaliriko erregeak, apaiz otoizlariak eta pontifize hiru aldiz santuak. Eta azkenez, Olynpoan, guztiz handia den arren, ia-ia ez sartzerainoko joria den poeten jainkoteria osoa.

XII

Biziaren sorrera eta iturria neri zor izatea sano gutxi litzateke baldin gai izango ez banintz frogatzeko bizitza osoan zehar ematen diren gauza atsegingarri guztiak ere oso-osorik direla nire esku zabaltasunaren ondorio. Nolakoa izango litzateke bizia, edo mereziko ote luke bizia deitzerik, atsegina kenduko bagenio? Txaloka diharduzue. Banekien nik zuetariko inor ez dela horren bestean zentzudun, edo hobe esanda, zentzugabe, nire iritziarekin bat etortzeko adina zentzugabetasunik ez agertzeko. Estoikoek eurek ere ez diote atseginari muzin egiten, alderantziz baino; gaitzespenaren itxura arretaz zaindu eta jendearen aurrean milaka laidorekin eraso arren, dudarik ez izan hori egiten dutela besteak ikaratu ondoren eurek oparoago gozatzeko. Esan bekit Jupiter arren: azken batean bizitzaren zein alderdi ez da tristea, edo gozogabea, edo ezatsegina, edo geza, edo jasangaitza, baldin atsegina, hau da, eromenaren gozagarria ez bazaio jartzen?

Honen testigantzarik egokiena agian, inoiz ere nahiko goraipatu ez den Sofokles izan daiteke, berea baita niri egin didaten laudorio ederrenetariko hau:

Ezeri buruzko gogoetarik ez egitean datza bizitzarik atsegingarriena 48

Baina hala ere, azal dezagun alderdi bakoitza bere aldetik.

XIII

Hasteko, nork ez daki gizakiaren lehenengo adina dela askogatik gainerako guztiak baino alaiago eta atseginagoa? Zer da haur txikietan laztantzen, besarkatzen eta babesten duguna, etsaia bera ere adin honetakoei laguntza ematera behartzen duena, eromenaren xarma baino?, Naturak, bere zuhurtziarekin, bada, ardura harturik, jaio berriei eman die hezitzaileen ahaleginak biguntzeko eta zaintzaileen borondate ona erakartzeko gai den sari atsegingarri hori. Hurrengo, haurtzaroaren ostean datorren gaztaroa ere, zein atsegina da guztientzat, nolako zintzotasunaz laguntzen diote denek, nolako kontuaz irekitzen zaizkie bideak, nolako gizalegetasunez luzatzen zaie esku laguntzailea! Eta gazteei, galdetzen dut, nondik datorkie dohain hori? Norengandik, neugandik ez bada? Neuk egin diet zuhurtzia gutxi izateko mesedea eta horrexegatik da hain gutxi ere bereganatzen duten haserrea. Dei nazate gezurti hau egia ez baldin bada, zeren, pixka bat nagusitu eta bizitzaren eta ikasketen esperientzia hartzen dutenerako, hasten baitzaie edertasunaren distira itzaltzen, alaitasuna moteltzen, erakargarritasuna epeltzen eta kemena ahultzen. Eta, horrela, nigandik zenbat eta urrunago joan, hasten da bizitza gero eta gehiago murrizten zahartzaro jasangaitza, hau da, zahartzaro jasangaitza49, besteentzat ez-ezik norberarentzat ere nazkagarria dena, ailegatu arte. Eta egoera hau ez litzateke inola ere jasangarria inorentzat izango,

baldin neuk, hainbeste nekerekin berriro ere urrikaldurik, lagunduko ez banitu amaieratik hurbil daudenak eta ahalgarri zaidan heinean berriz ere haurtzarora ekarrita, galtzeko arriskuan daudenak sorostera, itxura aldatuz, poeten jainkoak joaten diren antzera.

Honexegatik, hain zuzen, jendeak arrazoiaz bigarren haurtzarora iritsiak deitu ohi ditu holakoak. Gehiago oraindik, inork galdetzen badit nola lortzen dudan aldaketa hau, horixe ere ez diot ezkutatuko. Lethes edo Ahanzturaren iturbegietara eramaten ditut, ibairik maiteena hauxe baitut irla Zoriontsuetan jaiotzen delako (nahiz eta era berean egia izan bere ur-jario txiki bat infernuetaraino doana), Ahanzturaren urak bertan ugari edan ahala arimako ardurak pitinka-pitinka zirriborratuz eta eurak gaztetuz joan daitezen. Esango zait hauek eldarniatzen hasi direla eta zentzugabekeriak egiten. Eta onartzen dut halaxe dela. Baina horixe da hain justu ere, haurtzarora bihurtzea. Ala, haurra izatea ez al da eldarniatzea eta zentzugabekeriak egitea? Adin horretako gauzarik politena ez al da, bada, zentzurik ez izatea? Eduki ere nork ez luke gorrotagarri eta gaitsezgarritzat edukiko, izukaritzat, gizon helduaren zuhurtzia duen haurra? Ildo beretik doa herriak sarri baino sarriago aipatzen duen atsotitz hau ere: *Gorroto dut goiz-zentzudun haurra*50. Bestalde, nork jasango luke eguneroko tratua edo harremanak izatea, esperientzia izugarriaz gain, esperientziaren pareko adorea eta buru-zorroztasuna dituen agure batekin? Agure hori, egia esan, neuk egiten diodan mesedeagatik tenteltzen da. Baina, era berean, eldarniodun agure hori, zuhurra hagorantzen duten ardura latz haietatik ere aske uzten dut. Eta honekin batera, ez da gogaikarri gertatzen elkarrekin traguak egiteko orduan ere. Ez du sentitzen, ezta adin kementsuagoko batek horren jasangaitz aurkitzen duen bizitzaren unadura bera ere.

Inoiz, Plautoren agurearen antzera, hiru letra haietara itzultzen da51; dohakabea, gizagaixoa, horretaz konturatuko balitz! Baina, neuk laguntzen diodanez, bitartean zoriontsua da, lagunentzat atsegina eta gainera jolaskideekin alai izaten jarraitzen du. Homeron bertan ere eztia baino hitz gozoagoak jariotzen dira52, Nestorren ahotik, -Akilesenak, ostera, saminak dira-, eta idazle beraren esanetan, atso-agurek taldeka harresietan eserita hitz baketsuak 53 esaten dituzte. Guztira beraien egoera hobea da haurtzaroan baino, honi, adin atsegina izan arren, hizpidea falta zaiolako eta ondorioz baita bizitza gozatzen duen jolas nagusia ere, solasa alegia. Eta honi, gainera, gehi iezaiozue zaharrek haurrekin esan ezin adina gozatzen dutela eta haurrek ere zaharrekin antzera pozten,

Jainkoak antzekoak elkarrekin jartzen dituelako 54

Zer dago euren artean berdina ez denik, zaharrak zimur gehiago eta jaiotzetik urteurren gehiago dituela baino? Gainerako guztian, kolore argiko hilea, aho hortzgabea, gorputzaren tamainu txikiagoa, esne-gura, toteldura, berritsu izatea, gaitasunik eza, oroimen-falta, arinkeria eta beste gainerako guztian bat datoz. Eta zahartzaroan zenbat eta aurrerago, hautzaroarekin antzekotasuna areago bizitzaz gogaitu gabe eta heriotzea sentitu gabe, seintxoen antzera, bizitza honetatik joango diren arte.

XIV

Betor hona baten bat hegaz eta erka beza nire mesede hau gainerako jainkoek egiten dituzten itxuraldaketekin. Ez dago zertan gogoratu haserre daudenean egiten dutena, begi onenez ikusten dituztenak, zuhaitz, egazti, txirrita edo suge bera ere itxuraldatzen dituzte-eta55; beste gauza batean bihurtzea, hiltzea izango ez balitz legez! Nik, aldiz, gizaki bera bere bizitzako arorik on eta zoriontsuenera eramaten dut atzera. Horrexegatik, hilkorrek izango ez balute inolako harremanik zuhurtziarekin eta bizitza osoa nirekin pasatuko balute, ez litzateke inolako zaharreriarik egongo, baizik eta gaztetasun iraunkorraz gozatuko lukete. Ez al duzue ikusten gizaki goibel horiek osoro gazte izatera iritsi baino lehen nola dauden zeharo zaharkituak,

euren filosofi ikasketak egin edo zeregin zail eta korapilatsuen ardura hartu dutelako? Begibistan dago, ardurek eta arazoen gogoeta sakon eta etengabeak ahitu egiten dutela pixkanaka-pixkanaka izpiritua eta bizi-indarra. Nire ero-jendea, aldiz, guri-guri, distiratsu eta larru osasuntsuarekin ageri zaigu Akarnaniako zerriak antzera, esan ohi den bezala; jende honek inoiz ere ez du sentituko zahartzaroko ezerosotasunik, baldin jakintsuek kutsatzen ez badute bederen, inoiz gertatu dena. Giza bizitzari horraxeino ez dagokio zoriontsu arlo guztietan izatea! Eta gehi diezaiogun honi herri-esaera zaharraren testigantza garrantzitsua: gaztetasuna, bestalde hain laburra, luzatu eta zahartzaro gupidagabetik urrundurik mantentzen duen bakarra, EROMENA dela, etab...
Ez da, bada, arrazoi gabea herrian brabantetarrei buruz esaten dena: gainerako gizakiei adinean aurrera egiteak zuhurtzia ematen badie ere, haiek zahartzarotik zenbat eta hurrerago egon, hainbat eta eroago bihurtzen direla. Hala ere ez dago inon hauek baino jende alaiagorik bizitza ikusteko erari dagokionez, ez-eta zahartzaroaren tristura gutxiago sentitzen duenik. Hauen hurrekoak, hala jaioterriagatik nola bizitza ikusteko eragatik, neure holandarrak dira; eta nola deitu ez neureak, herriak eman dien goitizena irabazteraino baitira neure jarraitzaile setatiak?56. Goitizen horrek ez die lotsarik ematen, alderantziz baino, horixe delako harro sentitzeko duten arrazoi nagusienetariko bat. Joan bitez, bai, hilkor tenteltzarrak Medeas, Zirtze, Venus, Oskorri eta ez dakit noren iturrira, gaztetasuna bihur diezaioten, neu izanik mesede hori eman dezakedan eta eman ohi dudan bakarra. Neurea da, Memnonen alabak bere aitona Titoneri57 edaten emanda gaztaroa luzatu zion edabe mirakulutsu hura. Neu naiz halako Faon hura58 gaztetu nuen Venus, eta eskerrak neuri iritsi zen Safo hura eroki maitatzera. Neureak dira belarrak, baldin badaude, neureak konjurioak, neurea iturria igarotako nerabezaroa itzularazi bakarrik ez, baina -eta hauxe da desiragarriena-, betiraunean mantenarazten duena. Beraz, denok baduzue iritzi ontzat gaztetasuna baino ezer hoberik ez dagoela eta zahartzaroa bezain gaitzesgarririk,

uste dut konturatuko zaretela zenbat zor didazuen niri, on hain handia gorde eta gaitz hain handia baztertzen dudan honi.

XV

Baina zergatik jarraitu hilkorrei buruz hitz egiten? Azter ezazue zeru osoa eta inork aurkituko balu nire ukiturik gabekoen artean jainko bakarren bat gogaikarri eta mesprezagarri ez dena, botatzea dauka orduan niri aurpegira neronen izena. Esan!, Bako zergatik da beti mutiko iletsua? Argi dago, txoriburu eta hordia denez, bizitza osoa igarotzen duelako janedan, dantza, jai eta jolasetan, Palasekin inolako harremanik izan gabe. Eta gainera hain gutxi maite du zuhurtzat har dezaten ezen poztu egiten den txantxekin eta txirenadekin gurtzen dutenean. Ez da haserretzen Moryko baino kaikuago dioen atsotitz hartaz baliatuta *kaiku* goitizena ezarri diotelako ere. Moryko izena59 ipini zioten, baserritarrek, jostatzeko gogoa izaki, mahatsurarekin eta biku freskoekin zikintzen zutelako bere tenpluko ateetan eserita aurkitzen zutenean. Gainera, ba ote dago antzinako komediak bere kontra bota ez zuen eztenkadarik? Oi, Jainko txepel eta Jupiterren izterretik jaio beharrekoa!60, deitzen zioten. Baina, beti alai eta jostalari dagoen eta jolasa eta plazera denentzat beti duen holako zorakilo eta txepel bat izatea nork ez luke nahiago izango, denentzat beldurgarri den izpiritu bihurriko Jupiter hura baino lehenago, edo ustegabeko izuekin guztia pozointzen duen Pan baino61, edo errautsez kakaztuta eta bere tailerreko lanak beti zikinduta agertzen den Vulkano baino, edo bere Gorgona eta lantzarekin beldurgarri eta beti begi makurrekin begira dagoen Palas bera baino62. Eta Kupido, zergatik da beti haurra? Zergatik den?, berritsu bat delako, eta zentzudun ezer ez duelako ez egiten, ez asmatzen?

Zergatik dago beti lorean urrezko Venusen edertasuna? Ez dago dudarik, neure senidea delako eta horrexegatik neure aitaren kolore horia gordetzen duelako bere aurpegian63; Homerok ere horrexegatik deitzen dio urrezko Afrodita. Gainera, etengabeko irribarrea du, Poetei eta hauen kide diren Eskultoreei sinesten baldin badiegu bederen. Eta erromatarrek zein jainko gurtu zuten inoiz erlijiotasun handiagoarekin Flora atseginkoitasun guztien ama baino?64. Bestalde, inork arretaz aztertuko balu jainko latzen bizitza Homeroren edo beste poeta batzuen idazkietan, dena aurkituko luke eromenez beterik. Zertarako ekarriko ditugu gogora gainerako jainkoen egintzak, Jupiter tximista jaurtikitzailearen amodio eta jolasen jakinaren gainean guztiok zaudetenean? Edo denek dakizuenean nola larderia handiko Diana hura, sexua ahantzita zeukana, ia-ia ehizan hasi zitzaigun Endymionen amodioz burua galduta?65. Egia esan nik nahiago nuke jainkoek Momoren ahotik entzungo balituzte euren ekintzak66, antzinako garaietan sarritan entzuten zituzten antzera. Baina duela gutxi lurrerantza jaurtiki zuten Aterekin batera67, jainkoei buruz dena zekienez, euren zorionerako oztopo jasangaitza gertatzen zelako. Eta herbesteratu honi hilkor batek ere ez dio abegirik eman, printzeen jauregietan, argi dagoenez, harentzako lekurik ez dagoelako; horietan Lausengua nire lagunak du lehentasuna eta Lausenguren eta Momoren artean ez dago otsoek eta arkumeak duten besteko antzik ere. Hortaz, gainetik kendu dutenetik, jainkoak askatasun eta patxada itzelaz ibil daitezke txantxa hutsean, benetan ongien deritzotena eginda Homerok esaten duen bezala68, inolako irizlerik gabe.

Nolako jolasak ez ditu, bada, asmatzen bikondoan landutako Priapo hark?69. Eta Merkuriok, nolako istilu barregarriak ez ditu antolatzen bere epasko eta iruzurrekin?70. Gehiago, Vulkanok berak ere bufoi gisa jokatu ohi du jainkoen janedanetan eta txolinduriko mahaikideei barre eragiten die sarri bere erren-plantekin, bere ateraldi edo istorio barregarriekin. Holako kasuetan Sileno, agure maitatiak berak ere kordakean 71 dantzatzen du lira-soinua imitatzen duen Polifemorekin batera, Ninfek gymnopaidia 72 dantzatzen duten bitartean. Satiro erdiakerrek Atellakoak73 antzezten dituzte bat-batean; Panek gatz gabeko abestiekin jende guztia jartzen du barreka, Musak eurak baino nahiago baitute bera entzutea batez ere nektarez pixka bat bustirik daudenean. Baina, zertarako jarraitu gogoratzen orain jainkoek, bazkal osteetan, ondo mozkortuta daudenean, egiten dutena? Hain dira, ene Herkules, eroak non neuk ere inoiz ezin izaten diodan barreari eutsi. Baina une honetan hobe zaigu Harpokrates gogora ekartzea74, gerta ez dadin Korikoko jainkoren bat75 entzuten aritzea Momok berak ere zigortzeke esan ezin izan zituen xehetasunak kontatzen ari baikara.

XVI

Baina heldu zaigu ordua, Homeroren antzera, zerutarrak utzi eta lurrera itzultzeko, nahiz eta hemen ez dugun ezer alairik edo zoriontsurik aurkituko, neuk emanda ez bada. Lehenengo eta behin argi ikus dezakezue Natura, giza leinuaren ama eta egilea, nolako aurrikuste zehatzaz arduratu den eromen-pixka bat inon ere falta ez zedin.

Egia da, estoikoen definizioei kasu eginda behintzat, zuhurtzia ez dela besterik adimenduaz gidatzea baino; eta eromena, aldiz, grinen nahikarien arabera mugitzea; hala ere, gizakien bizitza tristura eta garraztasunaz betea izan ez zedin, Jupiterrek giza bizitzan adimendutik baino zenbat gehiago ipini ditu grinetatik? Txakur txiki bat libera batekin erkatzearen antzekoa izango litzateke!76. Bestalde, adimendua buruko bazter mehar batera zokoratu du, gorputzeko gainerako guztia grina-gehiegikerientzat utzi duelarik. Eta beraz, bi tirano indartsu, nolabait esateko, jarri ditu aurrez aurre bakoitzaren barruan: bata, haserrea, erraietako gotorlekuaz eta bizitzaren iturria den bihotzaz beraz ere jabetu dena; eta bestea lizunkeria, bere eremu zabalak pubisaldeko beheko barreneraino hedatzen dituelarik. Indar biki hauen aurrean adimenduak duen indarra, gizakien eguneroko bilakaerak adierazten du, adimenduak erlastu arte oihu egin

eta gizalegetasun-arauak eman arren -egin dezakeen gauza bakarra-; baina beraiek uztarpetik burua atera eta zaratotsa izugarriro areagotzen dute, adimenduak, azkenean guztiz unatuta, amore eman eta auzia galdutzat eman arte.

XVII

Honez gainera, gizonezkoa, negozioak aurrera ateratzeko jaioa zenez, adimendu pixka bat gehiagorekin ihinztatu beharko zelakoan, Jupiterrek dei egin zidan deliberatzera besteetan legez arazoari buruz behar bezalako aholkamendua izan zezan eta berehala eman nion neuri dagokidan moduko kontseilua: emakume bat emateko laguntzat, animalia hau eroa eta ezgauza benetan izan arren, era berean barreragile eta atsegina delako eta, beraz, eguneroko bizitzan zehar bere eromenarekin gozatu eta eztituko lukeelako gizonezkoaren betizukeria.

Emakumea, arrazoidun ala arrazoigabeko animalien artean sailkatzeari buruz Platonek itxura batean izan zituen zalantzak77, ez dute besterik adierazi nahi sexu horretakoen eromen izugarria baino. Eta emakumeren batek, txiripaz, bera jendeak zuhurtzat hartzea nahi izaten duenean, orduan bai agertzen dela, bi bider tuntuna; Minervaren, esan ohi denez, kontrakotasuna gorabehera, baten batek idia kirolarien olioaz igurztera eramango balu bezala. Izan ere, ez dagokion nolakotasun baten itxura naturaren kontra hartu eta bere izaera aldatzen duenak bikoiztu egiten du bere akatsa. Grekoen esaera zaharrak dioena, *tximinoa purpuraz jantzita ere, beti izango da tximino*; eta hortaz, emakumea ere beti izango da emakume, hau da tuntuna, edozein mozorro ipini arren. Egia esan, emakumeen taldekoak, ez ditut horrenbesteraino tuntuntzat jotzen, nirekin haserretzeko adina bederen erotasuna egozten diedala-eta, nerau ere emakumea bainaiz, gehi EROMENA. Ze, arazoa behar den bezala aztertuz gero, jabetuko dira gizonezkoak baino zoriontsuago izate hori, Eromenaren dohaina dela, hain zuzen, hainbat ikuspuntutik begiratuta. Lehenengo eta behin hor dago, eurek gainerako guztiari baino garrantzi gehiago arrazoi osoz ematen dioten irudiaren edertasuna, horrexen bidez erabiltzen baitute benetako tirania tiranoengan eurengan ere. Gizonezkoari, gainera, nondik datorzkio, bada, itxuraren laztasuna, larruazal iletsua, bizar-mataza eta, azken batean, zahar-itxura hori, zuhurtasunaren ohitura txar horren eraginez baino? Emakumearen masailak, aldiz, beti dira leun-leunak, bere ahotsa beti da eztia, azala samurra, etengabeko halako gaztetasun baten irudia ematen balego legez.

Eta bestalde, zer da bizitza honetan eurek gehien maite dutena, gizonezkoei ahal denik eta gogokoen izatea baino? Ez ote daude horrexetara bideratuta hainbeste edergarri, hainbeste apaindura, hainbeste bainu, hainbeste orrazkera, hainbeste miritza, hainbeste lurrin eta aurpegia, begiak eta larmintza apaindu, pintatu eta apailatzeko hainbeste arterio? Baina, gizonezkoei emakumeak gomendatzen ote zaizkie eromena ez den beste zerbaitegatik? Ba al dago eurek emakumeei egiten uzten ez dieten ezer? Eta zein sariren ordez, plazerrarena ezik? Emakumeek atsegin ematen dute, nola ez, eromenagatik, eta ez beste ezergatik. Bakoitzak bere baitan ikusiko du honetaz zein iritzi duen, baina inork ez du ukatuko gizonezko batek, emakume-atseginaz gozatzea erabakitzen duen bakoitzean, emakumearen ondoan pellokeriak esan eta pitxokeriak egiten dituela. Hortxe duzue, bada, bizitzako gozamen nagusiena eta lehena eta era berean bizia dakarren iturria.

XVIII

Hala ere hainbat eta hainbat dago, agureen artean bereziki, gonazale baino gehiago edarizale direnak eta atseginik handiena edaleen batzarretan izaten dutenak. Oturuntza oparorik emakumerik gabe egon daitekeenentz beste batzuek jakingo dute nik baino hobeto. Baina badirudi argi eta garbi dagoela eromenarekin ondu gabeko oturuntzarik ezin dela inola ere pozgarri izan. Hain da hau egia non, benetako zein itxurazko eromenarekin barre eragiten ez duen mahaikiderik ez dagoenean, bufoia ordainduta

ekarri behar izaten den edo jantxakur irrigarri baten laguntza lortu, bere alaitasunekin, hau da: bere pernandokeriekin, ospakizuneko isiltasuna eta goibelaldia apur ditzan. Zertarako balioko luke, bada, sabela ahoraino betetzea hainbeste gozokiz, hainbeste janari ederrez, hainbeste mizkeriaz, baldin aldi berean begiek, belarriek eta gogo osoak plazerrik izango ez balute barrealgara, jolas eta txantxekin?

Baina gozogintza-mota horretan neu naiz gozogile bakarra. Janedanetan beste ohikune batzuk ere egin ohi dira, adibidez, oturuntzako errege izango dena zozketaz izendatu edo datoka jokatzea, tragu egitera elkar gonbidatzea, errondatan leihatzea, mirtorriak elkartrukatuz abestu, dantzatu eta keinuka aritzea; ohikune horiek ez dituzte asmatu Greziako zazpi jakintsuek, giza askaziaren ongizaterako neuk baino. Jostagarri hauek guztiek halako izaera dute non, zenbat eta eroago izan hainbat eta mesede gehiago egiten dioten hilkorren biziari, hau tristea baldin bada, bizia deitzerik ere ez baitu merezi. Eta derrigor igaroko da triste, baldin berezko duen gogaitasuna ezabatzen mota horretako jolasekin norbera ahalegintzen ez bada.

XIX

Baina egongo dira, agian, plazer-mota hau ere antsiatzen ez eta plazerra adiskideen maitasun eta harremanetan jartzen dutenak, uneoro errepikatuz adiskidetasuna gauza guztien gainetik jarri behar dena dela, airea, sua zein ura ere bera baino beharrezkoago ez izateraino. Hain da atsegingarria non erditik kentzea Eguzkia bera kentzea izango litzatekeen78; eta gainera hain da sotila, hau kontura baldin badator, non filosofoek eurek ere ondasun nagusienen artean jartzeko zalantzarik ez duten. Eta zer, erakutsiko banizue neu naizela ondasun handi honen branka eta popa? Erakutsiko dizuet, baina ez Krokodilitez edo Soritez, Zeratinez edo dialektikako beste kakomako batzuez baliatuz79, ez; baizik eta adieraziko dizuet baldarkiago, ia-ia atzamarraz seinalatuta bezala.

Baina ez al duzue uste eromenaren antz izugarria dutela, adiskideen akatsak direnean ez ikusi egiteak, ziria sartzen uzteak, itsutzeak eta liluraturik geratzeak, eta halaber huts nabariak tasuntzat hartu eta miresteak? Zer da besterik, bada, maitearen garatxetan mun ematea, edo bere bildotsaren sudurreko polipoa atsegin izatea, edo guraso batek bere seme edo alaba begibakarra pixka bat betoker dela esatea, zer da, galdetzen dut, eromena baino?80. Aldarrika ezazue hiru zein lau aldiz, hori *eromena dela; izan ere badelako, baina da adiskideak jagon eta elkartuta mantentzen dituen eromen bat*. Hilkorrez ari natzaizue, *akatsik gabe inor jaiotzen ez den mundu horretaz eta garrantzirik gutxieneko akatsak dituztenak onentzat hartuak izan ohi diren munduaz*; jainkotzat hartu ohi diren jakintsuen euren artean ere, adiskidetasuna edo ez da finkatzen edo adiskideak era aspergarri eta latzean batzen ditu eta, gainera, guztiz lagun gutxiren artean ematen da -eta lotsatu egiten naizelako esaten inorekin ere ez dela ematen-; horrexegatik, noski, gizaki gehienek ez baitute zentzurik, gehiago oraindik, ez dago bat hainbat eta hainbat gauzatan eroturik ez dagoenik, eta adiskidetasuna, berriz, ez baita sortzen kideen artean baino. Hortaz, elkarrekiko ongura gizaki bakarzale hauen artean sortzen denean, hau ez da izaten finkoa, ez gutxiagorik ere, eta ez du luzaroan irauten, harritzekoa ez den gauza bestalde, gizabanako punttalakurlo eta behar den baino ikusmen zorrotzagoa dutenak izaki, lagunen akatsak *Epidauroren arranoak edo sugeak* bezain sarkor ikusten baitituzte81. Eta, aldiz, beren akatsei dagokienean, zein itsusko diren eta zein gutxi ikusten duten bizkarrean zintzilik daramaten zakutoa. Gizateria, bada, halako motakoa da, non akats handiei lotuta ez dagoen izaerarik aurkitu ere ezin den. Gehi diezaiogun honi urteei eta ikasketei zor zaien ezberdintasuna eta gainera, giza bizitzan gertatu ohi diren erorketa guztiak, oker guztiak eta gorabehera guztiak: horiekin guztiekin nola iraungo du adiskidetasunaren pozak ordubete bera ere argotar hauen artean, greziarrek eujhvqeian hitz dotorea deitzen dioten eta lainotasun edo harreman lagunkoi bezala itzul daitekeen hura laguntzera ez badatorkie bederen?

Ostera zer? Kupido, adiskidetasun-harreman guztien babesle eta sortzailea bera izanik, ez al dago zeharo itsututa itsusia eder-eder ikusteraino eta ez al du lortzen zeuon artean ere nork berea eder ikusaraztea eta mutikoa neskatoaz bezala agurea atsoaz maiteminaraztea? Hori toki guztietan ematen da eta barregarri gertatzen; baina, hala ere, pitxokeria horiexek itsasten dute bizitzako elkarte atsegina eta elkarturik mantentzen.

XX

Eta adiskidetasunari buruz esan dugun hori asko ere gehiago sakondu behar da ezkontzaz ariz gero, azken batean ezkontza ez delako besterik bi gizabanako bizitza osoan zehar elkarrekin lotzea baino. Oi jainko hilezkor hori!, zenbat dibortzio edo dibortzioa baino asko txarrago diren zenbat eta zenbat zoritxar egongo ez lirateke alde guztietan baldin nire alboko diren lausengaldiek, txantxek, barkamenak, ezikusi egiteek, fineziak eta zuriketak mantendu eta elikatuko ez balute senarraren eta emaztearen arteko famili harremana? A!, eta senargaiak zuhurtziaz arakatuko balu dontzeila txarmangarri eta ahalgeti hark zenbat jolasetara jostatu duen ezkondu baino asko lehenagotik, ez al duzue uste asko ere ezkontza gutxiago egongo liratekeenik? Eta ez al duzue uste oraindik ezkontza gutxiago mantenduko liratekeela elkartuta, baldin senarraren laxotasun edo inozokeriagatik emazteen hainbat eta hainbat gauza ezkutuan ez balira mantenduko? Gertaera horiek guztiek arrazoiz egozten zaizkio eromenari; baina, hala ere, honek bitartean lortzen du emazteak senarra pozik edukitzea, senarrak emaztea pozik edukitzea, etxean haserrerik ez egotea eta bihozkidetza mantentzea.

Senarragatik hainbat trufa egiten da, adardun, atzipetu, kurruka82 eta ez dakit zer deituz, hark emazte lizunaren negar-malkoak musu bigunekin xukatzen dituen bitartean. Baina, ez al da asko ere hobe horretara atzipeturik egotea, susmopean norbera ahitu eta inguru guztia zorigaitzean bildu baino?

XXI

Hitz batez, ni gabe ez litzateke ahalgarri izango hantazino zein bizitzako harreman zoriontsu edo egonkorrik edukitzerik; eta, beraz, herriak ez luke luzaroan bere printzea jasango, ez etxekojaunak morroia, ez neskameak etxekoandrea, ez irakasleak ikaslea, ez adiskideak adiskidea, ez emazteak senarra, ez ugazabak maizterra, ez erkideak erkidea, ez mahaikideak mahaikidea, baldin gertatuko ez balitz txandaka beren artean behin tronpatzen direla, hurrengoan elkar lausengatzen, gero zuhurki ezikusi egiten edo eromenaren ezti-modukoaz elkar igurtzen. Ondo dakit hau guztia egia huts iruditzen zaizuela, baina handiagorik ere entzun ahal izango duzue oraindik.

XXII

Nire galdera da: norbere buruari gorroto dionak, maitatuko al du inor? Norbere buruarekin akort ez dagoena, egongo al da inorekin ados? Norberarentzat aspergarri eta gogaikarri denak, emango al dio inori atseginik? Galderoi baietz, ene iritzian, ez die inork esango, Eromena bera baino eroagoa ez bada behintzation. Baina ni aldenduko banintz, ez bakarrik inor ez litzateke inor jasateko gai izango, baizik eta bere burua ere putakumetzat izango luke, bere gauzak gaitzetsiko eta bere guztia gorrotagarri izango.

Izan ere, Naturak, gauza askotan ama baino gehiago amorde denez, norberarenaz damutzeko eta inorena miresteko gaitza erein du hilkorren aiurrian, batez ere zentzu gutxikoenen artean. Eta horrek, bizitzako ondasun, lilura eta xarma guztiak lorrindu eta desagertaraztea dakar. Zertarako balioko luke jainko hilezkorrek emandako ondasun nagusia den gorputzaren edertasunak, baldin arazeriaren narrioak kutsatzen badu? Zertarako gaztaroak, baldin zahartzaroko tristuraren hartzigarriak kirasten badu? Eta azkenez, bizitzako eginbeharren batekin zerikusi duen zein gauza egin dezakezu, hala zeuretzat nola besteentzat, duintasunez (egiten duzuna egokitasunez burutzea delako artearen zein iharduera guztien funtsezko xedea), baldin meritu osoz ahizpatzat eta ordezkotzat dudan Philautia-Buruestimak ardura guztiaz laguntzen ez badizu? Bete ere, ezin hobeto betetzen du nire lana egoten den toki guztietan. Baina ba al dago nori bere burua gustatzea eta mirestea baino ezer eroagorik? Eta alderantziz, norbere burua norberari gustatzen ez bazaio, egiten duen zer izango zaio begiko, atsegingarri eta xarmangarri? Ken ezazu Philautia-Buruestima bezalako gozagarria gure bizitzatik, eta hizlaria berehala bihurtuko da hotz bere mintzaldian, jendeari ez zaio gustatuko ez musikaria ez bere musika, txistuka egingo zaio aktoreari antzezten ari dela, poetari barre egingo zaio bere Musekin batera, gutxietsia izango da pintatzailea eta bere artea, osagilea gosez hilko da bere botika artean. Hau da, Nireo barik Tersites izango da83, Faon barik Nestor84, Minerva barik zerria, eleder barik ahomotel, eskolatua barik ezjakina. Horraxe arte behar du bakoitzak bere burua balakatu eta besteei gomendatua izan baino lehenago bere buruari balaku txikiren batekin gomendatu.

Laburbilduz, zorionaren alde nagusia *bakoitzaren izana nahi izatean datza* eta, jakina, ene Philautia-Buruestima maiteak eskaintzen duen mesedea, horixe besterik ez da, hau da, inori ez egitea desatsegin norbere gorputz-itxura, norbere izaera, norbere jatorria, norbere egoera, norbere jokabidea edo norbere herria halako heinean, non irlandar batek ez lukeen nahi italiar batez aldatzerik, ez traziar batek atenastar batez, ez eszitiar batek irla Zoriontsuez. Eta oi Naturaren ardura paregabea, hainbesteko aniztasuna izanik ere guztia egin baitu orekatua. Naturak bere dohainak pixka bat murriztu dituen tokian, Philautia-Buruestimak hantxe jartzen baitu beretik zertxobait gehiago; nahiz eta hobeto pentsatuz, orain esan dudanak ez bururik ez hankarik ez duen, Philautia-Buruestima bera baita dohainik handiena. Bestalde, ez dut esan beharrik ere ekintza garrantzitsurik ez dela gauzatzen neure eraginez ez bada, eta nire ekimenari zor ez zaion puntako arterik ere ez dela burutzen.

XXIII

Ez al da gerra, balentria laudatuenen soro eta iturria? Baina hala ere zer eroagorik, mota horretako lehia batekin, hots: alde bati zein besteari, biei, irabazia baino galera gehiago beti ekartzen dien gatazka batekin, inork ere ez dakizkin arrazoiengatik hastea baino? Erortzen direnengatik, hitz bat ere ez da esaten, megaratarrak balira legez. Eta gero, armadak, buruz buru, burrukarako prest daudenean eta *adarrek guda-soinu erlatsa jo dutenean*85, zein da, galdetzen dut nik, ardurez ahiturik eta odol indarge eta hotzarekin ia bizi ere ez diren jakintsu horien baliagarritasuna, han behar dena jende gazte mardul eta indartsua izaki, oldarkortasuna franko eta burua urri duena?

Ez baldin badago baten bat bederen, gudaritzat nahiago duena Demostenes, Arkilokoren aholkuari kasu eginaz, etsaia urrutian ikusi zuenerako, ezkutua jaurtiki eta ihesari eman zion gizona: hizlari sonatua bezain gudari koldarra hain zuzen86. Dena dela, zuhurtziak gerretan garrantzia handia duela esan ohi da. Eta onartzen dut halaxe dela buruei dagokienez, baina guda-gizonaren zuhurtzia, ez filosofoarena. Alabaina, ekintza hain ohoretsu hau, jantxakur, doilor, bidelapur, asasino, bilau, kirten, zorrez bete, zorrizto eta kasta berdintsukoen esku uzten da; eta ez filosofo argien eskuetan.

XXIV

Bizitzako gauzetan filosofoak zein gauzeztan diren adierazteko adibidetzat, Sokrates bera jar daiteke, Apoloren orakuluak, guztiz oker baina jakintsu hobezintzat jarri zuen arren, jendearen aurrean zerbaitetaz, ez naiz ondo gogoratzen zertaz, hitz egiten saiatu zen behin batean, saioa utzi beharra izan baitzuen entzulego osoaren barre purrustadak entzunda. Egia da, noski, gizon honek ez zuela honetan senik zeharo galdu, ez baitzuen onartu bera jakintsutzat hartzerik, hori jainkoari baino ez zegokiolako eta uste zuelako jakintsua politikan esku hartzetik abstenitu behar zela; hala ere hobeki egingo zuen irakatsi balu jakituriatik urruti samarrean mantendu behar direla gizakien artean onartuak izatea nahi dutenak.

Gainera salatu zutenean, zerk behartu zuen astaperrexila edatera, jakituriak baino? Hodeiei eta ideiei buruz filosofatu zuen bai, neurtu zituen orobat arkakusoaren hankak eta eltxoaren zarata miretsi87, baina ez zuen ikasi zer den bizitza arruntean behar dena. Hortaz, Sokratesek heriotz zigorraren arriskua izan zuenean, Platon bere ikasle eta benetan abokatu bikainak hartu zuen bere defentsa, baina honek ere jendaldearen oihuteriak min emanik, bere hitzaldiaren erdia bera ere ezin izan zuen egin88. Eta zer esan beharko Teofrastori buruz, batzarrean hitz egiteko aurkeztu eta bat-batean zeharo mututu baitzen, otso bat ikusi balu bezala?89. Isokratesek ere oso ongi emango zien adore gerran zeuden gudariei, baina hain zen herabetia non inoiz ere ez zen ausartu ahoa zabaltzen ere90. M. Tulio, Erromako hitz-antzearen aita, izugarrizko dardararekin egoten zen beti hitzaldiaren hasieran eta ia-ia haurren antzera zizakatzen zuen, nahiz eta Fabiok hau91, arriskuaren jabe den zentzudun hizlariaren adierazgarri bezala hartzen duen. Hori esatean, ez al dago argi eta garbi aitortzen jakituria oztopo dela gauzak egokiro egiteko? Hitz hutsekin burrukatu behar denean izuturik agertzen diren horiek, zer egingo ote dute arazoa armen bidez erabaki behar denean?92. Eta hauen guztien ostean goretsiko da, jainkoen baimenaz, Platonen esaera sonatu hura: *errepublikak zoriontsuak izango lirateke, baldin filosofoek agindu edo agintariek filosatuko balute.* Historialariak kontsultatzen badituzue, ordea, berehala jabetuko zarete errepublikek boterea filosofo bati edo letrazale bati eman diotenean baino agintari kaltegarriagorik inoiz ere ez dutela eduki.

Honi buruz nahiko fede ematen dute, ene ustez, bi Katonek, batek bere zentzugabeko salaketekin errepublikaren lasaitasuna narriatu zuelako eta besteak Erromako herriaren askatasuna sustraietaraino hondatu jakituria gehiegiz jagotearren93. Gehi iezazkiezue haiei Brutotarrak, Kasiotarrak, Grakotarrak eta Zizeron bera ere, Demostenes atenastarren errepublikarentzat bezain kaltegarria izan baitzen hau erromatarren

errepublikarentzat. Onar dezagun, hala ere, M. Antonino enperadore ona izan zela, naiz eta horixe ere eztabaidagarri izan, zeren filosofo ona izatean, besterik gabe, gogaikarri eta gorrotagarri gertatzen baitzen hiritarrentzat. Onar dezagun, hala ere, ona izan zela; baina bestalde, hori bezain egia da bere administrazioak egin zuen ona baino asko kaltegarriago izan zela errepublikarentzat utzi zuen semea uztea94. Izan ere, filosofi ikasketan murgilduriko giza mota honek, denean izan ohi du zorigaitza, baina bereziki umegintzan, zeren Natura, ene ustez, arduratzen baita jakituriaren gaitz hori gehiegi heda ez dadin hilkorren artean. Horrela, argi dago Zizeronen semea endekatu bat izan zela95 eta Sokrates jakintsu hark, -norbaitek, eta azertu handiz gainera, esan duen bezala- aitaren baino amaren antz gehiago zuten seme-alabak izan zituela, hau da, eroak.

XXV

Baina hala ere jasangarria izango litzateke, baldin aipatu filosofoak arazo politikoetan lira jotzen duten astoak bezalakoak izan arren, bizitzako gainerako zereginetan, aldiz, trebeagoak balira.

Baina, dei egiozu jakintsu bati bazkari batera eta guztia lorrinduko dizu bere isiltasun betilunarekin edo bere kontu aspergarriekin. Gonbida ezazu jai batera eta dantzan ari denean ganbeluaren antza hartuko diozu. Ekar ezazu herri ikuskizun batera eta jartzen duen aurpegia jendearen jolasa eragozteko nahiko oztopo izango da, eta antzokitik irten beharra izango du, Katon jakintsuaren antzera, ezingo duelako argitu bere betarte iluna. Solasaldi batera joango balitz, alegiako otsoa agertu dela emango luke96. Zerbait erosi behar balu edo tratu bat egin edo, laburki esanda, eguneroko bizitzarekin aurrera egiteko behar direnetariko edozer egin behar balu, pepelerdo bat dela esango zenuke, ez gizaki bat. Horraxeino iristen da berekiko, aberriarekiko eta bere etxekoekiko moldagaiztasuna, eguneroko gauzetan trebetasunik ez duelako eta herritarren arduretatik eta ohitura arruntetatik urruti baino urrutiago aurkitzen delako. Honetatik guztitik ez dago beste erremediorik gorrotagarri direla ateratzea baino; eta ez da harritzekoa ere, ikusita nolako ezberdintasunak dauden hala bizimoldean nola izaeran. Eromenez beterik ez dagoen gauzarik egiten al da, beraz, hilkorren artean, hau da, inozoek inozoen artean egin gabeko zerbait? Beraz, norbaitek, berak bakarrik, gainerako guztiak iskanbilaren iskanbilaz nazkatu nahi izango balitu, nik gomendatuko nioke bakartegiren batera, Timonen antzera97, alde egin eta hantxe, bakardadean, bere jakituria guztiaz gozatzeko.

XXVI

Baina itzul nadin hasierako nire asmora: Zerk, lausenguak baino, bultzatu zituen hirira gizaki latz eta haitza edo artea bezain gogor haiek?

Izan ere, Anfion eta Orfeoren zitarek ez dute ezer besterik adierazi nahi98. Zer izan zen behe-mailetako Erromako jendea hiri elkartasunera ekarri zuena, irtenbide larrienen asmoarekin zebilenean? Mintzaldi filosofikoren bat agian? Ez jaun-andreok, alderantziz baino: gehiago balio izan zuen horretarako sabelarekin eta gorputzeko gainerako atalekin osatutako funtsik gabeko elezahar irrigarri batek99. Baliagarritasun bera izan zuen azeri eta kirikinoari buruzko Temistoklesen elezahar berdintsuak ere100. Jakintsu baten zein hitzaldik izango zukeen Sertoriusen alegiazko oreinemeak izan zuen eragimena101, edo bi txakurrei buruzko espartar famatuaren kontakizunak102, edo behor-buztaneko zurdak ateratzeko moduari buruzko beste barregarri hark?103. Eta ez dezadan ezer esan Minos104 eta Numari buruz105, asmakizun bitxiez baliatuz gobernatu baitzuten batak eta besteak gizatalde inozo hura. Izugarrizko basapiztitzar indartsua den populu hori, bada, mota honetako ezteuskeriekin samurtzen da.

XXVII

Orain berriz, zein hirik onartu ditu inoiz Platonen edo Aristotelesen legeak, edo Sokratesen jarraibideak? Zer izan zen deziarrak limurtu zituena etxeko jainkoei askatasun osoaz bere burua opatzeko?106.
Zerk erakarri zuen Q. Curtius amildegira, itsasneska ezti eta xarmantaren antzeko izanda, jakintsuek, hala ere, hain zorrotz laidoztatzen duten banagloriak ez bada?107. Ba al dago ezer inozoagorik, diote hauek, herria limurtzen dabilen hautagaia baino: jana nahiz dirua bermatuz jendearen borondatea erosi nahiean eta inozoen txaloen atzetik joan eta berauen oihuekin pozten dena, edo ikur gisa airean eramatea maite duena jendearen ikuskizun bihurturik, edo foroan brontzezko irudia ordezkotzat tente daukana? Gehi iezaiezue hauei guztiei jaun-izen eta goitizenak hartzea. Gehi, gixonskei emandako jainko-ohoreak108, gehi, ospakizun publikoetan tiranorik eraileenak ere jainkoen pare goraltzea. Erokeria izugarriak dira hauek, horietaz trufatzeko nahiko Demokrito bakarrik ez izateraino109. Nork ukatzen du hau? Baina, hala ere, iturri horretan dute sorrera gizon eleder askoren idazkiek zeruetan jartzen dituzten heroi indartsu horien balentriak. Eromen-mota horrexek sortzen ditu hiriak; horri esker irauten dute agintariek, magistraturek, erlijioek, kontseiluek, auzitegiek; izan ere, giza bizitza ez da ezer besterik eromenaren jolas bat baino.
XXVIII
Eta arteei buruz ere egia esatera joanda, zerk zirikatu ditu azken batean hilkorren adimenak, bikaintzat jotzen diren ikasbideak asmatu eta gerokoei azaltzera, gloria-egarriak baino? Gizaki inozo baino inozoagoek pentsatu dute hainbat lo galdu eta hainbat izerdi botata, ez dakit zein ospe, eta hutsa ezer bada horixe da, lortu behar dutela.
Baina bitartean, bizitzako abantaila guztiz garrantzitsuak zor dizkiozue Eromenari eta atsegingarriagoa dena, inoren erotasunaz gozatzeko ahalbidea.
XXIX
Bada, adoretasunaren eta ekintzaren laudorioa neuretzat erreibindikatu ondoren, zuhurtziarena ere erreibindikatuko banu, zer? Norbaitek agian esango du bide horretatik azkenean sua eta ura nahasteko ahalbidea ere egongo dela. Baina nik, egia esan, horixe ere gertatuko dela espero dut, baldin belarriak eta gogoa arretaz jartzen badizkidazue orain arte egin duzuen moduan. Hasteko, zuhurtzia gauzak praktikatzeak ematen baldin badu, nori dagokio hobeto zuhurra deitzeko ohorea, jakintsuari, -zati bat beldur arren, eta beste bat izatez lotsatiegia delako edozeri ekiteko-, ala eroari?, honek ez baitu ezertan atzeraka egingo, ez sumatzen duen ahalkez ezta ere ikusten ez duen arriskuaren beldur. Jakintsuak antzinakoen liburuetan bilatzen du babesa eta han ez du besterik egiten hitzezko kakomako hutsak buruz ikasi baino. Eroak, aldiz, arriskuetara hurbildu eta hurretik biziz, egiazko zuhurtzia, oker ez banabil, bereganatzen du. Homerok, itsua izan arren, hauxe ikusi zuela dirudi, eroak ekintzak baino ez ditu ezagutzen 110 dionean. Egia esan, gauzak ezagutzeko bi oztopo nagusi daude, ahalkea bata, burua kez lausotzen duelako, eta beldurra bestea, arriskua agertzen denerako ekintza burutzeko asmoa kentzen saiatzen delako. Baina bi hauetatik, Eromenak ederki askatzen du bat.
Hilkor gutxik ulertzen du zenbat eta zenbat abantaila duten ezertaz ere ez lotsatzeak eta dena egiten ausartzeak. Eta zuhurtziatzat gauzei buruzko iritzi zuzena izatea hartu behar dela hobeki ikusten baldin bada, entzun iezadazue, arren, hortik zein urruti dauden ideia hori saltzen saiatzen direnak. Lehenengo, argi dago giza arazo guztiek, Alzibiadesen sileniarrek bezala, elkarren artean inolako antzik ere ez duten bi aurpegi dituztela111. Eta lehenengo ikusian, esan ohi den bezala, herioa dena, gehiago sakonduz gero, bizia da; eta alderantziz bizia dena, herioa; ederra dena, itsusi; aberatsa dena, hori guztiz txiro; aipatu ezin dena, ospetsu; jakituna dena, ezjakin; indartsua dena, indarge; eskuzabala dena, zekena; alaia dena, triste; aldekoa dena, kontrako; adiskide

dena, etsai; osasungarri dena, kaltegarri; laburki esanda, Sileno irekitzen baduzu, bat-batean guztia aurkituko duzu atzekoz aurrera. Eta norbaitek uste badu agian filosofia gehiegirekin esan dudala hau, hitz lauagoekin adieraz dezan. Nork ez du esango errege bat aberatsa eta ahaltsua ez denik? Baina gogoko tasunei buruz ezer irakatsi ez bazaio eta ezerk asetzen ez badu, begibistakoa da zeharo pobrea dela. Gainera, bere arima emanik baldin badago grina ezberdinetara, orduan morroi erdeinagarria da. Gainerako tasunei buruz ere antzera filosofatzeko aukera genuke. Baina aski bedi ulerbidetzat jarri dugun adibidearekin. Eta hau, zertara dator?, galdetuko du norbaitek. Entzun ezazue auzia nora eraman nahi dudan.

Eskenategian alegi bat antzezten ari direla, norbait saiatuko balitz antzezleei mozorroa kendu eta ikusleei euren egiazko aurpegiak erakustarazten, ez al luke antzezpen guztia pikotara bidaliko eta ez ote luke ongi irabazirik izango denek antzokitik harrika ateratzea burugaldu bat bailitzan? Orduan errealitate berri batzuk agertuko lirateke bat-batean eta ordura arte emakumea zena, orain gizaseme bihurtu da; gazte-gaztea zena, behingoan agure; duela gutxi errege zena, bat-batean dama; jainko handia zena, derrepente gixonska. Izan ere, amarru hauek kentzeak antzerki guztia nahastea dakar. Tindagai eta karatula horiexek direlako ikusleen arreta lortzen dutenak. Azken batean, hilkorren bizitza osoa zer da antzerki bat besterik, non bakoitzak mozorro bat jantzi eta bere papera egiten diharduen antzerki-buruak eskenategitik kendu arte?

Hala eta guztiz ere, buru horrek sarri antzezle berari paper ezberdinak egiteko agintzen dio eta duela gutxira arte purpuraz jantziriko erregearen papera antzeztu duena, horren ondoren morrontxa baldresarena egiten jartzen du. Guztia da, izan, gezurrezkoa, baina honako alegia hau ezin da beste modu batera antzeztu. Holaxe gaudela, baldin jakintsu bat bat-batean zerutik erorita agertuko balitzaigu oihuka esanez guztiek jainko eta jauntzat duten hura, ez dela gizakira ere heltzen, basatien erara jokatzen duelako grinekin eta morroirik ziztrinena dela hainbat jaun nazkagarri zerbitzatu dituelako bere borondatez; ondoren, bere gurasoaren heriotzeari negarrez ari den bati alaitzeko aginduko balio, gurasoa egiaz bizitzen oraintxe hasi delako, bizitza hau errealitatean ez baita besterik heriotz mota bat baino; gero, bere genealogi zuhaitzaz harrotzen ari denari, sasikume eta bort deituko balio, nobleziaren iturri bakarra den bertutetik oso urrun dagoelako, eta beste gauza guztiei buruz ere antzera hitz egingo balu, galdetzen dizuet: ez ote luke lortuko burutik joa eta zoro gaiztotzat denen aurrean geratzea?

Denboraz kanpoko jakituria baino eroagorik ez dagoen moduan, ez dago halaber gaizki ulerturiko tentua baino zentzugabeagorik. Zeren gaizki jokatzen ari baita garaian garaiko zein inguruko jokamoldea onartu ez eta kaleko jendearen ibilkera bereganatzen ez duena, edo gutxienez gonbiteetako ohitura ezagun hura: edo edan edo joan gogora ekarri nahi ez duena eta antzerkia jada antzerki ez izatea nahi duena. Aldiz, guztiz zuhurra da, hilkorrak garenez gero, inguruan suertatu zaizkigunak baino jakintsuago inola ere ez agertzea eta gizatalde osoaren aurrean ezikusi atseginez egitea eta adeitasunez tronpatzea. Baina horixe berori da, esango dute, eromena. Eta nik neuk ez dut inola ere ukatuko, baldin berek, beren aldetik, aitortzen badute horrexetan datzala bizitzako alegia antzeztea.

XXX

Jainko hilkorrak!, hemendik gorako hori esango al dut ala isildu egingo ote naiz? Baina zergatik isilduko naiz, egia baino egiago da-eta? Hala ere, arazoa hain handia izaki, agian hobe litzateke Helikoneko Musei etorrararaziko bagenie112, poetek ezteuskeria hutsengatik noiznahi dei egiten baitie. Babes nazazue pitintxo batean, Jupiterren alabok!, goi-jakituria honetara, edo berek deitzen dioten zoriontasunaren gotorlekura, EROMENA gidatzat izan gabe inor ezin dela iritsi argi jarri arte. Hasteko, denek onarturik dago sentimendu guztiak Eromenari dagozkiola. Zeren eroa hurrengo seinaleak bereizten baitu jakintsutik, hots: harengan sentimenduek agintzen dutela eta honengan arrazoiak. Estoikoek horrexegatik zokoratzen dituzte barne-eragin guztiak, eritasunak bailiren, jakintsuarengandik; hala ere, jakituriaren portura iristen saiatzen direnentzat sentimendu horiek ez bakarrik dira pedagogoen ordezko, baizik eta bertutearen egiteko guztietan akuilu eta eragingarri ere izan ohi dira, ongi jokatzeko aholkua emanik.

Nahiz eta hemen Senekak, estoiko eta erdi den horrek, jakintsuari sentimendu guztiak zeharo kentzeko eskatuz oihu indartsu egiten duen. Baina, egia esan, hori egitean gelditzen dena ez da gizaki bat, are jainko itxura gehiago duen zerbait berria, inon eta inoiz izan ez dena eta izango ere ez dena, asmatu izan du hark; argiago esanik, marmolezko gizairudi bat egin du, geldia eta edozein giza sentimendutik oso urruti dagoena. Hortaz, atsegin bazaie, goza bezate estoikoek bere jakintsuarekin, lehiakiderik gabe maitatu ahal izango baitute eta Platonen hirira113 edo, nahiago badute, ideien erresumara zein Tantaloren lorategietara114 joan bitez berarekin bizitzera. Holako gizaki batengandik nork ez luke ihes ikaraz beterik egingo, izukari eta mamu batengandik egiten den bezala, gizaki-mota hori naturaren eragin guztiei entzungor egiten diena baita, sentimendu bat ere ez duena, ez maitasunarekin ez bihozberatasunarekin hunkitzen ez dena,

"sukarri gogor edo Marpeso mendiko marmolarriaren antzera zutik dirauena."115

Holakoari, konturatu gabe, ez lioke ezerk ihes egingo, ezertan hutsegiterik ez luke izango; alderantziz bai, beste Lynceus baten antzera ongi behatu gabe ezer ez du utziko, zehaztasunez neurtu gabe ezer laga ere, ezta ezer barkatu ere, bera delarik bakarra bere buruarekin pozik dagoena; bera aberats, osasuntsu, errege den bakarra, bera aske den bakarra, hitz gutxitan esanda bera izanik dena, baina bere iritziz baino ez, bere adiskide inor ez delako, bera ez delako inoren adiskide, jainkoak eurak ere urkamendira bidaltzen zalantzarik egiten ez duelako, zentzugabea dela-eta guztia gaitzetsi eta guztiari barre egiten diolako?

Kasta horrexetako animalia da, bada, erabateko jakintsu hori. Eta nire galdera da: auzia botuz erabakiko balitz, zein hirik nahiko luke beretzat kasta honetako magistraturik, edo zein armadak aukeratuko luke burutzat holakoren bat? Gehiago oraindik, zein emakumek nahi edo jasango luke aiurri horretako senarrik, zein gonbite-egilek horren antzeko bazkaltiarrik, zein jopuk holako ohiturak dituen ugazabarik? Nork, aldiz, ez luke nahiago izango gizaki eroen multzo handi horretako edozein, eroa izaki bera bezalako bati aginduak eman zein bera bezalako baten aginduak hartu ahal izateko, bere kideekin, ahal denik eta gehienekin gainera, atsegingarri dena, emaztearekin xalo, adiskideekin jator, bazkaltiarrekin adeitsu, bazkalkide gogoko eta, azken batean, gizakiari dagokion ezer arroztzat jotzen ez duena? Baina, egia esan, kasta horretako jakintsuak aspaldidanik nauka goraino. Eta, beraz, neuk ematen ditudan gainerako hobarietara nire hitzaldi hau bideratzea hobe!

XXXI

Jarrai dezagun, hortaz; norbaitek gaindegitik behatuko balu bere ingurua, poetek esan ohi dutenez Jupiterrek egiten duen antzera116, ongi ikusiko luke zenbat lazeriaren arriskutan dagoen gizakien bizitza, zein nekoso eta likitsa den euren jaiotza, zein

neketsua hazkuntza, zenbat laido-arrisku dituen haurtzaroak, zenbat izerdi botatzera bideratuta gazteria, zein astuna den zahartzaroa, zein gogorra hil beharra, zenbat triskantza egiten duen eritasun-andanak, zenbat mehatxatzen duten zorteek, zenbat erasotzen dioten ezerosotasunek, behazun-mordo batekin busti gabe ezer ez egoteraino alajaina; eta hori guztia gogora ekarri gabe gizakiak gizakideari egiten dizkion kalteak, hala nola, pobrezia, gartzela, desondra, ahalkea, oinazeak, azpilanak, saldukeria, zatarkeriak, gatazkak, iruzurrak.

Baina nik oraingoan itsasoko hare garauak kotatzeari eman diot argiro. Bestalde, ez zait zilegi momentuan esaterik gizakiek zein lege haustegatik merezi izan dituzten zigor horiek, edo zein jainko haserretuk behartu dituen nekezia horietarako jaiotzen. Eta egia esan, gertakizun hauek bere baitan aztertzen dituenak ez al du onartuko Miletoko neskasoen jarrera117, urrikalgarria dela onartu arren ere? Eta nortzuk izan dira gehienbat, bizitzaz gogaiturik, heriotz ordua aurretatu dutenak? Ez al dira izan, bada, jakituriatik hurren daudenak? Diogenes, Jenokrates, Katonak, Kasioak eta Brutoak aipatu gabe utzita ere118, Kiron bera ere horiexen artean dago, hilezintasunera iragateko baimena izan arren, berak bere kabuz nahiago izan zuelako heriotzea119. Ikusten ari zaretela uste dut, zein izango litzatekeen geroa baldin gizaki jakitunak edonon jaioko balira: buztin berriaren eta beste Prometeo buztinlari baten premia izango genuke, nonbait120. Baina nik, pixka bat ezjakintasunagatik eta beste pixka bat arinkeriagatik, batzuetan zorigaitzak ahantzaraztearren, beste batzuetan zorionen esperoagatik, noizean behin plazer-tanta batzuez bizitza eztituz, zorigaitzak jota daudenei hainbesteko laguntza ematen diet non ez baitzaie atsegin bizia uztea, ezta Parken haria jada amaiturik dagoelako biziak berak uztear daudenean ere; gainera, bizirik irauteko arrazoi gutxiago dutenean atseginago dute bizitzea, hain urruti baitaude, egon ere, bizitzaren unadurak ukitzetik. Neure oparia da, izan ere, nongura ikusi ahal izatea giza figurarik inondik ere ez duten Nestor bezalako121 agure zizo, burutik jo, hortzgabe, ilezuri eta burusoilak, edo Aristofanesen hitzekin hobeki deskribatzeko, zikin, konkor, esteiari, zimurrez bete, burusoil, hortzgabe eta ziztroak 122; baina, hala ere, biziaz halako eran gozatzen dute eta hain gaztetxo sentitzen dira, non ilezuriak tindatzen dituzten, burusoileria ileordez ezkutatzen, agian zerriren bati kendutako hortzak erabiltzen,

neskatxaren batengatik burua zeharo galtzen eta bere maitasun-erokerietan mukizu bat baino urrunago joaten diren. Eta zerraldotik hur daudela hilotz ibiltari huts direnean, neskato samurren bat emaztetzat hartu ohi dute sarri askotan, ezkonsaririk gabekoa noski, eta luzarora beste norbaitek gozatu duena, hau guztia ere ia txalogarritzat hartu ohi delarik. Eta oraindik atseginago da ikustea atsoak, zahartzaro luzeak ia-ia iraungirik eta infernutik etorri direla pentsatzeko moduko hilotz-itxura dutenak, baina hala ere biziaren argia ederra beti ezpainetan dutela oraindik katutxo maitabera agertzen direnak; grekoek123 esaten duten bezala arkara dagoen ahuntzaren antzera, Faon berri bat prezio handian erakartzen saiatzen dira124; aurpegia pinturaz etengabe igurtzen dute eta ez dira ispilutik aldentzen; behe aldeko ile-oihana erauzten saiatzen dira eta bular zimel eta suntsituak erakusten; nahikari ahula marraka dardartsuaz berotzen, barra-barra edaten, neskatoen dantzaldietan nahastatzen eta maitasun-gutunak idazten. Denek egiten dute barre tentelkeria hauekin, horixe baitira bene-benetan ere; baina berek pozarren sentitzen dira beren buruez eta plazer handien artean bizi dira, beti ere eztialdian, neure mesedeagatik zoriontsu. Baina hau barregarritzat duten horiek nik nahiko nuke barru-barrutik ausnartuko balute zer den hobe, bizitza gozo-gozoa iragatea eromen-mota honi esker ala jendeak esaten duen moduan urkatzeko gapirio baten bila ibiltzea. Gainera, gaizkiesana franko sortzen duen horrelako lotsakizunak ez die eraginik ere egiten nire erotxoei, kalte hori edo sentitzen ez dutelako edo baldin sentitzen badute, erraz ahanzten dutelako.

Harri batek buruan joko balitu, hori bai izango litzatekeela benetako kaltea. Baina aldiz, lotsak, desondrak, laidoek, gaizkiesanek, arreta jartzen zaien neurrian ekartzen dituzte kalteak. Eta konturatzerik ez badago, ez dira kalteak ere. Nolako mina egingo du, bada, herri osoak txistu jotzeak, zeu zeure buruari txaloak jotzen ari zarenean? Hau ahalgarri izatea, Eromenak baino ez du bermatzen.

XXXII

Entzuten ari naiz, hor nonbait, filosofoak garrasika ihardesten. Baina deitoragarria ezer bada, esaten dute, horixe bada: Eromenak gatibu edukitzea, oker ibiltzea, engainatua izatea eta ez jakitea. Alderantziz diot, gizaki izatea horixe delako. Ez dut ikusten horri zergatik deitzen dioten deitoragarri, horrexetara jaio baitzarete, horrexetara hezi, horrexetara prestatu eta horixe baita guztion zorte komuna. Norbere endari dagokion ezer ez da deitoragarria, baldin baten batek uste ez badu behintzat, gizakia urrikalgarria dela ezin duelako hegan egin hegaztiak bezala, edo lau hankan ibili beste animaliak bezala edo adarrez armaturik ez dagoelako zezenak bezala. Baina hori dioenak zaldirik ederrenari ere zoritxarreko deitu beharko lioke gramatikarik ez dakielako edo pastelik jaten ez duelako; zezena ere malerusa, kirolean iharduteko gauzaez delako. Baina gramatikarik ez dakien zaldia malerusa ez den moduan, gizaki eroa ere ez da zoritxarrekoa, hori bere naturarekin guztiz bat egina dagoelako. Berriz ere estutu nahi naute hitzetorridunek125. Zientzien ezagutza, esaten dute, gizakiari emandako berezitasun bat da, ezagutzon laguntzarekin eta agudeziaz baliatuz naturak gutxiago eman diona pareka dezan.

Egiantzen bat izango duelakoan, naturak, eltxoen kasuan, eta halaber belar eta loretxoenetan ere, hain ardura handiz jokatu eta gizakiaren kasuan gero lo egitea, zientzien premia izateraino; hauek Teutusek126, gizateriaren etsaia zen jeinu hark, asmatu zituen gizakia zeharo hondatzeko xedeaz eta, izan ere, hain gutxi balio dute zorionerako, non esan ohi denez, egiatan sortu zituen helburua bera betetzeko ere kaltegarri diren, Platonen idazkietan errege guztiz zogi hark127 letren asmaketari buruz hitz egitean, dotore argudiatzen duen bezala. Hortaz, zientzi ezagutzak ezkutuki sartu ziren giza bizitzako gainerako malura guztiekin batera eta gizakiaren zoritxar guztiak ekarri zituzten autore berdinengandik datoz,

hau da, deabruengandik, izena bera ere dahvmona", hots: dakitenak, horrexegatik jarri baitzitzaien. Urre aroko jende xume hura, egia esan, armatzat inolako zientzi ezagutzarik izan gabe bizi zen, gidari bakar natura eta sena dituela. Zertarako, bada, behar zuten gramatika, guztiek hizkuntza berean hitz egiten baitzuten eta hitzarekin ez bazuten besterik bilatzen elkar ulertzea baino? Zein baliagarritasun izango zuen dialektikak elkarren kontrako iritzien inolako aurkaketarik ez zegoen tokian? Zein toki erretorikak, inoren arazoen ardurarik inork hartzen ez zuen garaian? Zertarako beharko zen zuzenbidea ohitura txarrik ez baitzegoen?; gainera inork ez du dudarik ohitura-mota horiexetatik sortu direla lege onak. Orduan gainera erlijiosoegi ziren jakingura dongearekin naturaren ezkutapenak, izarren neurriak, mugimenduak eta eraginak, eta halaber gertakarien azken zergatiak arakatzeko, gizaki hilkor bat bere asturutik harago jakiten saiatzea dongakeria zela uste zutelako.

Burura etorri ere ez zitzaien egiten zerutik aparte ezer egon zitekeen galdetzeko burugabekeria. Urre aroko garbitasuna arian-arian dariola zihoanez, jeinu txarrek, esan dudan bezala, arteak asmatu zituzten lehenengo; gutxi ziren, hala da, eta, gainera, jende gutxirengana iristen ziren. Gero, kaldearren sineskeriak eta greziarren arinkeria axolagabeak seiehundaka gehitu zituen, adimenaren gurutze hutsak bihurtzeko, gramatika bera ere, adibidez, besterik gabe bizitza osoko etengabeko oinazea izateko aski eta lar izateraino.

XXXIII

Bestalde, zientzi ezagutza hauen artean gehien preziatzen direnak, jakina, zentzu komunetik, hau da, eromenetik hurren daudenak dira. Goseak hilik daude teologoak, hotzak hilik fisikoak, barre-purrustadak egiten zaizkie astrologei, ez-entzun dialektikoei. Sendagile bakar batek gizaki askoren beste balio du 128. Bide beretik arituz, bat zenbat eta ezjakinago, ausartago eta oharkabeago izan, hainbat eta estima gehiago duen idunekoz apainduriko sasi-printze horien artean. Medizina bera, batez ere gaurregun askok erabiltzen dutena, ez da lausenguaren zatitxo bat besterik, eta erretorikaren pareko hau ere. Bigarren, osagileen hurrengo tokia legezorriei ematen zaie: eta ez dakit lehenengoa eman behar ez zaien, zeren hauen lanbideari, neuk neure kabuz ez esateko, filosofoek, ahobatez, astajakintza bailitzan barre egiten baitiote.

Baina, hala ere, arazo guztiak, garrantzitsuak izan zein ez, denak egiten dira astakilo horien irizpidearen arabera. Hauen latifundioak handituz doazen bitartean teologoek jainkoaren guztia gordelekutik atera arren ere, eskuzuria hortzikatzen dute129, imutxa eta zorriekin burruka gogorrean ari direla. Hortaz, Eromenarekin kidetasun gehien duten arteak zoriontsuagoak diren modu berean dira, askogatik gainera, zoriontsuenak zientzi ezagutzekin inolako zerikusirik gabe iraun eta Natura gidari bakartzat hartzeko aukera izan dutenak, honek ez duelako akatsik bere xehetasun txikienean ere, baldin baten batek nahi ez badu bederen naturaren muga sakratuak baino harago jauzi egin. Naturak gorroto ditu maskarak eta inongo arterik bortxatu ez duen hura asko ere oparoagoa gertatzen da.

XXXIV

Jarrai dezagun, ez al duzue ikusten gainerako bizidunen espezie guztietatik bizitzarik zoriontsuena dutenak, edozein heziketa-motatik urrutien daudenak eta naturarena salbu, inoren maisutzarik ez dutenenak direla? Nor da erleak bezain zoriontsu edo miresgarri? Eta horiek, gorputzeko zentzu guztien jabe ere ez dira. Arkitekturak lortuko ote du erleek eraikuntza-arloan egiten duten antzekorik? Zein filosofok sortu du inoiz antzeko errepublikarik? Zaldiak, ordea, giza adimenarekiko kidetasunagatik

eta gizakiarekin elkarbizitza estuan bizitzearren giza atsekabeen partaide da. Ondorioz, sarri ikusten da lehiaketetan lehertu beharrean garaitua izateaz lotsatzen delako eta gerretan, garaipenaren atzetik dabilela, nola zauritua gertatu eta zaldizkoarekin batera behera datorren, lurra jateraino.

Eta ez ditzadan bitartean gogora ekar galga mingarriak, ezproin akuilagarriak, ikuiluko presondegia, zigorkadak, makilakadak, bridak eta zaldizkoa, hitz gutxitan esanik: berak berez onartu zuen joputasunaren tragedia guztia, gizaki indartsuak imitatzearren, etsaiak mendekatzeko grina bizia sentitu zuenean130. Hainbat desiragarriagoa da, behintzat gizakien zelatadek uzten dien bitartean, besterik gabe eta berezko senak soilik gidaturik bizi diren eulien eta txoriñoen bizitza. Hauek inoiz, kaiola barruan sartuta, giza ahotsa imitatzen ere ikasten dute gaixoek eta orduan, miresgarria da berezko xarma hura noraino galtzen duten egiaztatzea. Beraz naturak sortu duena era guztietan da arteak apaintzen duena baino atseginagoa. Horrexegatik ez nuke inoiz behar den adina goralduko Pitagoras zeneko oilar hura131, eta ondorioz datorren beste guztia: filosofo omen, baita gizon ere, emakume, errege, hiritar soil, arrain, zaldi, igel eta belaki ere uste dut; hala ere, ez omen zuen harek aurkitu gizakia bezain zoritxarreko den animaliarik, eta hori gainerako guztiak Naturaren mugen barruan mantentzen direlako, gizakia delarik ezarri zaizkion mugetatik kanpo irten nahi duen bakarra.

XXXV

Bide beretik aurrera eginda, gizakien artean, ikasiak eta gora handikoak baino nahiago ditu gauza askotarako ezikasiak, eta Gryllo famatua132 Odiseo guztiz zuhurra baino asko zuhurrago agertu zen, nahiago izan zuelako txerrikortan kurrinka jarraitu, Odiseorekin batera gorabehera negargarri haietara bidalia izatea baino.

Ematen dit Homero, elezaharren aita, ez dagoela iritzi hauetatik urrun, hilkor guztiak beti zorigabe eta atsekabetsu deitzen dituelako eta beretzat jakintsuen eredu den Ulises ere, sarri deitzen duelako zorigaiztoko, Paris, Ajax eta Akiles inoiz ezartzen ez dien hitza. Eta zergatik hori? Zergatik besterik, maltzur eta trebe hark Palasen aholkurik gabe ezer egiten ez zuelako eta horrela naturak ezarritako ildotik hainbat eta hainbat aldenduz zuhurtzia gehiegi erakusten zuelako baino? Hala bada, hilkorren artean zorionetik urrutien daudenak jakituriaz arduratzen direnak, eta horrexegatik ero baino eroago, diren modu berean, jaiotzez gizaki izanik beren izaeraz ahantzi eta jainkoen biziaren gutiziaz daudelako eta, erraldoien eredua hartuta, naturaren kontra zientziaren tramankuluak erabiliz, burrukatzen direlako, halatsu animalien senera eta eromenera gehien hurbiltzen direnak eta giza gaitasunetatik harago dagoen ezer egiten ez dutenak direla dirudi gutxien zorigabe. Saia gaitezen, bada, eta ea hau argitzeko ere gai garen, baina ez estoikoen entimemak erabiliz133, adibide errazak jarrita baino. Jainko hilezkorren arren, ba al dago gizaki-mota zoriontsuagorik, herriko zanpantzar guztiak baino, ero, sinpletzar eta babo, nire ustez gotitizen paragabeekin eskuarki deitzen zaien horiek? Lehenengo ikusian agian tentel eta zentzugabea den gauza bat esaten ari naiz, baina hau, hala ere, egia handi-handi bat da. Hasteko, hauek ez dute, Jupiter arren, hala-holako gaitza ez den heriotzearen beldurrik. Bihotz zimikorik ere ez dute. Defuntuen arimei buruzko ipuinek ez diete ikararik ematen.

Mamuek eta itzalek ez diete izurik sartzen; berehalako gaitzen beldurrak ez ditu oinazeztatzen, ez geroko ondasunen itxaropenak egonezina sortzen. Hitz batez, bizitzak dituen milaka eta milaka ardurek ez diete minik ematen. Ez dute izaten lotsarik, ez diote inori errespeturik, ez morrontzarik, ez diote inori gorrotorik, ez maitasunik. Adimengabeko animalien inozokeriara gehiago hurbilduko balira, bekaturik ere ez lukete egingo teologoen esanaren arabera. Zuk ostera, jakintsu guztiz ero hori, nahiko nuke oraintxe, hemen, neure aurrean zehaztasun osoaz

aztertuko bazenu zenbat aldiz egunez eta gauez nonahi oinazeztatzen duten zure izpiritua daramazun bizitza-motako eragozpenek eta multzo batean bilduko bazenitu, horrela ondo baino hobeto ulertuko zenukeelako azkenean zenbat gaitzetik jagon ditudan nire zorakilo horiek. Gehi iezaiozu honi ez direla eurak soilik, etengabe gozatzen, jolasean, hortzartean kantuka eta barreska ari direnak, baizik eta gainerako guztiei eskaintzen dizkietela doazen toki guztietan plazera, txantxa, jolasa eta barrea; hori guztia, hots: giza bizitzako tristezia barre algaren bidez alaitzea hain zuzen, jainkoen bihozberatasunez eman zaien egitekoa dela uste izateko moduan. Hortik dator ezen, gainerako jendearen arteko atxikimendua era askotakoa den bitartean, hauek, aldiz, guzti-guztiek aintzakotzat hartzen dituztela, eurekin egon, janaritu, babestu, besarkatu eta premiarik baldin badute laguntzeko; edozer esaten eta egiten uzten dieten bezala, inolako erantzukizunik gabe. Zeintzuei inork kalterik egin nahi ez izate hori hain da hedatua non basapiztia ankerrenak eurak ere neurriz ibiltzen diren haiei ez erasotzeko, agian eurei dagozkien berezko lainotasun horrek eraginda. Horiexek dira, bada, izan ere, jainkoen eta bereziki neure gogokoenak, eta bidezko da, hortaz, guztien begirunea izatea.

XXXVI

Zer esan, bada, erregerik handienen gustuak halako eran betetzen baitituzte, non eurek gabe ezin duten ez jan, ez ibili, ez ordu oso bat iragan. Hobesteko orduan, pernando kaiku hauen eta jakintsu goibel horien artean dagoen tartea ez da ez txikia, nahiz eta jakintsu horietariko banaka batzuei ere jaten eman, ohorea arren. Hobesteko zergatia ez dut uste iluna denik eta inori harrigarri iruditu beharko litzaiokeenik, jakintsuek ez dietelako printzeei gauza tristeak baino esaten eta noizean behin gainera, duten jakituriak harropuzturik, belarri finak egia garratzaz apurtzeko beldurrik ez dute izaten; zanpantzarrek, aldiz, printzeek era eta toki guztietan eskuratu nahi duten gauza bakarra ematen diete, hau da: txantxak, barregura, barrezantzoak eta jostaketak. Onar ezazue, eta gaitasun hau ez da gutxiestekoa, eroak direla egia argi eta garbi esaten dutenak. Eta zer da egia baino goresgarriago? Nahiz eta Platonek134 aipatu Alzibiadesen ahotik esaera zahar hura, hots: egia ardoari eta haurrei egotzi behar zaiela, hala eta guzti ere laudorio hori guztia neuri dagokit beste inori baino gehiago, eta horren lekuko Euripides da135, berea baita guri buruzko esaera famatu hura, zorakiloek zorakeriak baino ez dituzte esaten. Zorakiloak bihotzean duen guztia aurpegian agertzen da eta ahotik esaten du. Jakintsuek, aldiz, hitz egiteko bi era dituzte, Euripides berak gogorarazten digun bezala136: batekin egia esaten dute; bestearekin, ordea, une bakoitzean egoki dena. Hauek beltza dena zuri bihurtzen dute, aho berarekin egiten die putz hotzari eta beroari137 eta bihotzaren barruan gordeta gauza bat duten arren, solasaldietan zeharo ezberdina den beste bat adierazten dute.

Beste alde batetik, hala ere, printzeak, zoriontasun hain handiaren erdian ere, guztiz zorigaitzekoak direla uste dut, honexegatik hain zuzen, egia esango dien norbait falta zaielako eta, beraz, adiskideen ordez lausengariak dituztelako nahitaez. Baina printzeen belarriek gaitzetsi egiten dute egia, esango dit norbaitek, eta horrexegatik egiten diete jakintsuei ihes ahal dutenik eta azkarren, losintxak barik egiak esatera ausartuko den norbait libreagoa agertuko den beldurra dutelako. Hala da egiatan, erregeek egia gaizki ikusten baitute. Baina horixe bera da gertatzen dena nire zorakiloekin, era nahiko miresgarrian, hots: errege horiek atseginez entzuten dutela horiengandik ez bakarrik egia baizik eta ageriko protestak eurak ere; hitz berdinak, jakintsu baten ahotik irteten direnean heriotz zigorra merezi izango zuten tokian zanpantzar batek esaten dituenean poztasun sinestezina sortzen baitute. Egiak badu berez, egia esan, atsegina emateko nolabaiteko indarra, iraintzeko ezer ez duenean; baina dohain hori jainkoek zorakiloei baino ez die ematen. Eta horixe da emakumeei, oro har, mota horretako gizonak

horrenbeste gustatzeko arrazoi nagusia, izaeraz direlako plazer eta huskerietara emanak. Hortaz, sarri horretan dihardutenez gero, arazo serioen bat suertatzen bada ere, eurek txantxa eta jolastzat hartzen dute, sexu hau horraxeino baita argia batez ere bere ekintzak isiltzeko orduan.

XXXVII

Itzul nadin, bada, zorakiloen zorionera; hauek, bozkarioz beteriko bizitzaren ostean, heriotzeari beldurrik izan gabe eta sentitu gabe, zuzenean joaten baitira zelai Elysioetara138, han euren txantxekin arima errukior eta laxoei atsegina ematera.

Goazen aurrera eta erka dezagun gure zanpantzarrak duen zortea edozein jakintsurenarekin. Irudi ezazu honen aurrean jakituriaren eredua jartzen duzula, haurtzaro eta gaztaro osoa bere ezagutzak hobetzen eman duen gizona, eta bere bizitzako zatirik atseginena etengabeko beila, ardura eta izerdietan galdu duena, gainerako bizitza osoan plazer-tanta bat ere dastatu ez duelarik, beti jangar, txiro, triste eta goibel bizi izan dena, zorrotz eta gogorra bere buruarekiko eta pairaezin eta gorrotagarria besteekiko, zurbildurak, argaltasunak, eritasunek eta begiko minak ahitua, zahartzaro eta ile zuri goiztiarrek hondatua eta bizitza hau goizegi utzi duena. Ze garrantzi du holako bat hiltzeak, bizi, esaten dena, inoiz ez bada bizi izan? Hauxe duzue jakintsu baten benetako irudia.

XXXVIII

Baina hona hemen nola aspertzen ari zaizkidan berriro ere beren kro-kroekin bere Apirikoko igelak 139, esanik *ez dagoela ezer burutik sano ez egotea baino errukigarriagorik*. Baina eromen sakona, edo burutik sano ez egotetik hur dago, edo, kasik hobe, burutik sano ez egotea bera da. Ze, sanotasunik eza zer da besterik gogoa noraezean ibiltzea baino? Baina hauek bidea huts egiten dute erabat. Ezerezta dezagun, bada, guk ere beren silogismoa, Musek alde izanda. Agudeziaz argudiatzen dute, egia esan; baina Sokratesek Platonengan140 irakasten du Venus bakarretik, erdibiturik, bi ateratzen direla eta Kupido bakarretik, zatituta, bi egiten dituela; modu berean dialektiko horiei ere egoki etorriko litzaieke burutik sano ez egote-mota baten eta bestearen artean bereiztea, benetan nahi izango balute bederen berek ere sano agertzea.

Sano ez egote guztiak, besterik gabe, ez direlako kaltegarri. Bestela, Horaziok141 ez zuen esango

erokeria maitagarria ari al da enekin jolasten

eta Platonek142 ere ez zuen jarriko bizitzako ondasun handienen artean poeta, igarle eta maitaleen lilura: ez igarle andere hark ere ez zion erokeria deituko Eneasen lanari143. Egia da, bada, bi burutik sano ez egote-mota daudela: bata da Furia mendekatiek infernuetatik igortzen dutena sugegorriak bidaltzen dituzten bakoitzean, eta hilkorren bihotzetan ereiten gerra-irrika, edo urre-egarri aseezina, edo maitasun laidagarri eta erailea, edo guraso-hilketa, edo intzestua, edo sakrilegioa, zein antzeko beste izurriren bat, eta halaber, bere erruaren jakinean dagoen izpiritua izuaren garretan edo Furien eskuetan erortzen denean ere. Baina beste bat ere bada, honengandik zeharo ezberdina, neugandik datorrena, garbi dagoenez, eta desiragarriena askogatik dena. Izpiritua ardura larrietatik askatu eta era askotako plazeren laguntzarekin gogoa leuntzen duena. Gogo-lilura horixe da, jainkoen opari handia legez, Zizeronek, Atikori idazten dionaren arabera144, beretzat nahi zuena, atsekabe guzti haien eraginetik aske utz zezan zalantzarik gabe. Ezta ez zitzaion desatsegina gertatzen, burutik egina zegoen argotar hari ere antzokian eserita, errealitatean ezer antzeztu ez arren tragedia miragarriak antzezten ari zirela usterik, barreka, txaloka eta jostari egun osoak beste inor gabe iragaiten baitzituen; baina bizitzako gainerako betebeharretan jokabide jatorra zeraman hala ere:

"adiskideekin atsegingarri izanik, emaztearekin maitagarri, morroiei barkatzeko gai, botila apurtuaren zoria dela-eta aztoratu gabe.

Senideek ardura harturik, eritasuna, botikez baliatuz, sendatu ziotenean eta bere senera bete-betean etorri, adiskideei era honetan kexatzen zitzaien,

"Pol arren, hil egin nauzue, adiskideok. Gogo-lilura guztiz atsegina indarrez kenduta, plazerrik gabe uzten den laguna, esaten zuen, ez dago ondo zaindurik"145.

Eta arrazoia zuen: liluraturik zeudenak eurek baitziren eta gainera eurek baitzuten hark baino otso-belarraren premia gehiago146, burua galtze hain zoriontsu eta atsegina, edozein gaitz bezala, edabeekin egoztea komeni zela erabakitzearren. Hau guztia esan dudan arren, horrekin ez dut garbi utzi zentzuen edo gogoaren edozein lilurak merezi duenentz sanotasunik ezaren izena ematea. Eta beraz, itsuki batek mando bat asto dela usteko balu, edo baten batek arterik gabeko olerki bat guztiz dotoretzat miretsiko balu, ez genuke besterik gabe uste izango burutik sano ez daudenik. Baina baten batek huts egingo balu ez horrenbeste zentzuekin, baizik eta batez ere adimenaren irizpenetan, eta hau ohi den baino sarriago edo etengabe gertatuko balitz, hori bai hartu beharko genukeela burutik sano ez egotetik hurbilekotzat; adibidez, batek asto bat arrantzaka entzuten duen bakoitzean sinfonigile (*) miragarriak entzuten ari dela uste izango balu, edo jatorri apaleneko gizon gaixo batek bera Lidiako Greso erregea dela sinetsiko147. Baina baldin burutik sano ez egote honek, sarri gertatu ohi den bezala, plazerrerako joera badu, arbuiatzekoa ez den atsegina ematen die hala hori dutenei, nola begira daudenei, nahiz eta azken hauek arrazoi horregatik burutik eginak egon ez.

Sanotasunik ezaren espezie hau gizakiek uste duten baino asko hedatuago dago. Eta sarri askotan sano ez dagoen batek sano ez dagoen beste bat ikusita barre egiten du, elkarri plazerra txandaka emanik. Eta behin baino sarriago ikusiko duzue burutik gehien egina dagoenak purrustada handiagoekin egiten diola barre bera baino gutxiago dagoen bati.

XXXIX

Hala ere, burua era askotara galdu duena zoriontsuagoa da, Eromenaren iritziz, baldin mantentzen bada beti niri dagokidan sanotasunik ez horren barruan; eta, egia esan, mota hau hain hedaturik ageri da non jakin ere ez dakidan hilkor guztien artean aurkitu ahal izango litzatekeen bat bera ere ordu guztietan sano dena, sanotasunik ezetariko batek ere harrapaturik ez duena. Ezberdintasun bakarra honetan datza, hots: batek kui bat ikusi eta emakumea dela uste duenean, hori burutik sano ez dagoela esan ohi da, horrelakoak gutxi gertatzen direlako. Baina batek bere emaztea, beste askorekin banatu arren, Penelope bera atzean uzten duela zin egiten duenean eta, ahal denik eta gehien txalotzen, okerrean zoriontsu den honi ez dio inork burutik egina deitzen, ongi bai ongi dakitelako denek hori senarrei sarri askotan gertatzen zaiela. Zerrenda honetakoak dira, orobat, basapiztien ehizaren aurrean guztia gutxietsi eta ehiza-adarren soinu izugarri hura eta txakurren ahausiak entzuten dituzten bakoitzean gozamen sinestezina ariman sortzen zaiela aldarrikatzen dutenak ere. Uste dut, gainera, txakur-gorotzari usain egiten diotenean zinamonoaren itxura hartzen diotela148. Baina, basapiztia bat zatikatzeak ba al du laketgarririk? Zezenak eta ahariak zatikatzea herri xeheari dagokio, baina basapiztia partitzea, ordea, gehiegikeria bat da, baldin leinargiak egiten ez badu.

Honek, burutsik, belauniko, lan hori egiteko ganibet bereziaz horniturik, ez baitago ongi edozelako batekin egitea, keinu jakin batzuekin eta ordena jakin bati jarrai erlijioski ebakitzen ditu atal jakin batzuek. Bitartean jendeteriak harriduraz beterik begiratzen du bere inguruan isilik jarrita, inoiz ikusi gabeko lan bati so balego bezala, nahiz eta ikuskizun bera mila aldiz baino gehiagotan ikusirik eduki. Gehiago oraindik, baten batek basaberearen zatiren bat dastatzea lortzen duenean, nobleziaren zati handi bat bereganatu duela uste du. Hauek, aldiz, basapiztiak etengabe jazarri eta egunero janik ez dute besterik erdiesten ia basapiztiak izateraino doilortzea baino; baina hala eta guztiz ere eurek pentsatzen dute erregeen pareko bizitza daramatela. Hauen antz izugarria duen beste kasta bat eraikinak egiteko zaletasun aseezinaz irrikan eta biribila karratuan eta karratua biribilean aldatzen etengabe ari direnena da. Ez dute izaten inolako ez mugarik, ez neurririk, bizitzeko tokirik gabe eta jateko ezer gabe gelditu eta peitutasunik handienera iritsi arte. Eta gero zer gertatzen den? Dena dela, bitartean bederen, modurik laketgarrienean iragan dituzte urte batzuk. Hauengandik oso hurreko toki batean daudela uste dut, zientzia ezkutu berri batzuen bidez gauzen izaera aldatzen ahalegindurik kintaesentzia ezkutuaren ehizan itsasoz eta lehorrez ari direnak. Eztia bezain gozoa den itxaropenak hain asko elikatzen ditu, non ez nekeak ez ordaindu beharrak nahigaberik ematen dien; gainera agudezia miresgarriaz beti asmatzen dute euren burua berriz zimardikatu eta irudipen pozgarri bat eskuratzeko zerbait, ondasun guztiak eralki ondoren labeska hornitzeko ezer geratzen ez zaien arte. Hala eta guztiz ere, amets gozoak amestu gabe gelditzerik ez dute nahi izaten eta indarren arabera euren moduko zorionaz gozatzera animatzen dituzte beste guztiak.

Eta azkenez, itxaropen guztiak galduta ere, poztasun handi bat ematen dien esaera bat geratzen zaie,

*Ekintza handietan, nahi izatea bera ere aski da*149.

Eta esaera honetan babesturik, bizitza laburra dela salatzen dute, euren ahaleginaren tamainarako aski ez izatearen errua laburtasun horri botaz. Gure lagunartean dato-jokalariak hartu behar ditugun ala ez neure zalantzak ditut. Baina hala ere, ikuskizun ero eta irrigarria da euretariko batzuk hain zale ikustea non dato-godaletaren hotsa entzuten duten bezain pronto bihotzak jauzi eta taupa egiten dien. Gero, irabazteko itxaropenak beti erakarririk, Malea lurmuturra150 baino asko beldurgarriagoa den jokoaren uhaitzetan untziak jota, ondasun guztiak galdu eta

urgainera ozta-ozta biluzik irtetea lortzen dutenean, mundu guztiari, irabazleari ezik, gezurra esaten ahalegintzen dira, gizon badaezpadakotzat, jakina, hartuak ez izateko. Eta zer esan agure eta erdi itsu direla betaurrekoak jantzita jokatzen jarraitzen dutenean? Eta azkenean, hezueria ongi irabazi batek eskuko junturak elbarritzen dizkienean ordezko bat aurkitzen dute, ordaindurik gainera, datoak godaletean berarentzat jaurtiki ditzan. Hau, nolanahi, arazo leuna izango litzateke joko hau gehienetan haserrean amaituko ez balitz; baina kasu hau niri ez dagokit, Furiei baino.

XL

Bestela, beste gizaki-mota bat ere badago, zalantzarik gabe gure irinekoa dena; gizaki hauek gauza miresgarri eta gezur harrigarriekin gozatzen dute, berdin zaielarik entzutzea zein kontatzea, eta inoiz ere ez dira asetzen ipuin-mota horiekin, baldin iratxo, mamu, defuntuen arima, itzal, infernuko jende eta mota horietako beste milaka gauza miresgarri birgogoratzen bazaizkie, eta egiatik zenbat eta urrutiago aldendu gogorago entzuten duten eta kilikadura zoragarriagoarekin belarriak ferekatzen.

Eta asmaketa hauek ez dituzte, egia esan, hain miresgarriro burutzen orduen unadura biguntzeko soilik, baizik eta diru-iturri gisa ere, batez ere apaizek eta predikariek. Hauen kide dira, hurrengo mota horretako sinesmen ero, baina baita pozkorraz ere jabetu direnak ere, hots: Kristoforo, Polifemo bezain garaia151, zurean landuta zein oholean pintatuta, ikustea lortuz gero, egun horretan ez direla hilko uste dutenak; edo Barbararen eskultura bati ohizko hitzekin agurtuz gero, burrukalditik minik gabe aterako direla, edo norbait Erasmoren aurrean egun jakin batzuetan argizari jakin batzuekin otoitxo jakin batzuk egitera agertuko balitz, laster aberastuko dela. Egia da beste Herkules bat aurkitu dutela Jurgirengan152, beste Hipolito bat153 ere egin duten bezala. Honen zaldia, edergailuz eta estalkiz erlijioski apaindurik egon ohi den arren, ez da horrenbeste gurtua, nahiz eta, hala ere, noizbehinka opari txiki batzuk egiten zaizkion bere laguntza eskuratzeko; baina brontzezko bere buru-babesaren aurrean zin egitea, ordea, benetan hartzen da erregeen gauzatzat. Eta zer esango dut bekatuen gezurrezko ordainarekin kontsolatu eta purgatorioko denbora ur-erlojuekin, inolako akatsik ez duten matematika-taulaz baliatuko balira bezala, mende, urte, hilabete, egun eta orduetan neurtzen ari diren horiei buruz. Edo zer esan iruzurti elizkoiren batek arimen onerako, edo bere sakelaren onerako, asmatu zituen zeinu magikoetan eta sorginkerietan uste osoa jarririk, benetan sinesten dutenak eurei ezer ez zaiela faltako: aberastasunik, ohorerik, plazerrik, ez betekadarik eta gainera beti izango dutela osasun ona, bizi luzea, zahartzaro mardula, eta amaitzeko atseden-tokitxo bat zeruan Kristorengandik hurbil, nahiz eta azken hau, hala ere, ez luketen eskuratu nahi berandu samarrera arte; hau da: bizitzako plazerrek, nahiaren kontra eurek haginekin eusten saiatu arren, uzten dieten arte; orduan bai etor daitezkeela zeruko delizia horiek hemengoen ordez.

Hauen artean sar daitezke, ene aburuz, baita tratalari, militar edo epaile batzuek ere, egin dituzten harrapakeria guztietatik laumaraiko bat kendu izateagatik uste baitute santiamen batean garbi dezaketela bizitzako Lerna guztia154, hau da: horrenbeste zin-hauspen, horrenbeste lizunkeria, horrenbeste hordialdi, horrenbeste liskar, horrenbeste hilketa, horrenbeste iruzur, horrenbeste gaiztakeria eta horrenbeste saldukeria; pentsatzen baitute kontratu baten bidez-edo barkatzen zaizkiela eta barkatu gainera halako eran non bidegabekeria-mundu berri batean oso-osorik sartzeko baimena berreskuratzen duten. Zer dago, bestalde, gauza inozoagorik, baina halaber zoriontsuagorik, salmo deunetako zazpi bertset haiek egunero esanda, zoriontasun nagusia baino zerbait gehiago aginduko zaiela sinestea baino? Esan ohi da bertset magiko horiek Bernardo doneari deabru batek adierazi zizkiola, deabru argia bai baina hala ere trebea baino gehiago buruarina, gaixoa bere segadan erori zelako155. Eta jarrera hain inozo hauek alabaina, ia-ia nerau ere lotsatzerainokoak

hain zuzen, ez ditu, ez, herri xeheak bakarrik onartzen, baizik eta baita erlijioa irakasten dutenek eurek ere. Zer, bada; ez al da ohitura holakoengan lurralde bakoitzak bereziki bere jainkotzat erreibindikatzea baten bat, eta euretariko bakoitzari ahalmen bereziak ematea eta kultu-mota bereziaz gurtzea; halako eran, non batek hagineko minetan laguntzen duen, besteak erturrenak zaintzen, hurrengoak osturiko ondasunak bihurtzen, hark untzigaleretan lagun egiten, honek ganadua zaintzen: eta horrela gainerakoek ere.

Zerrenda guztia egiteak urrutiegi eramango gintuzke. Hauetariko batzuek gauza askotarako balio dute, batez ere jainkoa erditu zuen birjinak, gizateriak honi semearen ahalmen guztiak eta gehiago ematen baitizkio.

XLI

Baina azken batean gizakiek zer eskatzen diete jainko hauei eromenarekin zerikusi duten gauzak baino besterik? Ikus dezagun; jainkotegi batzuen hormak eta sabaia bera ere eskaintzez guztiz estalita egon ohi diren arren, hauteman al duzue inoiz eromenari ihes egin diolako edo pitin bat jakintsuago bihurtu delako eskainiriko baten bat? Bat igeri eginda atera da onez. Beste bat, etsaiak soina alderik aldera zulatu arren, bizirik atera da. Beste batek, gainerakoak gatazkan iharduki ziren bitartean, indartsu bezain zoriontsu egin du ihes. Hurrengoa, gurutzeari josita zegoela, lapurren lagun den santuren baten laguntzaz askatu da, aberastasunez desegokiro birkargaturiko banaka batzuk astuntasunetik askatzera berehala joateko. Hurrengo batek kateak apurtu eta presondegitik alde egin du. Beste hura sukarretik osatu da, bere sendagilea haserre bizian utziz. Beste hari, edan zuen pozoinak sabela garbitu dio, erremedio bihurtuz baina ez heriotzerako, joko honetan lana eta diruak galdu dituen emaztea pozegi geratu ez delarik. Hango hark, gurdia irauli arren zaldiak inolako minik gabe ekarri ahal izan ditu etxera. Hemengo hau eraisketan harrapaturik geratu zen arren bizirik atera zen. Horko horrek, ordea, senarrak ezustean atzemanik, alde egitea lortu zuen. Ikus dezakezuenez batek ere ez du eskerrik ematen eromenetik askatzearren. Hala ere gauza zeharo atsegina da argitasunik ez izaterik, hilkorrentzat Moria ez-ezik gainerako beste guztia ere arbuiagarri baita. Baina zer dela-eta sartuko nintzen ni sineskeria-itsaso honen baitan?

"Ehun mihi, ehun aho eta ahots sendoa edukiko banu ere, ez nintzateke gai izango pellokeria-mota guztiak azaltzeko eta eromenaren izen guztiak aditzera emateko" 156.

Horraxe arte dago mota honetako ameskeriaz beterik kristau guztien bizitza osoa: apaizek eurek ere zailtasun handirik gabe onartzen dutena da; gehiago oraindik, sustatu ere egiten dute ondo baitakite zenbat etekintxo ateratzen duten hortik. Eta orain jakintsu gorrotagarri bat etorriko balitz eta ozenki esango egia hutsa baino ez den gauza bat, hau da: *ez zara gaizki hilko, ongi bizi izan bazara; bekatuz aske geratuko zara, baldin erremusina txiki horri gehitzen badiozu egin dituzun gaiztakeria guztiekiko gorrotoa, eta halaber negarrak, ardurak, otoitzak eta barauak ere, eta bizitzeko izan duzun arrazoia aldatzen baduzu: santuren bat eredu hartuta bere antzera jokatzen saiatzen baldin bazara, lagunduko baitizu, egon ziur.* Gauza hauek eta antzeko beste batzuk, diot, behin eta berriz esanka ariko balitz, kontura zaitez zenbat zorion kenduko lieken bat-batean hilkorren arimei eta nolako nahastea sortuko lukeen. Kolegio berekoak dira ehorzterakoan nahi duten hileta-mota, bizi direla, atontzen dutenak; eta hain interes handiaz prestatzen dute, non xehetasun guztiekin banan-banan agintzen duten zenbat zuzi, zenbat doluzko jantzi, zenbat kantari, zenbat hiletari egotea nahi duten, ikuskizun hau zelanbait behatzen egongo direla pentsatuko balute bezala edo hilotza ospagarritasunez ehortziko ez balitz, behin hilda gero ere, lotsatzeko beldurra izango balute bezala; hauen ardura, edilak izanez gero157 jolasak eta bazkariak prestatzen erabiliko zutenaren hainbestekoa bada.

XLII

Presa pixka bat dudan arren, ezin dut aurrera egin aipatu gabe, beherengo alokazera baino gehiago izan ez arren, noblezia-titulu huts batek ez sinesteko moduan liluratzen dituenak. Batek Eneasenganaino eramaten du bere jatorria158, besteak Brutusenganaino159 eta hurrengo hark Arkturusenganaino160. Alde guztietan ibili ohi dira asaben eskulturak eta oholetan pintaturiko irudiak erakusten. Berraiton-amonak eta herenaiton-amonak zerrendatzen dituzte eta antzinako deiturak gogora ekartzen, nahiz eta eurek ere gizairudi mutu horiengandik ezberdintasun handirik izan ez, harro erakusten dituzten asaben irudiak baino egoera txarragoan daudelako. Eta hala ere, bizitza zoriontsu bat daramate Philautia-Buruestima hain atsegingarrriaren laguntzarekin. Eta ez dira falta, ez, abere-mota hori jainkotzat miresten duten eroen parekoak ere. Baina zergatik hitz egin eromen-mota batari edo besteari buruz, Philautia-Buruestima horrek hainbat eta hainbat, toki eta une guztietan, modu miresgarrietan oso zoriontsu egingo ez balitu bezala. Hura, adibidez, tximinoa baino itsusiagoa izanik ere, bere burua Nireustzat zeukana?161. Beste batek, konpas batekin hiru lerro ondo egitea lortu duelako, besterik gabe Euklides dela uste du; halako hark, liradun astoak, oiloari mokoka darraionean senar oilarrak baino soinu txarragoa atera arren, hala ere uste du bigarren Hermogenes bat dela162. Baina badago, zoriontsuena askogatik den sanotasunik ezaren beste mota bat ere; honen eraginez batzuk, norberarenean nornahik agertzen duen edozein dohain dela-eta, berea bailitzan, harrotzen baitira.

Hauetarikoa zen Senekak aipatzen duen aberats zoriontsu baino zoriontsuago hura163; aberats honek istorioren bat kontatzea nahi zuenean, jopuak jartzen zituen bere ondoan hitz egokiak iradokitzeko eta ez zuen zalantzarik egingo, ezta bere aldeko burruka batean burrukalari gisa parte hartzera jopuak behartzeko ere, zeren gizon hain kikila baitzen, non bizitzen ausartzen baldin bazen, etxean zituen jopu oso indartsuetan sinesten zuelako zen. Bestalde, arteetara dedikatzen direnei buruz zer esan daiteke? Philautia-Buruestima denean hauen guztien bereizgarria; hauen artean arinago aurkituko duzu gurasoen lursail bati uko lehenago egiten diona buruargi agertzeari baino, batez ere antzezle, abeslari, predikari edo poeten artean, bat zenbat eta ezikasiago izan ausartkeria gehiagoz pozten baita bere buruaz, gehiago goraltzen eta harrotzen. Hauek, bestalde, euren neurriko jendea aurkitzen dute, eta gainera bakoitza ezgauzago izatearen arabera topatzen ditu miresle hainbat gehiago ere; zeren gauza txarrenek ere baitakite sortzen jendearengan begikotasunik, gizakirik gehienak, esan dugun bezala, Eromenari loturik daudelako. Beraz, moldagabeena baldin bada bere buruarekin pozen dagoena eta gehienen miresmena sortzen duena, zein arrazoi dago, hortaz, gurago izateko egiazko jakituria, hasteko asko kostatzen denean, gero jakintsua lotsor eta beldurti bihurtzen duenean eta azkenez, atsegin ere jende asko gutxiagori egiten zaionean?

XLIII

Gainera egia dela uste dut, orobat, naturak hilkor bakoitzari Philautia-Buruestima bat eman dion modu berean, aberri bakoitzari ere berea eman diola eta halaber hiriei eurei ere; hortik dator, britainiarrek batez ere formen edertasuna, musika eta ongi hornituriko mahaiak erreibindikatzea beren gauzatzat.

Eskoziarrak noblezia-tituluekin eta errege-leinuekiko ahaikoekin pozten dira eta orobat dialektika-kakomakoekin ere. Frantziarrei harremanetako jendetasuna zaie gustuko; paristarrak, ia beste antsia guztiak alde batera utzita, teologiako zientziaren bikaintasunaz jabetzen dira; italiarrek letra ederrak eta hitz-antzea hartzen dituzte euren gauzatzat, titulu horrekin guztiak ezin gehiago alaitzen direlarik, barbaro ez diren hilkor bakartzat beren buruak baitituzte; eta zoriontasun-mota horretan erromatarrak lehenengo postuetan agertzen dira, antzinako Erroma hari buruz poztasun izugarriaz hainbat amets egiteraino; beneziarrak zoriontsu dira noble-fama izanez gero. Greziarrek, kultura-

aurrerapenen sortzaile direnez, antzinako heroi ospetsuen tituluak erreibindikatzen dituzte; turkiarrek eta barbaroen benetako anabasa zantar horrek guztiak erlijiotasunaren laudorioa eskatzen dute berentzat eta beraz, barre egiten diete kristauei, sinesbera direlako. Juduak, aldiz, asko ere lasaiago, baina oraindik etsi gabe ari dira Mesiaren esperoan eta euren Moisesen gomuta temati mantentzen dute gaurregun ere. Hispaniarrek guda-ospea inori ez diote aintzatesten; alemaniarrak pozik sentitzen dira gorputzaren luzerarekin eta magiari buruzko ezagutzekin.

XLIV

Banan-banan segituko ez dugun arren, uste dut ikusiko duzuela zenbat plazer ematen dien hilkorrei alde guztietatik, bakarka zein taldeka, Philautia-Buruestimak; eta ia-ia bere modukoa da bere arreba Lausengua ere. Philautia-Buruestima, egia esan, ez da besterik norbaitek bere burua losintxatzea baino. Baina losintxa hori beste bati zuzentzen zaionean, orduan Lausengua deritzo. Gaur lausengua gauza dongetzat dago; baina hori gauzekin baino gauzen hitzekin hunkitzen direnen artean ematen da.

Uste dute lausengua gaizki lotzen dela fideltasunarekin; baina beste iritzi bat izango lukete baldin adimengabeko animalien adibideekin argituko banie. Zer dago, bada, txakurra baino lausengariagorik? Eta hori gorabehera, zein bera baino fidelago? Zer dago urtxintxa baino koipatsuagorik? Baina, hala ere, ba al dago bera baino gizakiaren lagun handiagorik? Ez badugu uste, nonbaition, lehoi latza, tigre garratza eta lehoinabar suminkorra gizakien bizimoldera gehiago hurreratzen direnik. Dena dela, badago, egon, oso kaltegarri den lausengu-mota bat, zital eta isekari batzuk beraz baliatuz sineskorrak hondamendira eramaten dituena. Hau hala izanda ere, nik diodan lausengu hau izakeraren bihozberatasunetik eta xalotasun moduko batetik dator eta bertutetik asko ere hurbilago dago bere aurkari den laztasuna baino, eta Horaziok dioenari jarrai164, mukerkeria tzarrapatan eta astuna baino. Nire lausengu honek animorik makalenak jasotzen ditu, gogoilunak adoretzen, lur joei bihotz ematen, papaoei begiak zabaltzen, gaixotiak suspertzen, suminkorrak biguntzen, maiteak elkartzen ditu eta elkarturik mantentzen. Haurrak letrak ikastera bultzatzen ditu, zaharrak alaitzen, printzeei oharpenak eta irakaspenak ematen dizkie laudorio-itxuraz, mindurik senti ez daitezen. Azken finean norbere buruaren aurrean begikoago eta estimagarriago sentitzea egiten du eta hau zoriontasunerako funtsezko gauza bat da. Bestalde, ba al dago bi mandok elkarri hatz egitea baino gauza atseginkorragorik? Eta bitartean ez dut esango lausenguak zati handi bat izan ohi duela hitz-antzeko laudorioetan, medikuntzakoetan handiagoa oraindik eta poesiakoetan handiena; hauxe da, izan ere, giza harreman guztietako eztia eta gozagarria.

XLV

Tronpatzea, ezbehar bat dela esango didate; ez tronpatzea, aldiz, ezbehar izugarria da niretzat. Giza zoriontasuna gauzetan euretan dagoela uste dutenak guztiz desbideraturik ari dira. Gauzei buruzko iritziaren mende dagoelako. Giza arazoetan dagoen iluntasuna eta barietatea, izan ere, hain da handia non ezin den ezer jakin argi eta garden, nire akademikoek, filosofoen artean gutxien handiputzenek azertu handiz esan zuten bezala. Edo, zerbait jakin ahal bada ere, ez da arraro jakin ahal den hori bizitzeko poztasunaren kontrakoa izatea. Giza izpiritua, azken finean, halako eran dago egina, non itxurek egiak baino asko gehiago erakartzen duten. Honi buruzko froga argi eta nabaria nahi duenak joan bedi jainkotegi eta hitzaldietara; hauetan zerbait serioa kontatzen ari baldin badira, mundu guztia egongo da lotan, aharrausika eta nazkatuta. Baina oihularia (barka, jaun-andreok, erratu egin bainaiz, hizlaria esan nahi nuen) atsoen konturen batekin hasten denean, sarri gertatu ohi dena, guztiak itzartzen dira, adi-adi jartzen eta aho zabalik geratzen. Modu berean, jainko fantasiatsu eta poetikoa baldin bada, eta adibideak eskatzen badizkidazue, pentsa ezazue Jurgirengan edo Kristofororengan edo

Barbararengan, ikusiko duzue hauek Kepa eta Paulo, eta Kristo bera, baino erlijiotasun gehiagoz gurtzen direla. Baina gogoeta hauek ez dira hemengoak. Dena dela, zein gutxi kostatzen da zoriontasun hau lortzen!

Gauzez jabetzeko, batzuetan ahalegin handia egin behar izaten da, nahiz eta oso arinak izan, adibidez gramatika bera. Iritzi bat, aldiz, oso erraz onartzen da. Baina berdintsu, edo agian hobeto, eramaten du zoriontasunera. Begira, norbaitek jango balitu gaziki hain ustelduak non bere hatsa beste inork ere jasan ezin duen, baina beretzat, hala ere, anbrosia baino zapore hobea balute, nire galdera da, zoriontasunerako zer ardura du horrek?

Eta alderantziz, arrain freskoak bati okada ematen badio, honek zer ematen dio bizitzako zorionari? Gizon batek emazte guztiz itsusia eduki arren, senarrari, hala ere, Venusekin berarekin lehian egiteko modukoa baderitzo, ez al litzateke senarrarentzat izango benetan ederra izatea bezala? Norbaitek gorriz eta horiz eta gainera gaizki pintaturiko ohol bat behatuko balu eta txunditurik geratu usterik Apelles edo Zeuxisen pintura dela165 ez al litzateke zoriontsuago izango, egile berdinen pintura original bat prezio handia ordainduta erosi eta gainera behatzean agian haren beste plazer hartuko ez balu? Ezagutu nuen behin neure izen bereko bat166, bitxi faltsutu batzuk bere emazte gazteari oparitu zizkiona, eta adarjole trebea zenez, sinestarazi zion ez bakarrik benetakoak eta naturalak zirela, baizik eta baita balio berezi eta zenbatezinekoak ere. Eta nik galdetzen dut: horrek zer ardura zion neskari, baldin, purtxileria hura etxean ongi zaindurik gordetzen bazuen eta bitartean, begiei eta izpirituari beira haiekin ematen bazien gozamena, altxor ospetsu bat gordeta duen baten poztasun berdinarekin gainera? Senarrak, bere aldetik, gastu handi bat aurreztu zuen, bere emazteari sarturiko ziriaz gozatzen zuen eta balio handiko oparia eginda baino men gutxiagorik ez zuen hartzen. Nolako ezberdintasuna uste duzue egongo dela beste hauen artean: Platonen haitzuloaren barrenetik167 gauza ezberdinen itzalak eta itxurak ikusi eta ezer gehiagorik nahi ez eta benetan asebeterik sentitzen direnak alde batetik, eta bestalde haitzulotik irtenik benetakoak behatzen dituen jakintsua? Luzianoren Mizilo168 bere urrezko ametsetan benetan aberats sentitu izan balitz sekulorun sekulotan, ez zuen izango beste zoriontasun-motarik desiratzeko zergatirik.

Hortaz, jakintsuen eta inozoen artean edo ez dago ezberdintasunik, edo badago ere inozoen egoera hobea da. Lehenengo eta behin hauei zoriona oso gutxi kostatzen zaielako, sinesten uztea baino ez, alajaina. Eta bigarren, zoriontasun hori gehiengoarekin batera gozatzen dutelako.

XLVI

Bestalde, ez da gogo-asegarria ondasun bat edukitzea, horren berri beste inork izan gabe. Eta nork ez daki zein handia den jakintsuen urritasuna, baldin inor aurki badaiteke? Greziarrek, hainbat mendetan zehar, zazpi baino ez dituzte kontatzen eta hauen artean ere norbaitek zorroztasun gehiagoz aztertu eta jakintsu erdi bat aurkituko balu, ene Herkules desagertuko nintzatekeela; gehiago oraindik, gizon jakintsuaren heren bat aurkituko balu ere, berdin. Bakori egiten zaizkion laudorio guztien artean, nagusientzat hartzen dena, eta dena, arimako ardurak kentzen dituela da, nahiz eta une labur batean bakarrik lortu, zeren sastarra aldentzen hasten denerako, esan ohi den bezala, arimako minak berriz agertzen baitira koadriga zuri batek lauhazka ekarrita bezala. Nik emandako dohainak, ordea, asko ere osoago eta eraginkorrago dira, gozamen, delizia eta dantzekin gogoa etengabeko horditasun antzeko batez gainezka jartzen baitut laguna, eta guztia negoziorik egin gabe? Eta ez dut onartzen nire opariaren partaide izan gabe hilkor bat bera ere geratzerik, jainkoen gainerako dohainak, batzuk batzuengana, iristen badira ere. Edonon ez da egiten, ez, ardurak uxatu eta itxaropen emankorra dakarren ardangozo bigun eta handi hau. Edertasunaren mesedea, Venusen opari hori, gutxiri ematen zaio; gutxiagori hitz-antzea, Merkurioren dohaina169.

Ez dira asko, Herkules alde izan dutela-eta aberastasunak eskuratu dituztenak. Homeroren Jupiterrek ere ez dio edonori ematen boterea. Sarri askotan gertatzen da Mavors ez dela

agertzen erabakiorki armada baten ere alde. Asko eta asko dira Apoloren hiruroinekotik tristerik aldentzen direnak170. Saturnok sarriegi jaurtikitzen ditu oinaztarriak; Febok inoiz izurria zabaltzen du bere azkonekin171. Neptunok, zaintzen dituenak baino gehiago uzten ditu gal ditzan. Eta ez ditzagun aipatu ere egin Vejoveak172, Plutonak, Atak173, Penak, Sukarrak174 eta antzeko beste batzuk, jainkoak baino gehiago borreroak baitirudite. Ni, Eromena, aldiz, neu naiz bakarra guztiak berdin hartzen ditudana, neure eskuzabaltasun gertuarekin.

XLVII

Nik ez ditut zin-hitzak gogoan hartzen, ez naiz, ezta, haserretzen ere, edo ordaintzerik eskatzen, niri egin beharreko zeremoniaren bat baten bati ahantzi egin zaiola-eta. Nik ez ditut hankaz gora jartzen zeruak eta lurrak, baten batek, beste jainko guztiak gonbidatu eta ni etxean laga nauelako biktima erreen usain gozoa hartzera deitu gabe. Ze, gainerako jainkoek xehetasun hauetan izan ohi duten aditasuna hain da handia, non gehiago balio duen eta ziurrago den jaramonik ez egitea, kontutan hartzea baino. Hauek, irain egiteraino sumintzen diren gizaki zail banaka horien antzekoak dira eta hobe da norberarengandik pixka bat urrunduta mantentzea, etxeko izatea baino. Baina Eromenari inork ez dio eskaintzarik egiten, ez etxerik eraikitzen, esango didazue. Bada, lehenago esan dudan bezala, eskertxar horrek harritu egiten nau pixka bat, egia esan. Baina, bestalde, hauxe berau ere neure zabaltasuna kontutan izanda, ona dela uste dut: egia esan, eskerron horixe ere ezin dudalako espero.

Nola eskatuko dut intsentsu pitin bat edo opil bat, edo aker bat edo zerri bat, teologoek eurek ere onentzat duten bihotzeko gurtzapen hori aberri guztietako hilkor guztiek ematen didatenean? Azkenean, behar bada, Dianaren zeloak izan beharko ditut hari eskaintzak giza odolarekin egiten dizkiotelako175. Baina nik, ostera, uste dut ni modu guztiz erlijiosoan ohoratzen nautela, denek eta gainera toki guztietan gogoan eramaten nautelako, euren ohituren bidez neu orori adierazten eta bizitzan imitatzen nautelako. Jainkoak gurtzeko modu hau, kristauen euren artean ere ez da sarri ematen. Ze, zenbatek eta zenbatek ez diote eskaintzen Jainkoaren Ama den Birjinari kandelatxo bat, eta eguerdian gainera, inolako premiarik ez duenean? Eta zein gutxi, ordea, saiatzen da bera imitatzen bere bizitza puruan, bere apaltasunean eta zeruko gauzak maitatzean? Eta, azken finean, hauxe da izan, zerutarrek benetan, eta askogatik gainera, nahi duten gurtzapena. Bestalde, nik zergatik nahiko dut etxe bat, mundu osoa denean neure etxea eta asko erratzen ez banaiz ederrena? Eta jarraitzailerik ere ez zait falta, gizakiak dauden tokietan bederen. Oraindik ez nago hain ero, harrian landu eta kolorez tindaturiko irudiak nahi izateraino; irudiak, gainera, batzuetan geure gurtzapenaren kalterako izan ohi dira, zeren pellokirten hauek, astakilo hutsak direnez, jainkoen ordez irudiak gurtzen baitituzte. Eta bitartean geuri ere usaeraren ondorioz etor dakiguke ordezkoek lekua kentzen dietenei gertatzen zaiena. Baina beste alde batetik uste dut hilkorren kopurua bezainbat irudi ditudala nire ohorean eraikita, hilkorrek, gura ez-eta ere, nire irudi bizia eramaten dutelako berengan.

Beraz, nik ez dut zertan gainerako jainkoen ondamurik izan, hauetariko batzuk lurbazter batzuetan eta egun jakin batzuetan ondratzen dituztelako, hala nola, Febo Rodasen, Venus Txipren, Juno Argosen, Minerva Atenasen, Jupiter Olynpon, Neptuno Tarenton eta Priapo Lanpsakon, niri mundu osoak elkarturik eskaintza baliotsuagoak etengabe opatzen dizkidalako.

XLVIII

Baina esaten ari naizen honi baten batek egia baino gehiago ausartzia baderitzo, bada azter dezagun pixka bat gizakien bizitza bera, argi gera dadin zenbat zor didaten eta nolako estiman naukaten berdin handiek zein txikiek. Hala ere, ez dugu arakatuko jende guztiaren bizitza, hori, argi dagoenez, luzeegia litzatekeelako, baizik entzutetsuenena

baino ez, horiek abiapuntutzat harturik errazago egingo zaigulako gainerakoak estimatzea. Zertarako balioko luke, alajainkoa, jende xehe eta herri xumearen bizitza aipatzeak horiek neuri baitagozkit oso-osorik, inolako zalantzarik gabe? Hauek, eromen-moten naharotasun hain ikaragarria jartzen dute agerian eta egunero hainbat era berri asmatzen, non mila Demokrito ere nahiko izango ez liratekeen horiei guztiei barre egiteko eta Demokrito horiei barre egiteko, oraindik beste Demokrito berri bat beharko genuke176. Gehiago, hitzez esanda sinesgaitza gertatzen da zenbat barre, zenbat txantxa eta zenbat jolas eragiten dizkien gizakitxoek goikoei. Ze hauek, eguerdi aurreko janedan urriko orduak, burubide iskanbilatsuetan zin-hitzak aditzen iragaten dituzte. Baina behin nektarez bete-bete egiten direnean eta patxadazko ezer egiteko gai ez direnean, orduan zeruaren gailur-gailurrenean elkarrekin jezartzen dira eta aurpegiak aurrera begira jarrita gizakiak zertan saiatzen diren behatzen dute. Haientzat ez dago ikuskizun ederragorik. Ene jainko hilezkorra!, nolako antzerkia den eta zein aberatsa eroen zalaparta hori? Nerau ere, haraxe joaten naiz hainbat aldiz poeten jainkoen iladatan esertzera.

Bat, emakumetxo bat dela-eta maitasunez hiltzear agertzen da eta honek zenbat eta maitasun gutxiago erakutsi, hark hainbat eta etsipen gehiagoz maitatzen du. Beste batek ezkonsaria hartzen du, baina emaztea ez. Hark bere emaztea emagaldu bihurtzen du. Beste hura, jeloskor, adi-adi dago Argosen pare. Honek, ordea, bere doluan, oi nolako lerdakeriak esan eta egiten dituen! Uste ere istorio negargarri bat antzezten dutenen moduan jostatzen ari direla. Hura negarrez ari da bere amordearen hilobian. Honek, lortzen duen guztia batek daki nondik, sabelari ematen dio oso-osorik, nahiz eta handik gutxira goseak hilik egon behar. Beste honek, ordea, uste du ez dagoela ezer atseginagorik lo egin eta lanik gabe egotea baino. Badaude inoren arazoen ardura etengabe eta zalapartaka hartu eta eurenak, aldiz, zeharo ahanzten dituztenak. Badago, baita, hartutako krediduz inoren diruarekin aberatsa dela uste duena ere, nahiz eta hemendik gutxira guztiak agortuak izango dituen. Hark, ostera, ez du ezer zoriontsuagorik aurkitu bera txiro bizi baina bere oinordea aberats egitea baino. Hau, sos gutxi batzuk eskuratzeko, eta gainera horixe ere ziur ez, munduko diru guztiarekin ere berregin ezin den bizia olatuen eta haizeen esku utzita ari da itsaso guztietatik zehar. Horrek, ordea, nahiago du aberastasunak gerran bilatu, etxean bizitza baketsu eta lasaia izatea baino. Badaude uste dutenak aberastasunera iristeko biderik erosoena seme-alabarik gabeko adintsuak irabaztea dela. Eta ez dira falta hori baino nahiago dutenak gauza bera lortu baina zorioneko atsotxo edukitsu bati maitasun sakona erakutsita. Baina hauetariko batzuek zein besteek, azkenerako biek ematen diete atsegin berezia begira dauden jainkoei, inor atzipetu ordez espero zuten bezala, hauek arterioz ziria sartzen dietenean. Kastarik eroen eta okerrena, dudarik gabe, tratalariena da; bestalde, egia esan, ez zitekeen besterik espero guztien artean iharduerarik zikoitzena eta baliabide makurrenekin burutzen dutenetatik, zeren, gezurrak esaten, zin-hausten, osten, iruzur egiten eta derrigortzen etengabe ari diren arren, hala eta guztiz ere denen gainetik daudela uste baitute, atzamarrak urrez inguraturik izatearren.

Eta inguru horretan ez dira falta fraidetxo lausengariak ere, tratalariak miretsi eta jendaurrean *beneragarri* deitzen dietenak; eta harritzekoa ere ez da, zeren gaizki eskuraturiko ondasun haien zatitxoren bat euren eskuetaraino joatea-edo espero baitute. Han beste aldean, pitagoriko batzuk ikus daitezke; hauek gauza guztiak denonak direla uste dute antza, baina inoiz gutxi zainduriko tokiren batean zerbait aurkitzen badute, jaraunsletzaz dagokien ondarea balitz jasotzen dute, gogo berarekin. Hango haiek, ostera, nahietan baino ez dira aberats; amets ederrak asmatzen dituzte eta uste dute zorionerako ez dela besterik behar. Honako hauek etxetik kanpo aberastzat edukitzeaz pozten dira, nahiz eta etxean goseak hilik bizi. Hemengo honek duen dena barra-barra gastatzeko presa hartzen du eta horrek, ordea, onean eta txarrean metatzen ditu ondasunak. Horko horrek, hautagai baten antzera eskatzen ditu herri-ohoreak, hura,

berriz, sukaldean beheko suaren ondoan egoten da zoriontsu. Talde handi batek auzi amaiezinak tartejartzen dituzte eta bi alderdiak burrukatzen dira zein hobe, luzamenduzale den epailea eta auzikidearekin elkar harturiko abokatua aberasteko. Hango hura, gauza berrien bila ari da eta bere ondoko hori zerbait handia mamurtzen. Horiek Jerusalem, Erroma edo Santiagora doaz seme-alabak etxean emaztearekin lagata, han zereginik ez duten arren. Hitz batez, ikusi ahal izango bazenitu ilargiaren gainetik, sasoi batean Menipok egin zuen antzera177, hilkorren zalapartak, pentsatuko zenuke euli edo eltxo mordo handi bat ikusten zeundela elkarren artean burrukan, gerran, iruzur egiten, osten, jolasean, txantxan, jaiotzen, erortzen, hiltzen, ... ari direnak. Izan ere, ez da erraz sinesten animaliatxo kakanarro eta behingoan hil beharreko horrek nolako mugidak eta nolako tragediak ipintzen dituen martxan. Sarritan aski izaten da garrantzirik gabeko gerra baten zein izurri baten ekaitza milaka eta milaka berahala eraman eta desagertarazteko.

XLIX

Baina neu ere benetan eroa izango nintzateke eta Demokritok berak purrustada izugarriekin neuri barre egitea mereziko nuke178, baldin herritarrek dituzten eromen eta zorakeria-motak amaitu arte zerrendatzen jarraituko banu. Horregatik, bada, hilkorren artean jakintsu-itxura dutenetara eta, esaten dutenez, urrezko adarraren bila doazenetara mugatuko naiz; eta hauen artean, gramatikoak agertzen dira lehenengo iladan; inor izatekotan, gizaki-kasta hauxe izango litzatekeelako beste ezer baino atsekabetuago, nahigabetuago eta jainkoentzat aspergarriago, baldin lanbide deitoragarri horren eragozpenak neuk leunduko ez banitu sanotasunik ezaren mota ezti batekin. Hauek ez daude, ez jaun-andreok, greziarren epigramak dioen bezala179 pevnte katavrai", hau da: bost madarikazio gaiztoen menpe bakarrik, seiehunen menpe baino, zeren euren ikastetxe haietan, edo ikastetxe baino txarrago diren Pentsatzeko tokiak 180 edo hobe oraindik katigulaneko tokietan zein torturategietan, beti gosekil adina trauskil ageri zaizkigu, haur-taldeen artean sartuta, zahartuz baitoaz ahaleginen eraginez, gortuz txilioen ondorioz eta ahituz kirats eta zikinkeria artean; baina neure laguntzari esker, uste dute eurek direla hilkorren arteko lehenak. Horraxeino gozatzen dute umeteria ikaratia aurpegi ilun eta ahots mehatxagarriaz izutzen; edo masailekoak, makilakadak eta hedekadak emanda jo eta apurtu egiten dituztenean, edo Kumasko astoaren antzera amorraturik, basakerietan gustura aritzen direnean ahal duten era guztiez baliatuz.

Bitartean inguruko zikinkeriari lohirik txikienik gabeko txukuntasuna deritzote, kirastasunari mendaro usaina hartzen diote eta morrontza deitoragarri hura erregetza dela uste dute, baina hain uste ziurraz non ez luketen aldatu nahi euren tirania ezta Falaris edo Dionisioren botereagatik beragatik ere181. Eta oraindik asko ere zoriontsuago izan ohi dira, irakasteko modu berri bat aurkitu dutela uste dutenean. Haurrei buruan pitxokeria hutsak sartzen ari izan arren, hala ere, ene jainko onok!, nola gutxietsi ez Palemon ez Donato182, euren buruak baino lehenago? Ez dakidana da nolako hitz-motaz baliatzen diren hain ederki lortzeko ama mamala eta aita papao haien artean, eurek agertu nahi diren modu berberean azaltzea. Baina honi oraindik beste plazer-mota bat ere gehitu behar zaio, Ankisen amaren izena183 edo jendeak ezagutzen ez duen hitzen bat, esaterako *bubsequa-itaurreko, bovinator-aldrebesle edo manticulator-zakuto-hausle* papiro zaharren artean euretarikoren batek aurkitzen duenean izaten dutena; edo letrak mozturik dituen antzinako harri zaharren bat lurpetik nonedonon ateratzen badute, ene Jupiter, nolako poz-saltoak ematen dituzten orduan, nolako garaipen-irrintziak, nolako gorespenak, gehiagorik ia-ia Afrika irabazita edo Babilonia hartuta ere ez, nonbaition. Eta euren bertset hotz-hotz eta gatzik gabeak mundu guztiari erakutsi-eta miresteko jendea dutenean, zer orduan?; orduan bai, bene-benetan sinesten dutela Virgilio Maronen arima bere bularrera aldatu dela. Eta ez dute izaten beste ezer atseginagorik eurek euretara, ordain bereko ohiturari jarraiki, elkar

goratzen eta miratzen eta txandaka elkarri hatz egiten aritzea baino. Baina baten batek, ustekabe, hitzarren batean huts egiten badu eta adi dagoen beste batek harrapatzeko zortea izan, Ene Herakles, oi nolako tragediak, nolako liskarrak, nolako garrasiak eta nolako erretolikak ateratzen dituzten berehala! Haserre benetan eduki ditzadan gramatiko guztiak, gezurrik txikiena esan badut.

Ezagutzen dut gizaki bat, helenista, latinista, matematiko, filosofo eta sendagile bezala oso aditua, Hauetan guztietan jaun eta jabe eta jadanik hirurogei urtetik gorakoa dena; beste gauza guztiak duela hogei urtetik bertan behera utzirik dituen arren, gramatika-gaiekin, ordea, penatzen eta oinazeztatzen ari da oraindik, usterik benetan zoriontsu izango dela baldin perpausaren zortzi zatiak nola banatu behar diren, orain arte ez greziarren ez latindarren arteko inor berme osoz zehaztu ezin izan duen gauza, ziurtasunez jakiteko beste denbora bizi bada. Ondorioz, ia-ia gerrarekin berarekin zigortzeko gauzatzat du adberbioen kategoriako esamolde bat juntagailutzat hartzea. Eta horretara, gramatiko beste gramatika dagoenez eta gehiago ere bai, ene Aldusek184, berak bakarrik bost gramatika baino gehiago argitaratu dituelako, gure lagunak ez du bat ere uzten ondo aztertu eta ikasi gabe, guztiz gaizki eta nahasi idatzita egon arren ere;

arlo honetan zerbait prestatzen ari den inor ez da susmo txarrik bereganatu gabe gelditzen arloan egon daitekeen ezjakinena izanda ere, izugarrizko beldurra duelako norbaitek aurrea hartu eta gloria hori kenduko ote dion, hainbat eta hainbat urtetako ahaleginak ezerezean geraturik. Zer duzue nahiago: honi sanotasunik eza deitzea ala eromena? Niri, egia esan, berdintsu zait, baldin beste inor baino asko urrikalgarriagoa den animalia honek gozatzen duen zorion-maila neroni zor zaidala onartzen baduzue, bere zortea Persiako erregeenarekin ere aldatzea ere onartzen ez duenean.

L

Poetek, aldiz, gutxiago didate zor, nahiz eta hauek ere neure taldekoak diren printzipioz; askatasun handiko jendea dira, esaera zaharrak dioen bezala, eta ez dute beste ardurarik inozoen belarriak losintxatzea baino, eta hori ere ezteuskeria hutsekin eta istorio irrigarriekin. Gauza horiek kontutan izanik, bada, esateko ere harrigarri da nola eskaintzen dieten euren buruei hilezkortasuna eta jainkoen pareko bizitza eta nola agintzen dieten gainerakoei gauza bera. Talde honetan, etxe-etxeko dira Buruestima eta Lausengua, gainerakoetan baino asko gehiago, eta xalotasun eta iraupen gehiagorekin ez nau neu ere ohoratzen beste gizaki-mota batek ere. Hauen ostean erretorikoak daude; erretorikoak, egia esan, gugandik pixka polit bat aldentzen dira eta filosofoengana hurbiltzen; baina hala eta guztiz ere gutarrak dira, eta hau batez ere adierazten digu beste bitxikeria askoren artean txantxetako arazoari buruz hain ugari eta hain zaindurik idazteak. Honela, erretorikari buruzko azterlana Herenniori egin zionak185, berdin da nork, eromena aipatzen du txantxa-moten artean; eta erretorikoen artean askogatik handiena den Kintilianorengan, ostera, Iliada bera baino luzeagoa den barreari buruzko atal oso bat dago186; hain balio handia ematen diote eromenari, non sarri askotan inongo argumentuekin ere desegin ezin denari barrearekin ihes egiten zaion. Nonbaition, baten batek ez badu uste behintzat Eromenari ez dagokiola txispadun eta dotore esandako esaldiekin barre-purrustadak eragitea.

Irinzaku berekoak dira, orobat, liburuak argitaratuta betiko ospea irabazi nahi dutenak ere. Horiek guztiek, egia esan, asko didate zor, baina batez ere niri zor didate euren argitarapenetan kirtenkeria hutsak esaten dituztenak. Doktore gutxi batzuek iritzia emateko moduan erudizioz beterik idazten duten horiek eta, gainera, epailetzat Persio eta Lelio eurak ere187 ezesten ez dituztenak, ordea, zoriontsu baino gehiago urrikalgarritzat ditut, etengabe ari direlako euren buruak torturatzen: gehitu, aldatu, kendu, berriz ipini, berrukitu, argitu, bederatzigarren urteraino giltzapean gorde eta, hala ere, ez dira inoiz gustura gelditzen; laudorioa bezain sari txikia eskuratzeko, eta hau ere oso gutxirengandik, horrenbeste ardura hartu behar, horrenbeste lo galdu, loa izanik gauza guztien artean gozoena, horrenbeste izerdirekin eta horrenbeste nekerekin. Baina gehi diezaiogun honi osasuna galtzea, itxura ederra hondatzea, begiko minak izan eta, orobat, itsu gelditzea, txirotasuna, bekaizkeria jasan beharra, plazer-uztea, sasoiaurreko zahartzaroa, heriotze goiztarra eta dauden antzeko beste gauza guztiak. Jakintsu horrek benetan uste al du kalte horien guztien ordaina hartuko duela, pisterre banakaren baten onespena merezi izan duela-eta. Nire zalea den idazleak, aldiz, hori baino zoriontasun handiagoaz esaten ditu tentelkeriak, inolako lukubraziorik egin gabe, gogoak ikusten dituen modu-moduan eta lumara datorzkion erara; honek bere ametsak eurak ere atoan jartzen ditu idatzita paper pixka baten gastua besterik gabe; ongi bai ongi dakielako idazten dituen huskeriak zenbat eta hutsagoak hainbat eta onespen hobea izango dutela gehiengoaren aldetik, hau da: ero eta ezjakin guztiengandik. Zer ardura du gure arazorako, hortaz, hiru lagun eskolatuk, irakurtzen baldin badute, gaitzestea?

Edo zertarako balioko luke jakintsu gutxi batzuen aldeko epaiak, kontra oihukatzen ari direnen jendeteria hain handiaren aurrean? Dena dela, asko gehiago dakite inorenak norbereak bezala argitaratu eta beste batzuek ahalegin izugarriaz lorturiko gloria, hitzen bidez, eurenganatzen dutenek; uste baitute, itxura denez, nahiz eta behin eta berriz

plagio dela frogatu, maileguari irabazia aterako diotela denbora batean bederen. Merezi du behatzea nolako plazerra izaten duten jendeak goraltzen dituenean, herrikoren batek atzamarraz seinalatu eta hauxe da gizon paregabe hura esaten duenean; euren lanak liburudendetan toki berezi bat izaten dutenean eta orrialde guztien buruan hiru izen irakurtzen direnean, batez ere atzerritarrak badira eta magiko itxura badute. Baina, jainko hilezkorraren amodioarren, horiek zer dira besterik izenak baino? Bestalde, kontutan hartuz gero munduak duen hedadura, oso gutxik ezagutuko dituzte; eta oraindik gutxiagok goralduko kontutan izanik zein ezberdinak diren ezjakinen gustuak. Eta zer esan izenak asmatuak edo antzinako autoreengandik harturikoak direnean? Bati Telemako zaio atsegin, beste bati Stelenus188 edo Laerte189; honi Polykrates190, hari, Trasimako191; gaurregun, bada, liburu bati kamalehoia zein kui izentzat jartzeak ez du ezer berririk adierazten edo filosofoek hitz egiteko ohiturari jarraiki, alpha zein beta deitzeak. Baina, hala eta guztiz ere, barregarriena, eskutitzak, olerkiak eta gorespenak elkarren artean trukatuz elkar laudatzen, inozoak inozoa eta ezjakinak ezjakina, ikustea da. Hau, Altzeo192 baino gorago dago haren iritziz; hura, honen ustez Kalimako193 baino gorago; hau harentzat, M. Tulio baino handiagoa da; hori beste harentzat, Platon baino jakintsuagoa.

Noizbehinka gainera antagonista bat bilatzen dute, haren lehiakidetasunarekin norbere ospea gehi dadin. Orduan

"jendea, zalantzakor, bataren eta bestearen zaletuen artean banatzen da,"194

buruzagi bakoitza, gertakaria ondo burutu ondoren, zokora garaile hurbildu eta bakoitzak bere segizioa antolatu arte. Jakintsuek gauza hauei barre egiten diete pellokirtenkeriatzat joz, izan ere horixe baitira. Ba al dago hau ukatzen duen inor? Bitartean, alabaina, bizitza atsegin bat daramate neure mesedeari esker, euren garaitiak Scipionenengatik ere aldatu nahi ez izateraino. Baina ikasiek eurek ere, bitarte honetan, euren gogoaren poztasun izugarriaz barre egin eta inoren sanotasunik ezarekin gozatzen dutenez, ez da, ez, gutxi eurek ere niri zor didatena; ukatu ezin duten gauza da, denetarik eskertxarrekoenak izaterik nahi ez baldin badute bederen.

LI

Erudituen artean lehenengo tokia, legegizonek eurentzat eskatzen dute eta beste inor ere ez zaie iruditzen eurek bezain on, Sisyforen haitzari195 etengabe bueltak ematen eta seiehun lege ezberdin, harira datozenentz axolarik ez dielarik, izpiritu berarekin bilbatzen ari diren bitartean; eta hitz arrotzak arrotzen gainean eta iritziak iritzien gainean metatuz lortzen dute euren ikasketak denetarik zailenak diren itxura ematea. Beraz, neketsua den edozein gauza, besterik gabe, gauza handitzat hartzen baitute.

Gehi diezaizkiegun hauei dialektikoak eta sofistak, Dodonako brontzezko ontziak196 baino hitzontziago den giza askazia, euretariko edozeinek lehia lezakeelako hitzontzikerian hautatu diren hogei emakumeekin; mihiluze baino ez balira, oso zoriontsuak izango lirateke, baina ahuntzaren gauerdiko eztulari buruz197 ere setati ihardukitzeraino adina burrukalari direnez, euren matrakaldi amaiezinetan egiatik aldentzen dira sarri askotan. Baina, hala ere, euren Philautia/Buruestimak dohatsu egiten ditu eta hiru silogismoz horniturik edonorekin eskuetaraino heltzen ausartzen dira pentsa-pentsa gabe. Bestalde, euren setakeriak menderagaitz bihurtzen ditu, nahiz eta aurkaria Stentor bera izan198.

LII

Hauen ostean filosofoak agertzen dira, kapaz jantzitako bizardun beneragarriak, jakituriaren jabe bakarrak eurak direla diotenak eta gainerako hilkor guztiak noraezean dabiltzan mozoloak. Zein eztiki liluratzen dira, egia esan, zenbatu ezin diren beste mundu sortzen dituztenean, eguzkia, ilargia, izarrak eta gainerako globoak erpuruarekin edo hariren batekin bezala neurtu-edo egiten dituztenean eta

bide batez tximisten, haizeen, eklipseen eta gainerako gertakari ulergaitzen zergatiak inolako zalantzarik erakutsi gabe azaltzen dituzten bitartean, naturaren arkitektoaren idazkariak izan balira bezala, edo gugana jainkoen biltzarretik zuzenean etorri balira legez: Naturak bitartean ederkiro egiten die barre eurei eta euren aieruei.
Hauentzat ez dago zalantzan jarri ezin den ezer, eta horren frogarik onena gai bakoitzari buruz elkarren artean sinetsi ezineko burrukaldiak egitea da. Hauek, ezertariko ezer ere jakin ez arren, guztia dakitela aldarrikatzen dute handikiro: euren buruak ere ez dituzte ezagutzen eta batzuetan aurrean duten zulo zein harritzarra ere ez dute ikusten, edo itsuki batzuk baino ez direlako gehienak edo gogoak erromes dituztelako; baina hala ere, ideiak, unibertsalak, forma bereiziak, materiaren lehengaiak, zertasunak eta hementasunak199 bezalako gauza guztiz xeheak, nire ustez Lynceusek berak ere200 bereizi ezin dituenak, ikusten dituztela aldarrikatzen dute. Baina jende ezjakina gehien gutxiesten duten unea hau da: triangelu eta lauki, zirkulu eta antzeko matematika-irudiekin, guztiak bata bestearen gainean eginda labirinto-moduko batean nahasirik eta gainera bakoitzean ordena ezberdinean errepikaturiko letra-armada bat ipinita ikasigabeak gau itsuenean uzten dituztenean. Jende-kasta honen barruan ez dira falta astroak kontsultatu ondoren etorkizuna igartzen dutenak eta mirari magikoak baino handiagoak agintzen dituztenak ere; eta horixe guztia ere sinesten duten gizakiak aurkitzen dituzte, zortetsuek halakoek!
LIII
Ondoren teologoak datoz eta agian hobe izango da hauei isilik joaten uztea, eta kakatza hau ez eragitea, eta landare hatsjario hau ez ukitzea, giza kasta harrigarriro kopetilun eta suminkor bati dagokion bezala, gerta ez dadin seiehun anatemarekin taldeka irteten zaizkidala eta esanak irenstera behartzen;

eta hori egitera ukatzen banaiz ea gero *herese* aldarrikatzen nauten. Horiek, tximista horrexekin izutzen dituztelako begiko ez zaizkien guztiak.
Egon ere, ez dago beste inor nik egiten dizkiodan mesedeak begi on gutxiagorekin aintzatesten dituenik; baina, hala ere, horretara beharturik daude mesprezagarri ez diren hainbat arrazoiren izenean; hirugarren zeruan biziko balira bezain zoriontsu, handik goitik, Philautia/Buruestimarekin behatzen dituzte gainerako hilkor guztiak behean tatarrez dabiltzan abereen pare eta ia-ia hauenganako urrikia sentitzen; eurek bitartean maisutasunezko definizio, ondoren, ondorio, proposamen esplizitu eta inplizituen andanaren babesak inguraturik bizi dira; hainbeste ihesbide dituzte ezen Vulkanok berak ere201 ezin izango lituzkeen bere sare eta guzti kateatu, euren bereizi beharrarekin ihes egingo luketelako; bereizgarri horiekin hain erraz ebakitzen dituzte korapilo guztiak non Tenediako202 ahobiko aizkorak berak ere ezingo lukeen hobeki egin; horiek, egon ere, horraxeino daude horniturik hitz asmatu berriz eta mintzo misteriotsuz. Gero euren erara azaltzen dituzte misteriorik ezkutuenak ere: mundua nola sortu eta antolatu den. Bekatuaren orbaina zein bidetik heltzen zaien ondorengoei: nola, zein neurritan, zenbat denboran haurdundu zen Kristo Ama Birjinaren sabelean; eukaristian nola irauten duten akzidenteak non kokaturik gabe. Baina gauza hauek sarri izan dira aztertuak. Beste arazo batzuk, aldiz, duinak bakarrik dira teologo handientzat, edo eurek esan ohi duten moduan, argituentzat; hauekin hasten direnean bizitu egiten dira. Ba al dago unerik jainkoaren sortzapenean? Kristorengan semetasun bat baino gehiago al dago? Ahalgarria al da "Aita Jainkoak semea gorrotatzen du" proposamena. Jainkoa bat egin al zitekeen emakumearekin, deabruarekin, astoarekin, kalabazarekin edo suharriarekin? Orduan kalabaza batek, nola hitz egingo zion herriari, nola egingo zituen mirariak eta nola izango zen gurutziltzatua. Eta Pedrok, Kristo gurutzean zintzilik zegoen bitartean konsagaratu izan balu, zer konsagaratuko zuen?
Eta gurutzean zintzilik egon zen denbora horretan, esan zitekeen Kristo gizakia dela: eta berbiztu ondoren zilegi izango al da jan eta edatea; horiek orain hartzen dituzte gosearen eta egarriaren ardurak. Hainbat eta hainbat **xehetasun** daude, aipatuak baino asko xeheagoak, nozioei, harremanei, formaltasunei, zertasunei eta hementasunei buruz, norbere begiekin inork bereiziko ez lituzkeenak, Lynceus bat izan ezik203, ilunberik trinkoenetan inon ez dagoen gauza ikusteko kapaz baldin bada behintzat. Gehitu hauei etikako arau hain paradoxiko haiek, paradoxa izena hartzen duten estoikoenak, hauen ondoan, ingurumariako arruntkeriak baitirudite; adibidez delitu arinagoa dela mila gizon lepamoztea, txiro bati jaiegunean oinetakoa behin adabatzea baino. Eta hobe dela mundu osoaren hondamendia, janari, jantzi eta guzti esan ohi denez, eragitea, gezurrik txikiena esan baino lehenago. Eta jadanik xehetasun xehe-xehe direnak, xeheagoa bilakatzen dituzte eskolastikoen milaka bide horiek, labirinto batetik lehenago aterako zinatekeelarik, errealisten, nominalisten, tomisten, abertisten, ockamisten eta eskotisten204 nahaste-borrasteetatik baino; eta ez ditut (sekta) guztiak izendatu, nagusienak besterik ez. Horietan guztietan dagoen erudizioa eta dauden zailtasunak hain dira ugariak non uste dudan apostoluek eurek ere berriro beharko luketeela beste izpiritu bat, teologo-mota berri honekin gai hauei buruz eztabaidatzera beharturik aurkituko balira. Paulo, agian, bere fedeagatik nabarmenduko zen, baina, hala ere, *Fedea, itxaroten diren gauzen oinarria eta ikusten ez direnen froga da*205 esan zuenean, maisutasun gutxiko definizioa eman zuen. Berak karitatea ezin hobeki bizi zuen arren, dialektika gutxirekin egiten ditu banaketak edo ematen definizioak korintoarren lehenengo epistolan **kap. 13.**
Apostoluek, jakina, debozio handiz sagaratzen zuten eukaristia; alabaina, galdetu baldin balitzaie *a quo* hitzmugari edo *ad quem* hitzmugari buruz, zein transubstantziazioari buruz edo gorputz bera toki ezberdinetan egon daitekeen

moduari buruz, edo Kristoren gorputzak zeruan, gurutzean egon zenean eta eukaristiako sakramentuan duen ezberdintasunari buruz,

zein transubstantziazioa ematen den uneari buruz kontutan izanik elkarren segidan banaturik esaten diren hitzez osaturik dagoela hori burutzen duen formula; Honi guztiari buruz galdetuko balitzaie, ez lukete erantzungo, nik uste, eskotistek puntu hauei buruz mintzatzen direnean eta definitzen dituztenean ohi duten zorroztasunarekin. Apostoluek ezagutzen zuten Jesusen ama; baina euretariko zeinek frogatu zuen gure teologoek egin duten besteko filosofiaz nola jagon zen Adamen bekatutik? Pedrok giltzak hartu zituen eta ezduin bati emango ez zion haren eskutik hartu ere; baina, hala eta guztiz ere, ez dakit ulertuko ote zuen, zorroztasuna ez baitzuen dohaintzat, nola eduki lezakeen zientziaren giltza zientziarik ez duen batek. Apostoluak nonahitik ibili ziren bataiatzen; baina, horregatik, inon ez zuten irakatsi zein den bataioaren kausa formala, materiala, efizientea eta azkena; eta hauen artean ez da ezagutzen bere karakter kengarri eta kenezinari buruzko aipamenik ere. Haiek gurtzen zuten, baina izpirituz; eta horrekin ez zuten besterik egiten ebanjelioko irakaspen hau bete baino: *Jainkoa izpiritua da eta komeni da bera gurtzen duten horiek izpirituz eta egiaz gur dezaten*206. Egia esan, inon ez da agertzen sasoi hartan ezagutarazi zitzaienik gurtzapen berdinarekin gurtu behar zirela Kristo bera eta egurrikatzaz orman marrazturiko irudiska bat, baldin honek bi atzamar luzaturik, adatsa moztu gabe eta lepondoari lotuta duen ninboan hiru ezaugarri baditu.

Nor da horretaz guztiaz jabetuko zena, Aristotelesen fisikari lehenengo eta beronen zein Eskotoren metafisikari hurrengo hogeita hamasei urte oso eman dizkienen bat ez bada? Apostoluek etengabe ekiten dute graziari buruz, baina haiek inon ez dute zehazten zein ezberdintasun dagoen *gratia gratis data* eta *gratia gratum faciens* bi hauen artean207. Ekintza onak egitera aholkatzen dute, baina ez dute bereizten ekintzari buruz *opus operantis* eta *opus operatum* deituen artean207. Alde guztietan ekiten dute karitateari buruz, baina isuria ala lorturikoa den bereizi gabe, eta ez dute ezta ere azaltzen akzidentea ala substantzia den, kreatua ala kreatugabea den207. Bekatua gorrotatzen dute, baina hala ere hil nadila baldin bekatua deitzen dugun hori zer den zientziaz definitzeko gai izan baziren eskotisten izpirituak sakonki eskolatu ez bazituen behinik behin. Ezin naiz sinestera heldu Paulok, -eta honexen erudiziotik bakarrik balioets daiteke beste guztiena-, nola kondenatu zituen hainbeste aldiz208 eztabaidak, tirabirak, genealogiak eta hitz-burrukak berak deitzen zituen bezala, hauen kakomakoak sakontasunez ezagutu balitu, batez ere kontutan izanik sasoi hartako auzi eta liskarrak arruntak eta bastoak gertatuko liratekeela, gure maisuen xehetasunekin, Krisiporenak209 berarenak baino sakonagoekin, erkatuko bagenitu. Baina gure teologoak jende oso apala direnez, apostoluek nahiko trakets edo maisutasun gutxiz zerbait idatzi arren ere, ez dute kondenatzen, jakina, egokiro ulertarazi baino. Ez dago esan beharrik zati bat antzinatasunari eta beste zati bat apostoluen izen onari zor zaion begiruneagatik egindako ohore bat dela. Eta, ene Herkules, izan ere ez litzateke bidezko izango, gauza hauei buruz Maisuarengandik hitz bakar bat behin ere entzun gabe horrenbeste gauza eskatzea. Ostera, antzeko kasuren bat Krisostomon210, Basilion211 edo Jeronimon212 aurkitzen dutenean, orduan aski dute hegalean idaztearekin: *ez da onartzen*.

Egia da apostoluek, filosofo jentilak eta juduak, izaeraz oso setatiak eurak, ihardetsi zituztela, baina silogismoekin baino gehiago bizitzarekin eta mirariekin egin zuten, haietako inor ez zelako Eskotoren "Quodlibetum"213 edo *aukerako eztabaidagai* horietariko bat ere adimenaz harrapatzeko gauza. Orain, aldiz, zein jentilek, zein heresek ez luke berehala amore emango xehetasun guztiz mehe horien aurrean, baldin hain laburra ez bada non ulertzen ez dituen, edo hain lotsagabea, non txistu egiten dien, edo lakio berdinekin hain ondo hornituta non lehiaketa jadanik orekatua den, azti bat beste azti baten kontra214 ariko balira bezala, edo ezpata sorgindu bat duen bat beste

ezpata sorgindu bat duen beste baten kontra burrukatuko balitz bezala: orduan, bada, ez litzateke besterik egingo Peneloperen ehuna desirun baino. Nire ustez, bederen, kristauek zuhurki jokatuko lukete baldin, zorte ezberdinarekin aspaldidanik burrukan ari diren gudatalde handi horien ordez, eskotista zalapartariak, ockamista setatiak eta albertista menderagaitzak hartu eta sofista-aldra osoarekin batera turkiarren eta sarrasinen kontra bidaliko balituzkete: pentsatzen dut inoizkorik gatazka barregarriena eta orain arte inoiz eman ez den garaipena ikusiko genukeela. Nor izango litzateke, bada, horien zorroztasunek ez berotzeko adina hotz? Nor hain sor, akuilu horiek ez bizkortzeko? Nor hain begizorrotz, gauza hauekin barreiaturiko ilunbe trinko horietan noraezean ez gelditzeko? Baina antzematen dit uste duzuela gauza hauek guztiak txantxetan esaten ari naizela. Eta ez da harritzekoa ere, teologoen euren artean ere nazkaturik daudelako kultura gehiagoko batzuk euren ustez Teologoen kakomako ergelak diren horietaz.

Batzuek sakrilegio bat balitz bezala gaitzesten dituzte eta gaiztakeriarik handientzat dute azaltzeko baino gehiago gurtzeko diren gauza hain misteriotsuei buruz aho hain zikinarekin hitz egitea edo jentilen kakomako adeigabeez baliatuz eztabaidatzea, hainbeste harrokeriaz definitzea eta jainkoaren teologia hitz eta iritzi hain hutsekin, are gehiago arbuiagarriekin laidoztatzea. Bitartean haiek plazerrez beterik daude zoriontsu; gehiago oraindik, euren buruak txalotzen dituzte eta lelo ezti berdinekin gau eta egun ihardunik ez zaie gelditzen asti pitintxo bat ere ebanjelioa edo Pauloren epistolak behin bakar batean gainetik begiratzeko ere. Eta bitartean, huskeria hauekin eskoletan denbora emanda, pentsatzen dute eurak direla, eta ez beste inor, eliza unibertsalari eusten diotenak euren silogismoen zutabeekin, Atlasek zeruari bere sorbaldekin, poetek diotenez, eusten dion modu berean, eta bestela eliza osoa eroriko litzatekeela. Asma dezakezue, bada, nolako zoriona izaten duten idazki arkanoak euren gustura moldatzen eta birmoldatzen dituztenean ia-ia argizariaren antzera, edo euren ondorioak eskolastiko batzuek sinatu dituztela-eta eskatzen dutenean Solonen legeak215 baino handiagotzat hartzeko eta pontifize-dekretuen aurrean jartzeko edo, mundu osoaren zentsuratzailetzat eraikiz bere burua, jendea behartzen dutenean esandakoak agirian ezeztatzera, baldin halabeharrez tokiren batean zerbait beren ondorio esplizitu edo inplizituekin bat zehatz-mehatz ez badator; orduan, orakulutik hitz egingo balute bezala, esan ohi dute: *proposamen hau eskandalagarria da: hau, begiramendu gutxikoa: honek, heresia-usaina du: beste hau soinu txarrekoa*. Orain, jada, ez bataioak, ez ebanjelioak, ez Paulok zein Pedrok, ez jaun done Jeronimok edo Agustinek, ez-eta Tomas aristotelikoetatik aristotelikoenak berak ere ezingo du inor kristau egin, batxiler hauen epaiak onesten ez duen bitartean: epaitzeko orduan, erakutsi ere, horrexen besteko zorroztasuna erakusten dute.

Nor konturatuko zen, bada, bi esaldi hauek: *koipezto, hatsa dariola hago* eta *koipeztoa hatsa dariola dago* edo halaber *lapikoari irakin* eta *lapikoa irakin* (216) esanahi berdina dutela esaten duena ez zela kristaua, baldin gure jakintsuek irakatsi ez baligute? Irakurriaren irakurriaz inor inoiz konturatuko ez zen erroreen ilunbe hain trinkoetatik, nork jaregingo zuen eliza, baldin hauek zigiludun titulu handiekin konturarazi ez baligute? Baina horixe egiten, ez al dira benetan zoriontsu? Bestalde gainera, infernuetako xehetasun guztiak egiantz hain handiarekin kontatzen dituzte non antzematen duen hainbat eta hainbat urte iragan dituztela errepublika hartan. Mundu berriak ere beren irizpideen arabera fabrikatzen dituzte, azkenean denetarik zabalena eta ederrena gehitzen dielarik:217 antza, leku bat falta ez dadin arima zoriontsuak eroso eta lasai osteratxoak egin, bazkariak ospatu eta baita pilotan jolasteko ere. Tentelkeria hauekin eta hari bereko beste bi milarekin hain beterik eta arduraturik daude non uste dudan Jupiterren burmuina bera ere ez zela egon horren astun, Palas erditzear zegoela

Vulkanoren aizkora erreguka eskatzen hasi zenean ere. Ez duzue, bada, zertan harritu behar baldin eztabaida publikoetan ikusten badituzue kapelaren tela zabalekin buruak kontu handiz zaintzen, bestela bi zatitan erdibitzeko arriskua izango luketelako. Neuk ere batzuetan upelako barreak egiten ditut ikusita nola benetan sinesten duten zenbat eta zantarrago eta zakarrago hitz egin hainbat eta teologoago direla edo nola agertzen diren berbartun batek baino ez ulertzeraino adina berbartun eta nola deitzen dioten *zorroztasuna* jendeak ulertzen ez duenari.

Ukatu egiten dute gramatikoen legeak betetzera beharturik egotea eskritura sakratuaren duintasunari dagokionik. Miresgarria, benetan, teologoen handitasuna, trakeski hitz egitea eurei baino ez baitzaie zilegi, nahiz eta adabatzaile askorekin komunean duten gauza bakarra horixe berori izan. Azkenean Jainkoengandik hur-hur ikusten dituzte euren buruak *maisu gureak* deituta ia-ia erlijioski agurtzen zaien bakoitzean, benetan uste dutelako izen horrekin juduentzat tetragrama 218 den bezalako zerbait esan nahi zaiela estarian. Ondorioz, esaten dute ezin dela maiuskulekin baino idatzi MAISU GUREA. Eta norbaitek, hitzak alderantziz jarrita *Gure Maisua* esango balu, orduan Teologoen izenaren handitasun guztia lorrinduko luke bat-batean.

LIV

Teologoen zoriontasunetik hur, herriak deitura guztiz okerrekin *erlijiosoak* eta *monjeak* deitzen dien haiek daude; oker, euretariko zati on bat erlijiotik zeharo urrundurik dagoelako eta gainera eurek baino gehiago beste inor ez delako ikusten leku guztietan219. Ez dut ikusten nor izan daitekeen eurak baino urrikalgarriago, neuk modu askotara lagunduko ez banie. Dena dela, gizaki-kasta hau hain da gaitzetsia, non mundu guztia dagoen benetan konbentziturik holako batekin, ustekabez baino ez bada ere, topo egiteak zorte txarra ekartzen duela eta, eurek, hala ere, asko maite dute euren burua. Hasteko, uste dute letrez ezer ez jakitea pietaterik handiena dela eta, hortaz, irakurtzen ez ere ez dute ikasten.

Gero, euren salmoak, egia esan zenbaki eta guzti egon arren piperrik ere ulertu gabe arrantzaka astoen pare tenpluetan errezatzen dituztenean, uste dute han daudela zerutarren belarriak zerbait laketgarriarekin gozatzen. Hauetariko batzuek ederto ateratzen diete etekina zikinkeria eta eskaletasunari, arrantzaka ogia eskatu eta eskatu ateen aurrean egonda220; gehiago oraindik, han egoten dira edozein ostatu, ibilgailu zein untzitan gogait eragiten, eta gainerako eskekoen kaltetan, jakina. Gizaki guztiz atsegin hauek horrexetara, zikinkeriarekin, ezjakintasunarekin, zarpailkeriarekin eta lotsagabekeriarekin saldu nahi digute, itxura denez, apostoluen irudia. Baina, bestalde, zer jostagarriago horiek dena erregelen arabera egiten ikustea matematikoki arauturik balego bezala, egin ezik hobendun gertatzeko moduan. Adibidez, oinetakoek zenbat korapilo izan behar duten, gerrikoak nolako kolorea, jantziak zenbat zati ezberdin eta zein ehun-motaz egina, gerrikoa nolako luzerakoa eta nolako itxurakoa, kapusaiak zenbat lakariko edukiera, buruntzak zenbat hatzeko zabalera, eta lo zenbat ordu egin behar den. Nork ez du ikusten berdintasunaren ezberdintasuna soin eta aiurrien aniztasun hain handiaren artean? Baina, hala ere, ezberdin direnei ez diete inolako baliorik ematen euren aldean huskeria horiexek direla-eta; gehiago oraindik, elkarren artean ere batzuek besteek gutxiesten dituzte eta apostoluen karitatea jagoten duten gizonek sinestezinezko tragediak egiten dituzte modu ezberdinean gerrikaturiko jantzia dela edo kolore pixka bat ilunago duela-eta. Ikus daiteke, orobat, erlijio-arauak horien arteko batzuek hain hertsiki betetzen dituztela non kanpoko jantzitzat Ziliziako ahuntz-ilez egindako arropak baino ipintzen ez dituzten, baina barrutik Miletoko ehuna; beste batzuek, aldiz, kanpotik lihozkoak eta barrutik lanazkoak eramaten dituzte.

Badaude, orobat, dirua ukitzeari izua diotenak alargunts belarra balitz moduan, baina ardoa eta emakumeak ukitzeko orduan, ostera, neurririk izaten ez dutenak. Azkenik, guztiek dute bizimoldean bereizteko izugarrizko ardura. Baina ardura hori ez doa Kristoren modukoa izatetik, elkarren artean ezberdinak izatetik baino. Eta, hortaz, zoriontasunaren zati handi bat izenetan jartzen dute; eta batzuei *sokadunak*221 deitzeak plazer paregabea ematen die eta euren artean batzuk *errekoletoak* dira222, beste batzuk *txikiak*223, beste batzuk *minimoak*224, beste batzuk *buldadunak*225. Hauek, ordea, *beneditarrak* dira226 eta haiek *bernardotarrak*227; hauek *brigidarrak*228 eta haiek *agustindarrak*229; hauek *gilemitak*230 eta haiek *jakobitak*231, *kristau* deitzea gutxi balitz legez. Hauetariko gehiengoak hain atxikimendu handia die beren zeremonia berezi eta giza ohituratxoei non uste duten zeru bakar bat ez dela sari duina hainbeste merezimendurentzat; ez dira konturatzen Kristok, ergelkeria horiek alde batera utzita, bere agindua, hau da karitatearena, bete dutenentz eskatuko diela. Orduan batek, arrain-mota guztiekin gaizki aseturiko sabela erakutsiko dio. Beste batek, ehun lakari salmo barreiatuko dizkio. Beste honek, milaka barauren kontua aurkeztuko dio eta esango dio urdaila ia-ia birrindurik duela hainbat eta hainbat alditan egunean behin baino jan ez duelako. Beste hark, zazpi zamauntzitan ere ez garraiatzeko besteko zeremonia-montorra aurkeztuko dio. Horko hori, bi pare eskularru jantzita izan ezik dirurik hirurogei urtetan ukitu ez duelako harrotuko da.

Hau, ordea, aurkeztuko da marinel bat bere gorputzarekin ukitzen ez ausartzerainoko kapusai lohi eta koipez betearekin. Hark gogoraraziko dio hamaika bosturteko baino gehiagotan eraman duela belaki bati dagokion bizitza, beti leku berean finkaturik232. Horrek esango dio ahotsa bera ere erlasturik duela beti kantuz ari izan delako; ondokoak bakardadean harturiko lozorroa duela eta hurrengoak isiltasunaren uztarriak trakesturiko mihia. Baina Kristok, gloria amaitezinon kontaketa zapla mozturik esango die: Baina nondik atera da, jaun-andreok, juduen kasta berri hau? Nik ez dut aintzatesten, neure bezala, lege bat baino; eta berari buruz ez naiz ezer entzuten ari. Nik antzina aitaren jarauntsia karitatezko egintzei agindu nien argi eta garbi, parabolen inolako estalkirik erabili gabe, eta ez kapusaiei, otoitz tentelei edo barauei. Eta ez ditut aintzatesten norbere egintzak gehiegi aintzatesten dituztenak, nerau baino santuago agertu nahi dutenak; doazela, bada, nahi baldin badute, Abraxasen zerua hartzera233 edo, bestela, agin biezaiete ohitura mengel horiek ene aginduen gainetik jarri dituztenei zeru berri bat eurentzat eraikitzeko. Gauza hauek entzun ondoren, ikusten dutenean marinelak eta gurtzainak eurak baino nahiago dituela, nolako aurpegiekin uste duzue elkarri begiratuko diotela? Baina bitartean, zoriontsu bizi dira euren itxaropen horrekin, neure laguntzagatik, jakina. Bestalde, bizitza publikotik urrundurik bizi diren arren, inor ez da ausartzen hauei erasotzen, eskaleei bereziki, aitortza-edo deitzen dioten horren bidez jende guztiaren sekretu guztiak ezagutzen dituztelako. Sekretu horiek jakitera ematea sakrilegiotzat omen dago; hala ere, batzuetan polito edan ondoren, istorio atseginagoekin jostatu nahi izaten dute; baina, kasu hauetan ere, gauza aieruen bidez baino ez dute adierazten, izenik eman gabe.

Baina erlamando hauek baten batek haserretzen baditu, orduan jendaurreko hitzaldietan ondo baino hobeto ordaintzen diote, etsaia zeharka baina mundu guztiak, inoiz ezer ulertzen ez duenak salbu, ulertzeko moduan salatuta. Eta zaunka egiten segitzen dute, hezur-puska bat ahora bota arte. Baina esaidazu zein komediante edo zein berbontzi nahi duzun ikustea erretorikaz beteriko hauen hitzaldiak baino gehiago, hain irrigarriro baina bestalde hitz egiteko arteari buruz maisuek irakatsi dutena hain ederki imitatzen dutenean? Ene jainko hilezin hori!, nolako keinuak egiten dituzten!, zein egokiro aldatzen duten ahotsa!, zenbat lelo, nolako harrokeriak, nola joaten diren batzuei eta bestetzuei elkarren segidan begiratzen, nola

nahasten duten guztia euren oihuekin. Hizlaritza-arte hau fraide batek sekretu bat bezala uzten dio eskuz esku beste fraide bati; nik, jakina, ezin dut hau zuzenean ezagutu, baina hala ere, esatera noa aieruen bidez nola edo hala dakidan hori. Lehenengo eta behin, oles egiten dute, poetengandik maileguan hartu duten ohitura bat; gero karitateari buruz hitz egingo badute, hasiera emateko Nilo, Egiptoko ibairaino joaten dira; edo gurutzearen misterioa azaldu behar badute, Babiloniako Bel herensugearen234 babes zoriontsuarekin hasten; edo barauaren arazoa argitu behar dutenean, Zodiakoko hamabi zeinuetatik hasten dira eta fedeari buruz hitz egiteko asmoa dutenean, zirkuluaren koadraturari buruz hitz egiten hasten dira sarritan. Neronek entzun nion behin neure belarriekin entzute handiko hitzaldi batean, jainkozko hirutasunaren misterioa azaldu behar zuen ero pepelerdo bati, barka erratu egin naiz-eta, *jakintsu bat* esan nahi nuen, bere aparteko kultura erakutsi eta teologoen belarriak balakatzeko-edo, nola sartu zen besterik gabe, bide berezi batetik, letra, silaba eta perpausetatik hasi eta gero izenaren eta aditzaren, adjektiboaren eta substantiboaren komunztadurari buruz hitz egiten; gehienak harri eta zur zeuden eta banaka batzuk euren artean ahapeka esaten hasi ziren Horazioren hura: *Non amaituko ote du pitxokeria horiekin?*235.

Azkenean gaia bideratu zuen frogatzeraino Hirutasunaren irudia gramatika-hastapenetan hain argi adierazirik zegoela non matematiko batek ere ezingo lukeen arbelean236 argiago irudikatu. Gainera, teologotzar hark hitzaldi hau prestatzen hala bota zuen izerdia zortzi hilabete oso-osotan non oraindik gaur ere satorra bera baino itsuago dagoen; eta harritzekoa ere ez da kontutan badugu hark egin zuen ahalegina bere argi guztien distira bere adimenaren gailurrera eramaten. Baina gure gizonari ez dio minik ematen itsutasun hark, alderantziz baino, uste baitu lan horrekin oso merke lortu zuela gloria. Beste behin laurogei urtetako teologo guztiz on bat entzun nuen, Eskoto bera berraragitu zela berarengan pentsatzeko modukoa hain zuzen. Honek, Jesusen izenaren misterioa azaltzeko, trebetasun miresgarriaz frogatu zigun izenaren letretan euretan dagoela ezkutaturik beretaz esan zitekeen guztia237. Izena hiru kasutan baino ez deklinatzea, jainkozko hirutasunaren irudi argia zela. Deklinabideko lehenengo kasuaren bukaera (Jesus) *s* zela, bigarrenarena (Jesum) *m* eta hirugarrenarena (Jesu) *u*; eta hortxe ezkutatzen zela misterio adieraztezina, hau da: letratxo horiek adierazten duten moduan, bera dela hasiera (summun), erdia (medium) eta bukaera (ultimum). Baina azaltzeko geratzen zen oraindik, hauek baino misterio are ezkutuago bat, matematika-izaerakoa. *Jesus* hitza bi zati berdinetan banatu zuen, erdiko elementua erdian bakar-bakarrik geratu zelarik.

Ondoren jakinarazi zigun letra hori hebraieraz zela eta *Syn* deitzen zitzaiola; baina *Syn*, eskozieraz uste dut, *bekatua* dela: eta hemendik argi eta garbi ateratzen dela Jesus dela munduko bekatuak kentzen dituena. Inoiz entzun gabeko sarrera honekin hain ahozabal eta miretsirik geratu ziren guztiak, bereziki teologoak, non gutxi falta izan zen antzina Nioberi238 jazo zitzaiona eurei ere gertatzeko; niri, ordea, ia-ia agitu zitzaidan piku-zurezko Priapori pasa zitzaiona, bere zoritxar handirako Kanidia eta Saganako239 gau-ohikune sakratuetan parte hartu beharra izan baitzuen. Eta, egia esan, arrazoi handiarekin: zeren, holako sarrera bat noizko asmatuko zuten gure Demostenes grekoak edo Zizeron latindarrak? Hauek gaizki buruturiko sarreratzat joko lukete gaitik zerbait aldenduko litzatekeena: egia esan, istorioak horrela kontatzen ez dira hasten, maistratzat natura duten urdazainek eurek ere. Jakintsu hauek, ostera, uste dute atarikoa, eurek horrela deitzen diote, asko ere erretorikoagoa izango dela baldin gainerako argumentuarekin zerikusi txikienik ere ez badu eta entzuleak bitartean liluraturik ahopean esaten badu: *nora iritsi nahi ote du honek orain*240. Hirugarren, ebanjelioko zerbait esaten dute noizbehinka, istorio bat bailitzan, arineketan eta bide batez, horixe denean egin beharko luketen gauza bakarra. Laugarren, itxura berri bat hartu ondoren,

teologiako arazoren bat planteatzen dute, sarri askotan ez lurraz ez zeruaz zerikusirik ez duena.. Uste baitute hori ere artearen zati bat dela. Erakutsi ere, orduantxe erakusten dute euren betarte teologikoa, egundoko izen dotoreekin belarriak betez, hala nola: doktore ospetsuak, doktore burutsuak, doktore burutsu-burutsuak, doktore serafikoak, doktore doneak, doktore aurkaezinak.

Gero, silogismo nagusiak, txikiak, ondorioak, ondorenak, suposamendu guztiz hotzak eta eskolastikoenak baino huskeria handiagoak botatzen dituzte jende ezjakinaren aurrean. Bosgarren ekitaldia baino ez da geratzen eta hemen komeni da maisu hobezin bezala agertzea. Baina zer?, eta aurrean jartzen didate *Speculum Historiale*tik241 edo *Gesta Romanorum*etik242 edo batek daki nondik ateratako ipuin ganorabako eta hutsal bat eta alegorikoki, tropologikoki eta anagogikoki ulertarazten didate. Eta besterik gabe bukatzen dute hitzaldia, Horaziori berari ere burura inoiz, ezta *Gizonaren burura e.a.* idatzi zuenean ere243, etorri ez zitzaion Ameskeria. Alabaina, entzun diete baten batzuei hitzaldiaren sarrera barea eta oihu gutxikoa izatea komeni dela: Horregatik, hasieran hitz egiten dute ahotsa eurek ere ez entzuteko moduan; inork ulertzen ez duena esateak zerbaiterako balioko balu bezala. Nonbait entzun dute, itxuraz, sentimenduak bizkortzeko oihuak erabili behar direla. Horregatik da gehienbatean normal hitz egiten ari izatea, baina bat-batean berehala jasotzen dute ahotsa garrasi benetan koleratsuak egiteraino, horretarako premiarik bat ere egon ez arren ere. Zin egingo zenuke gure gizonak otsobelarraren beharrizana duela244, noiznahi garrasi egiteak lebarik ez balu legez. Honez gainera, predikua aurrerago eta beroago joan behar dela-edo entzun dutenez, zati bakoitzeko hasiera, dena delako izan, sano errezitatzen dute, baina gero ahots bete-betean hasten dira, gaia oso hotza izan arren ere, eta azkenez amaitzen dute arnasa falta zaiela uste izateko moduan. Bukatzeko, Erretorikoen artean barrearen aipamena egiten dela ikasi dute eta hori dela-eta eurek ere gauzari humore pixka bat jartzen saiatzen dira, baina hain txispa gutxi izaten dute eta hain desegoki jarrita egon ohi dira, Oi Afrodita maitea, non benetan esan daitekeen astoa liraren doinura bezala datozela.

Batzuetan eztenkadak ere botatzen dituzte, baina zauria baino gehiago kilikili egiten dutenak. Ez dute sekula lausengatzen hain benetan argi eta garbi hitz egiten dutela aditzera ematen hainbat ahaleginez saiatzen direnean baino. Azken finean, hitzaldi guztia hain da halakoa, non zin egingo zenukeen hori guztia hamar buelta ematen dieten kaleko hitzontziengandik ikasi dutela. Izan ere, batzuek eta bestetzuek antz hain handia dute non inork ez dakien erretorika nork nori irakatsi dion, hauek haiei ala haiek hauei. Eta hala eta guztiz ere, hauek ere aurkitzen dituzte, neure eraginez nola ez, eurek entzuterakoan Demostenes bera edo Zizeron bera entzuten ari direla bene-benetan uste dutenak. Jende-mota hau, batik bat, merkatariak eta emakume tuntunak izan ohi dira: saiatu ere, horrexen belarriei poz ematen saiatzen dira interes izugarriaz, merkatariek eroso igurtziz gero badakitelako gaizki eskuraturiko ondasunen harrapakinaren zatitxoren bat banatzen. Emakumeak, ordea, hainbat eta hainbat arrazoigatik interesatzen dira jende-mota honetaz; baina batez ere, senarrekin haserretzen direnean horiexen golkoan asaskatzen direlako. Konturatuko zaretela uste dut zenbat zor didan giza kasta honek, euren zeremoniatxo, pitxokeria irrigarri eta oihu horiekin nolabaiteko tirania bat egikaritzen dutelako hilkorren artean, Paulo eta Andoni direla usterik245.

LV

Baina pozarren uzten ditut nire mesedeak disimulatzen eskertxarreko bezain urrikia simulatzen lotsagabe diren histrioi hauek. Aspaldidanik dut zerbait esateko gogoa, inolako plantarik gabe eta jatorri honekoei dagokien moduan jatorki gurtzen nauten erregeei eta gortegizon nagusiei buruz. Hauek burutik sano ontza erditxo bat bakarrik

egongo balira, zer izango litzateke horien bizitza baino triste eta era berean gaitzesgarriagoa?

Agintari benetan izateak suposatzen duen sorbaldan eraman beharreko zama astuna bere baitan ongi aztertzen duenak ez du uste izango, nonbaition, boterea zin-hauspen edo guraso-hilketaren prezioan eskuratzea merezi duenik. Gauza publikoen lema daramanak komeni da herriaren arazo publikoak kudeatzea, ez bere pribatuak, eta ez du beste ezertan pentsa behar guztien onerako diren gauzetan baino: hatz baten zabalera ere ez da aldendu behar egilez gain beterazle ere den legeetatik: bera da administrari eta magistratu guztien zintzotasunaren erantzule: bera, guztien begiradaren aurrean agertzen den bakarra, berak lor dezake, edo izar osasungarri baten antzera, ohituretan ondradu izanik giza arazoetan ongizatea ekartzea, edo kometa hilgarri baten antzera hondamendirik handienera eramatea. Gainerakoen hutsak ez dira hainbeste nabaritzen, ez hain zabal hedatzen. Agintaria hain dago toki garrantzitsuan ezen aski baita zintzotasunetik pitintxo bat aldentzea, izurri horrek sigi-saga hedatuz berehala joan eta hainbat eta hainbat jende kutsatzeko. Gainera, agintaritzak hainbat ahalbide biltzen ditu bide zuzenetik aldenarazten diotenak, hala nola, plazerak, askatasuna, lausengaldiak, luxua; beraz komeni da bipilki saiatzea eta kontu handiz zaintzea bere egitekotik ezertan urrun ez dadin, ezta badaezpadan ere.

Eta azkenean, azpikeriak, gorrotoak eta gainerako arrisku eta beldurrak alde batera utzirik, kontu izan egiazko erregea duela bere buruaren gainetik, zeinek egindako guztiaren kontuak laster eskatuko dizkion zorroztasun handiaz, zenbat eta botere gehiago hainbat eta handiagoaz. Agintari batek gauza hauek eta beste hainbat antzeko bere buruari, diot nik, planteatuko balizkio, eta planteatuko lizkioke zentzua balu, honek ezingo luke gustura, nire iritzian, ez lorik egin ez jan. Baina orain, neuri esker, ardura horiek guztiak jainkoen eskuetan uzten dituzte eta eurek jainkoen pareko bizitza eramaten; eta ez diote entzuten beste inori belarrietarako gauza gozoak esaten dakienari baino, bere gogoan kezkarik sor ez dakion. Uste dute duintasunez betetzen dutela agintariaren egitekoa ehizan sarri eginda, zaldi ederrak hazita, magistraturak eta prefekturak euren probetxurako salduta eta

sistema berriak asmatuta hiritarrak diruz arindu eta bere otzararako biltzeko; baina, hori bai: egokiro egiten dute, arrazoiak emanda, guztiz bidegabea izan arren ere ekitate-itxuraren bat gutxienez izan dezan. Diruak eskuratu ondoren lausengu pixka bat gehitzen dute herritarren begikotasuna nolabait berreskuratzeko. Irudika ezazue, arren, orain, sarri ematen den gizon horietako bat, hots: legeak ahantzirik eta ongizate publikoaren ia-ia etsaia dela, bere gurariak asetzera dedikatzen dena, plazerretara emana, kultura gaitzesten duena, askatasuna eta egia arbuiatzen dituena, arazo publikoen osasunaz baino gehiago beste edozertaz arduratzen dena, baina, bestalde, guztia bere nahiari eta probetxuari begira egiten duena. Gainera, ipin iezaiozue honi bere bertute guztien batasun harmoniatsua adierazten duen urrezko idunekoa; gero, harri bitxiz beteriko koroa, dituen bertute heroiko horien guztiengatik gainerakoengandik nabarmentzea komeni dela ohartarazteko. Gehiago oraindik, eman makila ere, justiziaren ezaugarria eta inorekin ezertan ez dela saltzen adierazten duena. Eta azkenez jantzi purpuraz, errepublikari dion maitasun paregabearen adierazgarriaz alegia.

Apaingarri hauek, Printzeak bere bizitzarekin erkatuko balitu, ziur nago lotsatu egingo litzatekeela apaindura horiez, antzerki-bonbazia hori guztia ikusle humoretsuren batek barre eta txantxa bihurtzeko beldurraz.

LVI

Gortegizon entzutetsuenei buruz zer esango dizuet jada?; horietariko gehiengoa baino menekoagorik, morroiagorik, txepelagorik ez doilorragorik ezer ez dagoen arren, denean agertu nahi dira gailenen. Hala eta guztiz ere, gauza batetan bai badirela apalenak; urrea, harri bitxiak, purpura eta bertuteen eta jakituriaren gainerako ezaugarriak soinean eramateaz aski dute

eta, beraz, gauza horiek guztiak eskuratzeko ahalegin guztia besteentzat uzten dute. Zoriontsu izateko aski zaie erregeari *jauna* deitzeko baimena izatea, hiru hitzekin agurtzen ikastea eta *baretasun*, *menerapena* eta *handitasuna* bezalako titulu zibilak noizbehinka tartejartzen jakitea. Aski zaie, beti aurpegi ona jartzea eta losintxak alaikiro esatea. Hauexek direlako, izan ere, aitonen semeari eta gortegizonari dagozkien arteak. Bestela, bere bizitza hurbilagotik aztertzen hasten bazarete, ez litzateke harritzekoa izango Pheaca soilak, Peneloperen senargaiak alegia, aurkitzea; olerkiaren gainerakoa246 guztiok ezagutzen duzue eta, gainera, Ekok nire aldean ongi errepikatuko dizue. Eguerdiraino egiten dute lo; oraindik ohetik jaiki berri direla ohe ondoan meza laburra emateko beti dago prest saripeko apaiztxoren bat. Gero gosaria eta hau bukatu bezain laster bazkaria eskatzen hasten dira. Ondoren, datoak, xakea, zozketak, bizkarroiak, bufoiak, pailardak, jokoak eta denborapasak.

Bitartean askari banaka batzuk. Gero afaria eta ostean edaria, eta ez urri, Jupiter arren! Eta honexetara, bizitzan inolako gogaitasunik izateko astirik gabe iragaten dira orduak, egunak, hilak, urteak eta mendeak. Batzuetan neronek ere ihes egiten diet nazkaturik, pauma horiek txiripaz ikusi-eta, zeren ematen baitu euren ninfa laguntzaile guztiak buztana zenbat eta luzeago izan hainbat eta jainkoengandik hurbilago sentitzen direla, handikiek elkarri ukondoka ariz aurrera egiten dutela Jupiterrengandik hurbilago agertzeko eta guztiak, idunean zenbat eta katea astunagoa eraman hainbat eta pozago agertzen direla, aberastasuna ez ezik indarra ere erakusteko lehian.

LVII

Printzeen bizitza-mota hori, egia esan, zehatz-mehatz imitatzen dute, aspaldidanik eta agian hobetuz gainera, pontifizeek, kardinaleek eta apezpikuek. Baliteke hauetariko batzuek galdetzea, elur-zuritasunagatik deigarri diren euren lihozko jantziek ea zein esanahi izango luketen baldin euren bizitza akatsik gabea ez balitz arlo guztietan. Ea zer eskatzen dion adarbiko mitrak bi puntak korapilo bakarrarekin lotuta dituenak eta, beraz, testamentu zahar eta berriaren bi tresnak ezin hobeto ezagutzen dituela adieraziz. Zer adierazi nahi duten eskularruz estaliriko eskuek, giza akatsen kutsaduratik garbi eta aske dagoen sakramentuen administrazioa baino. Zer adierazten duen makilak, eman zaion artaldea arreta handiz zaintzen duela ez bada. Zer aurrean daraman gurutzeak, hau da, giza grina guztien gaineko garaipena baino. Holakoren batek galdera hauek eta antzeko beste batzuk egingo balitu, ez ote luke eramango, diot nik, bizitza triste eta larria?

Baina bitartean bederen ederto jokatzen dute, euren buruak bazkatzen dituztelako. Horrez gainetik, ardien ardura Kristori berari uzten diote edo, bestela, *anaiak* deitzen dietenei edo bikarioei lagatzen diete. Ez dute gogoratzen ez euren izena, ez *Gotzain* hitzak zer esan nahi duen, hau da: lana, jagole izatea eta ardura ekartzen dituela gogora. Diruak harrapatzeko orduan, ordea, benetako gotzain247 agertzen dira, etekinik gabe inolako zainketarik egiten ez dutelarik.

LVIII

Kardinaleek modu berean izan beharko lukete gogoan apostoluen ondorengotza eurek dutela eta, beraz, haiek erakutsi zituzten zindotasunak eskatzen zaizkiela eurei ere. Hortaz, ez direla ondasun izpiritualen jabe, administrari baino eta laster horien guztien kontu zehatzak eman beharko dituztela. Dena dela, gurtzaldietan filosofatu beharko lukete pitintxo bat bederen eta euren baitan modu honetan hausnartu: Nire jantziaren zuritasun distiratsu honek, zer esan nahi ote du? Ez ote da nire bizitzaren bihotz-garbitasunik goren eta goresgarrienaren ezaugarri? Eta barruko aldeko purpurak, zer? Ez al du adierazi nahi Jainkoarenganako maitasun gartsua? Eta zer kanpoko aldeko kapak, bere edukiera bihurgunetsuarekin gure Guztiz Agurgarriaren mando osoa inguratzeko ez ezik mandoaz gain gamelua bera ere

estaltzeko gai izateraino hedatzen denak? Ez al du adierazten guzti-guztiak babesteko luze eta zabal hedatzen den karitatea, hau da: irakasteko, aholkatzeko, lasaitzeko, lotsak emateko, zentzarazteko, gerretan bitartekari egiteko, agintari gaiztoen aurrean gogor eutsi eta bere kristau-taldearen onerako ondasunak ez ezen odola bera ere pozarren eskaintzeko.

Nahiz eta azken batean, txiro ziren apostoluen ordezko direnek zertarako behar dituzte ondasunak? Ongi aztertuko balituzte gauza hauek guztiak, ez lukete, diot nik, postu horren gutiziarik izango eta pozarren utziko lituzkete bertan behera edo, bestela, neke eta arduraz beteriko bizitza eramango lukete, apostoluek antzina bizi ziren antzera.

LIX

Orain Kristoren ordezko diren pontifize gorenak, baldin haren bizitza, hau da: txirotasuna, nekeak, doktrina, gurutzea, munduaren gutxiespena, imitatzen saiatuko balira eta pentsatuko balute *Aita* hau da: bere aita-izenean eta *guztiz santua* bere abizenean, zer egongo litzateke lurrean hori baino atsekabetsuagorik? Nork erosiko luke postu hori bere ahalmen guztiez baliatuz: eta erosi ondoren, nork defendatuko luke ezpata, pozoin eta beste edozein bortxakeriaz? Jakituria, hauen buruetara behin bakarrik helduko balitz, zenbat eta zenbat erosotasun ez lieke kenduko? Jakituria, esan al dut? Hobe esango banu Kristok aipatzen duen gatz-puska hura248. Hainbat ondasun, hainbat ohore, hainbat ahalmen, hainbat garaipen, zenbat kargu, zenbat onura, zenbat zerga, zenbat indulgentzia, hainbat eta hainbat zaldi, mando eta zerbitzari, zenbat plazer ez lituzkete galduko. Ikusten duzue zenbat salerosketa, zenbat uzta, nolako ondasun-itsasoa laburbildu dudan hitz gutxitan. Horien ordez beste hauek sartuko lituzke gure jakituriak: lorik gabeko gauak, barauak, negar-malkoak, errezuak, predikuak, ikasketak, hasperenak eta antzeko beste milaka eta milaka neke. Baina ez da komeni ahanzterik horrekin guztiarekin zer gertatuko litzatekeen: hainbat eta hainbat eskribau, kopista, notari, abokatu, eragile, idazkari, mandazain, zaltzain, bankari, lupar, hitz zantarrago bat ere esatear egon naiz, baina beldur naiz zuen belarrietarako gogorregia ez den izango.

Hau da, gizaki-mordo ikaragarri bat, Erromako Aulki Gorenarentzat zama handia dena, barka nazazue erratu egin naiz-eta, fama handia249 esan nahi nuelako, gosez hiltzera beharturik egongo litzatekeela, hain zuzen ere. Hau, egia esan, bidegabekeria bihotzgogor eta gorrotagarria izango litzateke, baina asko ere gaitzesgarriago litzateke zorroa eta makila hartzeko deia berriro egitea elizako printze goren eta munduaren egiazko argiei eurei ere. Baina momentuz bederen, neketsurik ezer badago, hori ia-ia guztia Pedro eta Pauloren eskuetan uzten da, astia behintzat ugari den beste baitute. Ostera ospe eta atsegindun ezer dagoenean, hori eurentzat hartzen dute. Eta horrela gertatzen da, neure eraginez nola ez, kasik-kasik egon ere ez dagoela hauek baino emeago eta axolagabeago bizi den giza kastarik, Kristo oso pozik geratzen dela uste dutelako baldin apaindura mistiko eta ia-ia antzezteko egokiak jantzita, zeremonia ederrak ospaturik, aita dohatsu, berori eta aita santu izenak erabilita eta bedeinkapenak eta madarikapenak nonahi banaturik betetzen badute euren gotzain-zeregina. Mirariak egitea, antzinako kontu zaharkituak direla uste dute eta inola ere ez guk orain bizi ditugun denboratakoak; herriari irakastea, neketsua; idazti deunak ulertaraztea, eskolastikoen gauza; otoitz egitea, alferrekoa; negar egitea, gaixoen eta emakumeen gauza; txiro izatea, higuingarria; gainditua izatea, lotsagarria eta desegokia bere oin sakratuetan musu ematen erregerik handienei ere uzten ez dien batentzat; eta hiltzea, zer esanik ez, desatsegina; eta gurutzean jarria izatea, zitalkeria galanta. Gelditzen zaizkien arma bakarrak, bada, Paulok250 aipatzen dituen bedeinkapen gozoak eta eurek hain oparo banatzen dituzten beste zer hauek dira: debekuak, esekipenak, gaizkoadurak, anatemak, mendeku-pinturak251 eta hilkorren arimak infernuak baino harago oraindik mehatxu hutsarekin jaurtikitzen dituen oinaztu beldurrikaragarri hura.

Kristorengan aita txit santuek eta Kristoren bikarioek, hala ere, Pedroren ondarea, deabruak zirikatuta, urritzen eta hortzikatzen saiatzen direnen kontra jaurtikitzen dute zigor hori garratzen eta berdeen. Pedroren ahotsak Ebanjelioan dio: *Dena utzi dugu bertan behera eta jarraitu egin dizugu*252, eta aita santuek ulertzen dute Pedroren ondare hori soroak, etxaldeak, errentak, iragan-sariak eta jaurerriak direla. Beraz, Kristoren garra bihotzean pizturik, ezpataz eta adoreaz burrukatzen dira ondasun hauen defentsan, Kristau odol asko isurita eta usterik orduantxe defendatzen dutela eliza, Kristoren emaztea, apostoluen antzera, hau da: etsaiak, horrela deitzen baitiete, atzera gogorki botata. Elizaren etsai kaltegarriagorik egongo balitz legez pontifize donge eurak baino, hauei zor baitzaie Kristo isilean desagertzea, euren legeekin kateatzea, interpretazio bortxatuekin faltsutzea eta bizitza kirastuaz hondatzea. Gehiago oraindik, Kristau eliza odolaz eraikia, odolaz sendatua eta odolaz hedatua izan zenez, bereak bere erara babesten zituen Kristo orain hilda balego legez, pontifize hauek ezpataren indarrez daramazkite arazoak. Eta gerra, hau guztia izan arren, hots: gizakiei baino basapiztiei hobeto doakien gauza zeharo ikaragarria, poetek Furien asmakizuntzat jotzeraino horren besteko erokeria, ohitura guztiak usteltzea berarekin dakarren izurritea, ondoen zuzentzen dutenak lapurrik handienak izateko besteko bidegabekeria, Kristorekin inolako zerikusirik ez duen gauza guztiz dongea, aita santuek, hala ere, gauza guztiak uzten dituzte horixe bakarrik egiteko. Eta beraz, agure zaharrak ikus ditzakegu253 gazte baten adore kementsua erakusten, gastuen kontuen ardurarik hartu gabe, ahaleginik handienek ere nekatu gabe eta ezerk ere desbideratu gabe ari direla jokatzen legeak, erlijioa, bakea zein edozein giza arazo goitik beheraino nahastu behar dutenean.

Eta ez dira inoiz faltatzen sanotasun-falta nabari hau, jainko-gar, eraspen eta kementzat hartzen duten eskola handiko lausengariak eta, gainera, itxura ematen dute posible dela arma hilgarri bat hartu eta bere anaiari erraietan sartzen dionak, bere hurkoari, Kristoren aginduz, zor dion maitasun goitar hura bere baitan edukitzea.

LX

Egia esan, ez nago ziur oraindik arlo honetan ikasbidea eman dutenak nortzuk izan diren, aita santuak ala behar bada apezpiku germaniar batzuk, zeren hauek, egia garbia esanda, gurtzapenak ahantzi, bedeinkapenak eta antzeko gainerako zeremoniak alde batera utzi-eta satrapen pare bizi direlako, usterik apezpiku batentzat ia-ia koldarkeria eta dedu gutxiko gauza dela bere arima kementsua Jainkoari burruka-tokia ez den beste nonnahi ematea. Ondorioz, apaiz xeheek uste dute ez zaiela zilegi euren zuzendarien santutasuna okertzea eta ikustekoa da nolako militar itxuraz egiten duten burrukan hamarrenak eta hasikinak hartzeko eskubidearen alde ezpata, azkon, harri eta armen bortxa guztiarekin: zein zorrotz erabiltzen dituzten begiak ea antzinako idazkietan aurkitzen duten baliozko ezer jende xehea beldurtu eta hamarrenak baino zerbait gehiago ordaindu behar dutela sinestarazteko. Baina, horien bila ari diren bitartean, eurek herriari euren aldetik zor dizkioten zerbitzuei buruz nonahi irakurtzen dituzten pasarteetan ez dute erreparatu ere egiten. Kaskogain moztua bera ere ez zaie aski gogora ekartzeko apaizak mundu honetako grina guztietatik aske egon behar direla eta zeruko gauzak baino ez dituztela gogoan izan behar.

Baina gizon atsegin hauek esaten dute euren betebeharra ongi baino hobeki betetzen dutela euren errezutxoak ahapeka edozelan eta edonon esanda; harriturik benetan geratuko nintzateke, ene Herkules!, baldin entzun edo ulertzen dien Jainkoren bat balego, ia-ia eurek ere ez baitituzte ez entzuten ez ulertzen ez-eta ahozabalka esaten diztuztenean ere. Apaizek, egia, gauza komun bat dute sekularrekin, hau da: ordainsarien uzta jagoten dutela eta arlo horretako legeak guztiek ezagutzen dituztela. Beste gauzetan, ordea, kargaren bat dagoenean, albokoaren lepora botatzen dute zuhurki eta horrek hurrengoari pasatzen dio eskuz esku pilota bat bailitzan. Printze sekularrek erresumako administrazioaren zati bat bikarioengan eskuordetzen duten eta bikario horrek beste bikario bati ematen dion modu berean, apaizek ere, apaltasunaren eraginez, herri xehearen eskuetan uzten dute jainko-zaletasunarekiko ardura osoa. Herri xeheak bere aldetik *elizgizonak* deitzen zaienen ardurapean uzten du, berak elizarekin inolako harremanik izango ez balu bezala eta bataioko zin-hitzekin ezertxo ere burutu ez balitz legez. Munduko gauzetan, eta ez Kristorenetan, trebeak direlako-edo *sekularrak* euren buruei deitzen dieten apaizek, ordea, pisu hau araupeko apaizei bihurtzen diete; araupekoek lekaideei; lekaide irekiagoek estuagoei; hauek guztiek eskatzaileei; eskatzaileek kartuxariei, jainko-zaletasuna hauexen baitan baino ez baitago estalirik, baina hauengan ere halako eran dago estalirik non ia-ia inon ere ikusten ez den. Hauen antzera, pontifizeek ere, diru-bilketan ardura handikoak diren arren, gotzainen esku uzten dituzte beste lan apostolikoegi horiek, gotzainek artzainengan, artzainek bikarioengan eta bikarioek anaia eskatzaileengan. Hauek, aldiz, ardiei ilea mozten dietenen esku uzten dute arazoa. Baina nire asmoa ez da pontifizeen eta apaizen bizitzan arakatzea, baten batek uste izan ez dezan satira bat irazki nahian ari naizela eta ez gorespen bat egiten, edo norbaitek pentsa ez dezan printze onak kritikatzen ditudala eta txarrak laudatu.

Dena dela, gai hauek ukitu ditut labur-labur baino ez bada ere, begibistan uzteko hilkorretariko inor ere ezingo dela lasai bizi nire gurtzapenean aditua eta neure begikoa ez bada.

LXI

Baina nola gerta daiteke Rhamnunteko jainkosa bera, giza arazoetan zortea ematen duen jainkosa254, nirekin bat etortzea beti jakintsu horien etsairik handiena izateraino?; eta tentelei, aldiz, lotan daudenean ere, mesede guztiak ematea? Zuok denok ongi ezagutzen duzue Timoteo hura, lotan dagoenean ere horren sareak beretzat batzen du izena eta esakunea bereganatu zituena. Eta baita beste hura ere: Ontzuria zuri beltza. Jakintsuei,

ordea, ongi datozkie beste hauek: izar gaiztoaren azpian jaio da, eta Sejasko zaldia du edo Tolosako urrea255.

Baina esaera zaharrak jartzeari utzi behar diot, gerta ez dadin norbaitek uste izatea Erasmo aspaldiko ene lagun onaren erraizunak plagiatzen ari naizela256. Baina harira itzulirik, Zoriak zentzu gutxikoak maite ditu, ausartenak eta hazia ereinda dago esaera maite dutenak. Jakituriak, aldiz, beldurti bihurtzen ditu gizakiak eta beraz, ikusten duzue jakintsu hauek gehienetan nola duten zerikusia txirotasun, gose eta kearekin eta zeharo ahantzirik, entzuterik gabe eta gaizki ikusiak izanik bizi direla: kokoloek, ostera, edozenbat diru dutela, Errepublikako aginte-postuera eramaten dituztela, hitz gutxitan era guztietako lorez beterik jantzita agertzen direla. Izan ere, baten batek uste baldin badu benetako zoriona printze entzutetsuen artean ongi ikusia izatean datzala eta harri bitxiz beteriko ene jainko horien artean bizitza iragatean, zer alferrekoagorik jakituria baino; gehiago oraindik, gizaki-kasta honentzako zer egon daiteke gaitzesgarriagorik?
Aberastasunak bildu beharra baldin bada arazoa, ze irabazi aterako du tratalari batek jakituriari kasu eginda, zin-hausteak min ematen badio, gezurrean harrapatuta gorritzen denean, lapurreta eta lukurreriaren aurrean jakintsuek sentitzen dituzten kezka larriak izan ezta ere pitin bat bederen sentitzen badu. Bestalde, norbaitek eliz ohoreak eta aberastasunak lortu nahi baditu, astoa eta idia bera ere jakintsua baino lehenago iritsiko dira. Plazerra bada erakartzen zaituena, neska gazteak, ipuin-mota honetako protagonista nagusiak hain zuzen, bihotz barru-barrutik liluratzen dira inozoekin, baina jakintsuei, aldiz, lupuari baino izu handiagoa dietenez ihes egiten diete. Dena dela, pixka bat alai eta pozik bizi nahi duenak, lehenengo eta behin jakintsua baztertzen du eta hura baino lehenago beste edozein bizidun onartzen. Hitz gutxitan esanda, nonahira joaten zaren, pontifize zein printzearengana, epaile zein magistratuarengana, adiskide zein arerioarengana, goiko zein behekoarengana, guztia konpontzen da dirua bitarte: eta jakintsuak dirua mesprezatu egiten duenez, mundu guztiak du horiengandik batere erreparorik gabe alde egiteko ohitura. Baina nire laudorioen kontuak ez neurririk ez amairik ez duen arren, hala ere beharrezko da hitzaldiari noizbait muga jartzea. Isilduko natzaizue, bada; baina ez, hala ere, lehenago labur-labur frogatu gabe idazle handiak badaudela beren idazkiekin, eta ekintzekin eurekin ere, omendu nautenak, gerta ez dadin norbaitek uste izatea mamala tuntuna naizela-eta neure buruarentzat baino ez naizela gustuko, edo legezorriek kalumniaz josten nautela esanik ez dudala inolako frogarik ekartzen. Beraz, frogak euren ereduari kasu eginda ekarriko ditut, hau da: aukerako bat ere ez.

LXII

Denek onartzen dute printzipiotzat esaera zahar ezagun hura, *Zerbait ez dugunean, itxura egitea da onena*. Horrexegatik irakasten zaie haurrei arrazoi osoz bertset hau: *Zuhurtzia handia adierazten da, dagokion lekuan ero-itxura eginda*257. Zeuok jabetzen zarete, bada, nolako ondasuna den Eromena, bere itxurazko itzalak eta imitazio hutsak jakintsuen aldetik hainbeste laudorio merezi duenean. Baina asko ere zintzotasun gehiagorekin agertzen da Epikuroren urdaldeko zerri gizen eta guri hura258 *eromena zentzutasunarekin nahastekatzeko* aholkatzen duenean259, *pitintxo bat* izanda ere, baina azken hau gehitzeaz eskola gutxiago erakusten du. Era berean beste toki batean esaten du *Ederra da dagokion lekuan burua galtzea*260 eta beste leku batean berriz dio *hobe da jakintsu eta purrustaritzat baino arraro eta estrainiotzat agertu*261. Homerorengan jadanik, Poetak era guztietara goraltzen duen Telemakori sarri deitzen diote kokolotxoa eta gauza bera ezartzen diete tragikoek haurrei eta neskato-mutikoei ere, hori seinale ontzat hartua dagoelako. Azken batean Iliadaren olerki sakratuak zer dakar besterik errege eta herri eroen haserreak baino? Bestalde, zein erabatekoa Zizeronen laudorio hura, mundu guztia eroz beterik dagoela dioenean?262. Nork ez daki, bada, edozein ondasun zenbat eta hedatuago egon hainbat bikainagoa denik?

Baina hauek agian begirune gutxi izango dute kristauen artean. Haba ditzagun, bada, gure laudorioak, ongi baderitzazue, eskritura sakratuetako testigantzetan edo, eskolatuek esanen luketen bezala, oinarri gaitezen eskrituretan; baina hasteko aldez aurreko baimena eskatzen diegu teologoei, opa diezaguten egiteko hau bidezko gertatzea; gero, arazo neketsu bati aurre egin behar diogunez eta agian ausartegia izanik musei Helikonera263 berriz deitu eta hain bide luzea egiteko eskatzea, nahiko urrutitik bizi duten arazo batengatik propio, behar bada egokiago izango litzateke beste gauza bat: teologo-papera betetzen arituko naizenez eta arantzadi horietan sartzen naizen bitartean, hobe Eskotoren arima bere Sorbonatik, arantzurdeak eta kirikinoak baino arantza biziagoak dituen arren, nire bularretara aldatuko balitz apur batean eta gero nahi duen tokira itzuli, deabruenera ere nahi badu. Hobe beste aurpegi bat hartzeko gai izango banintz eta teologo-itxuraz jantzi. Baina beldur naiz lapurreta baten errudun ez nauten egingo esanik teologiaz oso jantzirik nagoela *gure Maisuen* dokumentu-kutxa isilean ostu dudalako. Baina ez litzateke horren harritzekoa izan behar teologoen zerbaitekin gelditzea, eurekin izan dudan harreman luzea eta estua kontutan izanez gero, zeren bikondoan landuriko Priapo jainko hark ere, bere ugazaba hitz grekoak irakurtzen ari zela, batzuk kontuan hartu eta ahantzi gabe izan zituelako264. Luzianoren oilarrak ere, gizakiekin luzaroan bizi izan zenez, giza hizkuntza trebetasun paragabeaz erabiltzen ikasi zuen. Baina etor gaitezen gaira zori onean, txoriek lagun ditugula.

Eklesiastesek bere lehenengo kapituluan dio: *Eroen kopurua kontaezina da*. Kopuru kontaezina aldarrikatzen duenean ez ote ditu hilkor guztiak hartzen, gutxi batzuk kenduta eta hain gutxi non ez dakidan inork euretariko bat ere inoiz ikusi duen? Baina Jeremiasek hau argiago aitortzen du *10. kapituluan* esaten duenean *Gizaki guztiak, jakituriak egin ditu ero*. Jakituria Jainkoari bakarrik ematen dio, eromena gizaki guztientzat utzirik. Eta, halaber, pixka bat gorago: *ez bedi gizakia bere jakituriaz harrotu*265. Zergatik ez duzu nahi, Jeremias zintzo, gizakia bere jakituriaz harro dadin? Argi eta garbi dago, erantzungo luke, gizakiak jakituriarik ez duelako. Baina itzul gaitezen Eklesiastesera. Honek oihu egiten duenean266, *Hutsalkerien hutsalkeria eta den-dena hutsalkeria*, zer besterik pentsatzen duela uste duzue, giza bizitza, lehenago esan dugun moduan, Eromenaren jaialdi bat baino ez dela izan ezik? Horrekin, jakina, onespena eman nahi dio Zizeronek egiten didan laudorioari, horrenbeste aipamen merezi izandako eta guk oraintsu aitatutako esaldiaren bitartez: *Guztia dago eroz beterik*. Bestalde, zera dio Eklesiastiko jakintsuak:267: *Eroa Ilargia bezala aldatzen da, jakintsuak, ordea, Eguzkiak bezala dirau* esan zuenean, eta hori esatean zer esan nahi zuen hau baino, hilkorren jeneroa eroa dela eta Jainkoari bakarrik dagokiola *jakintsu* izena? Izan ere, zilegiro har daiteke Ilargia giza izaeratzat eta Eguzkia, argi guztien iturria, jainkotzat. Honekin bat dator Kristok berak ebanjelioan dioena268, hots: beste inori ezin zaio on deitu, Jainkoari baino. Beraz, eroa baldin bada jakintsua ez dena eta estoikoen arabera ona dena jakintsua ere baldin bada, argi dago derrigorra dena Eromenak hilkor guztiak bere baitan hartzea.

Salomonek *15. kapituluan* berriz dio *Eromena poza da eroarentzat* eta ez dago dudarik honekin argiro aitortzen duela eromenik gabe bizitzan ez dagoela ezer atseginik. Gauza bera adierazten du beste honek ere: *Zientzia hartzen duenak, mina hartzen du, eta sentiberatasun handian atsekabe handiak daude*269. Eta aitorpen bera ez al du egiten predikari ospetsu hark *7. kapituluan: Jakintsuen bihotza, tristura dagoen tokia, eroen bihotza, poza dagoena* esaten duenean? Horrexegatik ez zuen nahiko izan jakituria sakonki antzemateaz, geu ezagutzen ere saiatu zelako. Eta niri sinesten ez badidazue, entzun itzazue *1. kapituluan* idatzita utzi zituen hitzak: *Oso-osorik eman nion ene*

bihotza zuhurtzia eta doktrina, eta erroreak eta eromena ikasteari. Puntu honetan komeni da kontutan hartzea eromena azkenengo tokian jartzea nire alde dagoela.

Eklesiastesek dio eta zuok ondo dakizue ordena eklesiastikoak karguan lehena dena azkenengo tokian joatea eskatzen duela eta hori, gainera, ebanjelioko aginduen arabera270. Baina Eromena, Jakituria baino garrantzitsuagoa dela eklesiastikoak ere, dena-den, gardenki aitortzen du *44. kapituluan*; baina, ene Herkules!, ez ditut bere hitzak aipatuko zuok lehenago laguntza ematen ez badiozue ene indukzioari erantzun egoki baten bidez, Sokratesekin hizketan ari direnek Platonengan egiten duten bezala. Zer komeni da, bada, gehiago, gauza ederrak eta urriak gordetzea ala arruntak eta gaitzesgarriak? Zergatik geratzen zarete isilik? Erantzungabearena egiten baduzue ere, greziarren atsotitz hark erantzungo du zuon ordez: pegarra ate ondoan, eta ez dezala adeigabeko inork ukatu Aristoteles berarena baita gure maisuek jainkotzat duten horrena.271. Ala zuotarikoren bat, bitxiak eta urrea kale erdian uzteko bezain eroa al da?; ez dut uste, Herkules arren!

Gauza horiek tokirik ezkutuenetan, eta hori aski ez dela-eta, zulorik isilenetako kutxa oso ondo zainduetan gordetzen dituzue; zarama, aldiz, kalean botata uzten. Beraz, balio handiko gauzak ondo gordetzen baldin badira eta gaitzesgarriak agerian uzten, ez al dago argi ezkutatzea galarazten duen jakituria gaitzesgarriago dela ezkutuan eduki behar dela esaten duen eromena baino. Hona hemen bere testigantzaren hitzak: *Bere eromena ezkutatzen duen gizakia hobea da, bere jakituria ezkutatzen duena baino*272. Gehiago, jainkozko eskriturek ere izpiritu-zintzotasuna aitortzen diote eroari; jakintsuak, aldiz, uste du bere pareko inor ez dagoela. Eklesiastesek *10. kapituluan* dioena nik honela ulertzen dut: *Baina eroak, ezjakina denez, uste du eroak direla kalean aurkitzen dituen denak*. Eta ez al da benetan zintzotasun paregabearen seinale uste izatea guztiak direla norbera bezalakoak, inork ez duelako bere buruaren iritzi txarrik, eta norbere buruaren laudorioak gizaki guztiekin banatzea? Horrexegatik ez zen lotsatu ero deitura horrekin errege handi hura bere buruagatik idatzi zuenean *30. kapituluan: Gizakietatik eroena neu naiz*273. Ez Paulo jentilen doktoreak ere ez zuen erdainatu *ero* deitura, korintoarrei idatzi zienean274,

esan baitzuen: *ezjakin gisa, eta ni besteak baino handiagoa naiz gainera, diot,* beste nonbait, eromenean, norbera baino gehiago izatea, lotsagarria izango balitz moduan. Baina hara non datorzkidan belatxingen begiak lehertzen iharduten duten grekozale horietakoak, gure belaunaldiko hainbat eta hainbat teologo bezala, euren argitasunekin gainerakoen begietan kea baino ez baitute zabaltzen275. Talde honetako ene Erasmo adiskidea, bere ohorea arren hain sarri aipatzen dudana, Alpha ez bada ere, Beta bederen bada.

Benetan aipamen eroa, diote, MORIAri zinez dagokiona. Baina apostoluaren pentsamendua, ez da zuk uste duzun bezalakoa! Hitz hauekin ez du esan nahi bera gainerakoak baino eroagotzat hartu behar denik, baizik berak esan zuen moduan: *Kristoren ministroak direla; eta neu ere*: puntu honetan bere burua gainerakoen pare jarriz harrotasun-itxurarekin eta gero gehitu zuen: *eta ni gainera gehiago* bera ebanjelioaren ministrotzan sentitzen zelako ez beste apostoluen pare, zerbait gehiago baizik. Baieztapen hau egiazkoa izatea nahi zuenez, baina ez, ordea, harrotasun larregi erabilita inoren belarriak mintzerik, eromenaren aitzakiak ipini zituen. *Jakituria gutxirekin diot*; ondo baitzekien egia jendaurrean minik egin gabe esatea inozoen pribilegioa dela. Baina Paulok hau idatzi zuenean zer sentitu zuen jakitea, eurek eztabaida dezaten utziko dut. Nik, neure aldetik, teologo handi, lodi, guri eta herriak guztiz onartuei egingo diet kasu, doktoreen gehiengoak, Jupiter arren nahiago baitute hauekin batera tronpatzea, jakintsu elehirudunekin batera egian egotea baino276. Doktore hauetariko batek ere ez ditu grekozale hauek erroiak baino gehiago estimatzen277; kontutan izanik batez ere teologo ospetsu batek, (eta bere izena zuhurtziaz isildu nahi dut gertatu ez dadin gure erroitxoek bere kontra liradun astoa iseka hura zapla botatzea) pasarte hau maisutasunez eta teologotasunez azaltzen duela.

Abiapuntua hurrengo honetan harturik: *Jakituria gutxirekin diot, eta nik gehiago gainera* kapitulu berri bat idazten du, gorengo dialektikarik gabe ezin izango zuena, esaldia honako eran ulerturik:

bere hitzak ekarriko ditut, baina ez zentzuan bakarrik, materialki baino. *Jakituria gutxirekin diot, hau da, neure burua sasi-apostoluen pare jartzearren ezjakintzat hartzen banauzue, jakituria gutxiagokoa iruditukо natzaizue euren gainetik jartzen naizenean*. Baina handik gutxira, guztia ahantzi duen baten antzera, beste gai batera ihes egiten du.

LXIV

Baina zergatik hartzen dut kontutan bakar baten adibidea antsiaz beterik?, teologoen eskubide onartua denean zerua bera, hau da, jainkozko eskritura larrua bezala tiraka luzatzea: Paulo donearen arabera, adibidez, elkarren kontra daude jainkozko eskriturako berbak, nahiz eta originalean egon ez, Jeronimo elebostunari 279 kasu egiten badio bederen; honek Atenasen ustekabean ikusi zuen aldare bateko inskripzioa fede kristauaren argumentutzat erabili nahi izan zuen eta bere helbururako kentzea komeni zitzaion guztia alde batera utzita azkenengo bi hitzak hartu zituen, hauek hain zuzen: JAINKO EZEZAGUNARI; eta hauek ere pitin bat aldatu zituen esaldi osoak hau esaten baitzuen: ASIA, EUROPA ETA AFRIKAKO JAINKOEI; JAINKO EZEZAGUN ETA ATZERRITARREI. Eredu honi jarrai, uste dut, orain nonahi teologoen haurrek han eta hemen lauzpabost hitzar bilatu eta behar bada zentzua aldatuta, beren aldera egokitzen dituzte nahiz eta aurreko ez osteko hitzek arazoarekin inolako zerikusirik izan ez edo kontrakoak izan.

Gainera hau guztia hain lotsabagekeria zoriontsuarekin egiten dute, non legegizon askok teologoen inbidia duten. Gerta ez daitekeen zer egon daiteke, bada, horien artean jada, maisu handi hark280 (bere izena ia-ia berriro ere atera izan zait, baina greziarren esaera zaharraren beldur nahiz orain ere) Kristoren asmotik ura eta sua dauden bezain hur zegoen pentsamendua Lukasen esanetatik atera zuenetik281. Gauza da, arrisku handia dagoenean, bezero onek ugazabengana gehien jotzen duten unea dela hain zuzen, ahalik eta indar gehienarekin eurekin batera burrukatzen dutela; baina bere jarraitzaileek laguntza hauetan duten konfidantza bihotzetatik kentzeko asmoz, Kristok behin galdetu ziela ea inon ezer falta izan zitzaien berak hornidurarik gabe, arantza eta harrietatik babesteko oinetakorik gabe eta gosea kentzeko zorrorik gabe, bidaiatzera bidali zituenean. Eta erantzun ziotenean ezer ere ez zitzaiela falta izan, gehitu zuen: *Bada orain, esan zuen, zaku bat duenak utz beza eta gauza bera egin beza zorroarekin ere; eta ez duenak sal beza bere tunika eta eros beza ezpata bat*. Kristoren doktrina guztia, beste ezer baino gehiago otzantasuna, jasanberatasuna eta biziaren gutxiespena sarrarazten saiatzen denez, nork ez du ikusten argi, zein den pasarte honen esanahia? Bere ordezkoak desarmatzea alegia, ez bakarrik ez dezaten oinetakoen eta zorroaren ardurarik izan, baizik eta tunika ere kendu eta ebanjelio-lanari biluzik eta guztiz aske emateko; ez hornitzeko ezertaz ere, ezpata izan ezik, baina ez lapurrek eta hiltzaileek euren mehatxuetarako erabiltzen duten ezpata-mota, baizik izpirituaren ezpata bularraren zulo ezkutueneraino sartzen dena eta lotura guztiak ebaki bakar batekin kentzen dituena, era horretan bihotzean urrikitik kanpo beste ezer ere gera ez dadin.

Baina ikus ezazue, arren eskatzen dizuet, teologo ospetsu hark nola aldatu duen guztia: ezpata, jazarkundearen kontrako defentsatzat ulertzen du, eta zakutoa jateko-hornidura nahikotzat, Kristok ideiak aldatu dituen moduan, eta gutxi erregeen antz gutxirekin horniturik bere predikariak bidali dituela sinetsirik aurreko xedapenak jan nahi balitu bezala. Edo lehenago esandako guztia ahantzi balu bezala, hau da: zoriontsuak izango zirela laidoak, irainak eta oinazeak283 jasaten dituztenak, tratu txarrei kontraeusteko debekuarekin, zoriontsuak otzanak direlako eta ez bortitzak; txorien eta lilien eredua jarraitzeko deia egin zuela ahantzirik edo, orain ezpatarik gabe bidaltzeko gogorik izan ez eta ezpata erosteko agindua eman balie bezala nahiz eta tunika bera ere saldu beharra

izan, eta armarik gabe baino biluzik joatea nahiago balu legez. Eta ezpata izenaren baitan erasoa atzera botatzeko behar den guztia sartzen dela uste duen modu berean zorro hitzak ere bizitzako premiekin zerikusi duen guztia adierazi nahi duela dio. Eta horrela, jainkoaren borondatearen interpretatzaile bere burua eginik, apostoluak lantza, balezta, habaila eta bonbardaz horniturik bidaltzen ditu gurutzeratuaren alde predikatzera. Otzara, maleta eta bagaiaz horniturik ere joanarazten die, babestokitik baraurik irten beharrik izan ez dezaten, zalantzarik gabe. Gure gizona ez du zalantzan jartzen ahalegin itzela ipinita erosteko agindu zuen ezpata, berehala, agirika eginaz, zorroratzeko eskatzeak ere285; eta inoiz ez da bidezko den zerbait bezala entzun apostoluek jentilen bortxakeriaren aurrean ezpatak eta ezkutuak erabili dituztenik, eta erabiliko zituzten, baldin Kristok hauek interpretatzen duten moduan sentitu izan balu.

Badago beste bat ere286, ospearen arabera azkenengoetarikoa ez dena, baina bere ohoreagatik izenik emango ez dudana, Habakukek aipatzen dituen kanpadendetatik: *Larruak Madiango lurrean nahasiko dira*287 larrutua izan zen Bartolomeren larruaren aipamena egiten duena. Eta duela gutxi egon nintzen eztabaida teologiko bat ikusten, sarri egiten dudan gauza; han, baten batek hereseak eztabaidaren bidez irabazi beharrean suaz menperatzera baimentzen zuen jainkozko eskriturako pasartea zein zen esateko eskatzen zuen; agure garratz batek, betartearen itxuratik teologoa zena, haserre bizian erantzun zion lege hori Paulok eman zuela, hau esan zuenean: *Itzur zakizkiote hereseari, lehenengo eta bigarren zentzaldia egin ondoren*288. Hitz hauek trumoiaren pareko hotsekin etengabe errepikatzen zituenez, gehienak, harriturik, gizon hari zer gertatzen zitzaion galdezka hasi zirenean, azkenean azaldu zuen hereseari *bizia* kendu behar zitzaiola289. Batzuek barre egin zuten, baina hala ere han ez ziren falta izan iruzkin hau oso-osorik teologiarena zela uste zutenak eta, bestalde, batzuk hitz egiteko eskatzen etengabe ari zirenez, abokatu tenediar 290 deitu horietako autore jarkiezin bat jaiki zen hitz egitera. Entzun iezadazue, esan zuen, idatzirik dago: *Ez ezazue jasan dongeak bizirik segi dezan*291. Herese guztiak dongeak dira; beraz e.a. Zur eta harri geratu ziren han zeuden guztiak gure gizonaren agudeziaz eta mundu guztia bere iritziaren aldera joan zen oin, abarka eta guzti292.

Baina inori ere ez zitzaion burura etorri lege hori sorgin, belagile eta aztiei zegokiela, hebraitarrek deitzen diotenei, bestela lizunkeria eta hordikeria ere heriotzarekin zigortu beharko lirateke.

LXV

Egia esan, tentel tuntun baten pare jokatzen ari naiz, Krisipo293 eta Didimoren294 bolumen guztietan ere ez sartzeko beste adibide jarrita. Baina jakinarazi nahi nizuen ezen, maisu jainkotutako horiek lizentzia hauek hartzeko baimena baldin badute, bidezko dela ni ere teologo eskas naizen arren onartzea, aipamenak zehaztasun handiarekin eginda ez badaude ere. Orain, bada Paulorengana nator berriro295 berari buruz hitz egiten ari zela esan baitzuen: *Atseginez jasaten dituzue ezjakinak*. Eta beste behin: *Har nazazue ezjakin baten antzera*. Eta, *Ez dut hitz egiten Jainkoaren arabera, ia-ia ezjakin baten moduan baino*. Beste toki batean berriro dio: *Gu, Kristogatik eroak*.

Entzun duzue autore hain handi horrek nolako gorespenak egiten dituen eromenari buruz. Eta zer eritzi behar diogu argi eta garbi, beste edozer baino beharrezkoagoa eta guztiz eraginkorra dela esateraino hain zuen, Eromenaren alde agertzen denean. *Zuon artean jakintsutzat hartua dena, egin dezala bere burua ero jakintsu izan dadin*. Eta Lukasen liburuan296, bidean elkartu ziren bi ikasleri Jesusek *eroak* deitzen die. Ez dakit honekin harritu behar garen, Paulo doneak Jainkoari berari ere erotasun pitin bat ezartzen baitio esanez: *Jainkoarentzat eromena dena gizakientzat jakituria baino gehiago da*. Dena dela, Origenesek297, pasarte hau interpretatzean esaten du erotasun hau ezin dela gizakien iritziekin erkatu, adibidez honako hau dioenean: *Gurutzearen berba, egia esan, eromena da galtzen direnentzat*. Baina zergatik alferrik saiatu hainbeste testigantza ekartzen, Kristok berak salmo mistikoetan Aitari argi eta garbi esaten baitio: *Zuk ezagutzen duzu nire ezjakintasuna*298. Eta ez da, nolanahi, halabehar bat Jainkoak eroekin hainbeste atsegin izatea; hau uste dut, zentzu larregi dutenak printze handienentzat susmagarri eta gorrotagarri diren antzera dela, Julio Bruto eta Kasiorentzat izan zen moduan, (Antonio hordiaren beldurrik, ostera, ez zeukaten) edo Seneka Neronentzat edo Platon Dionisiorentzat; agudezia motzagoa eta hutsalagoa dutenekin, aldiz, pozarren ibiltzen dira. Era berean Kristok jakintsu hauek, euren zuhurtzian finkaturik daudenak, beti gaitzesten eta gutxiesten ditu; honen testigantza, eta ez iluna, Paulok ematen du, dioenean: *Jainkoak, munduan dauden gauza ero guztiak aukeratu ditu*, eta baita beste hau dioenean ere: *Jainkoari iruditu zaio mundua eromenaren bidez salbatzea* jakituriaren bidez berrerostea ezina zitzaiolako, jakina.

Gehiago oraindik, berak ematen du honetarako nahiko bide, profetaren ahotik aldarrikatzen duenean299: *Jakintsuen jakituria desagertaraziko dut eta zuhurren zuhurtzia gaitzetsiko*. Eta berriz, eskerrak ematen dituenean salbazioaren misterioa jakintsuei ezkutatu eta haurrei, hau da, eroei erakustearren. Grekoan haurrak esateko hitzgabeak esaten da, eta hauei jakintsuak kontrajarri zien. Ebanjelioko hainbat tokitan horrexegatik erasotzen die fariseuei, eskribariei eta legeen doktoreei eta herri letragabea ardura handiz defendatzen. *Ai zuok eskribari eta fariseuok*300 zer da besterik *ai zuok jakintsuok* baino? Ostera, ematen du haur, emakume eta arrantzaleekin pozarren ibiltzen zela. Gehiago, abereen artean ere Kristok azeriaren maltzurkeriatik urrutien daudenak ditu atseginen. Horrexegatik nahi izan zuen astoaren gainean joatea, nahiz eta gogoa izan balu inolako arriskurik gabe joan lehoiaren gainean ere. Eta izpiritu sakratu hura ere usoaren itxuran jaitsi zen eta ez arranoaren edo miruarenetan. Bestalde jainkozko liburuetan nonahi egiten da orein, orkatz eta bildotsen etengabeko aipamena. Gainera, bizi hilezinera deituriko bere jarraitzaileei *ardi deitzen die*. Egia esan, ez dago bizidun hauxe baino ezer ergelagorik, eta horren testigantza bildots-izaera Aristotelesen atsotitza da301: berak gogorarazten digun bezala abere honen sinplekeria kontutan izanik,

irain gisa esaten baitzen ergel eta geldoen kontra. Kristo bera ere, mota honetako artaldearen artzaintzat aitortzen da, *bildots* berari deitzeaz pozteraino, Joanek *Hona hemen Jainkoaren bildotsa* hitzekin iragarri baitzuen, eta Apokalipsian ere303 gauza bera deitzen zaio hainbat aldiz.
Adibide hauek zer oihukatzen dute besterik, hilkor guztiak, erlijiosoak barne, ero batzuk direla baino? Eta zer Kristok berak, hilkorren eromenari laguntzera etorri zenean, Aitaren jakituria izan arren ero nolabait bihurtu zenean giza izaera bereganatu eta giza itxura hartuta?, bere burua bekatu egin zuen bezala, bekatuari sendabidea ipintzeko. Eta sendabide hori, gurutzearen eromenarekin eta apostolu ezjakin eta kamutsekin baino ez zuen lortu nahi izan; eta gainera, eromena bereziki gomendatzen die, jakituriarekin kontuz ibiltzeko esaten eta haurren, lilien, ziape-haziaren eta txoriñoen eredua jarraitzera bultzatzen; hau da, burugabe eta zentzurik gabeen eredua, gidari bakartzat natura, hau da, bizitzan inolako arteriorik, ez artarik gabe baliatzen direnen jokabidea harturik. Bestalde, auzitegietan erabiliko dituzten hitzen ardurarik ez edukitzeko agintzen die eta denbora eta momentuen konturik ez izateko; hots, ez dezatela norbere adimenean konfidantzarik izan, bere eskuetan gogo osoa jarrita jokatzeko baino. Zentzu beretik doa munduaren arkitektoa den Jainkoak jakituriaren zuhaitzaren fruitua ez jateko emaniko agindua ere, zientzia zoriontasunarentzat pozoina balitz moduan. Eta Paulok, gainera, argi eta garbi arbuiatzen du zientzia, harrokeriaren iturri eta gauza kaltegarritzat joz. Bernardo doneak ere304, honixe jarrai, nik uste, hartzen du *zientziaren mendi* bezala Luziferrek bere bizilekua jarri zuen mendia. Badirudi goikoek ere eromena ongi ikusten dutela dioen argumentua, agian, ez dela ezeztea komeni, hots: bekatuak eroari baino ez zaizkiola barkatzen, jakintsuari pasatzen uzten ez zaizkion bitartean; horrexegatik, barkatzeko eskatzen dutenak eurak ere, nahiz kontzientzia osoaz bekatu egin, gero eromenaz baliatzen dira aitzakia eta babes gisa.
Aaron ere, Zenbakien liburuan ondo gogoratzen badut305;

bide hau hartuta saiatzen da bere emaztea zigorretik libratzen: *Otoi, ene Jauna, ez ezazu gure gain jar eroki egin dugun bekatu hau*. Saulek ere modu berean eskatzen dio barka Dabidi diotsonean306: *Argi dago eromenez jokatu dudala*. Beste behin Dabid bera era honetan saiatzen da Jauna baretzen307: *Baina, Jauna, zure jopuaren dongakeria barkatzeko eskatzen dizut, eroki jokatu dugu-eta* (barkamena lortu ezingo balu bezala eromena eta ezjakintasuna aitzakiatzat jarri gabe). Baina, egia esan, asko ere erabatekoagoa da Kristok, gurutzean zegoela, bere etsaien alde otoi egin zuenean, *Aita barka itzazu* beste aitzakiarik ez jartzea ezjakitearena baino: *Ez dakitelako zer egiten duten* esan baitzuen308. Era berean Paulok honela idazten zion Timoteori309: *Eta, beraz, Jainkoaren urrikalmendua irabazi dut ezjakintasunez jokatu dudalako nire sinesgogortasunean*. Zer esan nahi du, hortaz, *ezjakintasunez jokatu dut* horrek, eromenez, eta ez gaiztakeriaz, jokatu dut izan ezik? Zer da, bada, besterik *horrexegatik lortu dut urrikalmendua* eromenean babestu ez balitz ezin izango zuela lortu baino? Salmogile mistiko hura ere gure alde agertzen da, artean burutik ihes egiten zigun hura esatean: *Ez itzazu gogoan izan nire gaztaroko bekatuak eta ezjakintasunak*310. Entzun duzue zeintzuk diren jartzen dituen bi aitzakiak: bata adina, jakina, eta honen laguna neu naiz beti, eta bere ezjakintasunak, hauek kopuru handian, Eromenaren indar paregabeaz jabe gaitezen.

LXVI

Amaigabeak diren aipamenekin ez jarraitzeko eta laburbilduta esanik, ematen du kristauen erlijioak ahaidetasunen bat duela eromen-motaren batekin eta oso gutxi datorrela jakituriarekin bat. Honen aldeko argumentuak nahi baldin badituzue, kontura zaitezte, hasteko, haurrak, zaharrak, emakumeak eta ergelak direla elizkizun eta zeremonia sakratuekin beste inor baino gehiago pozten direnak,

eta, beraz, beti egoten direla aldareetatik hurrago, berezko tiramen hutsez, besterik gabe. Honez gain, ikusten duzue erlijioaren lehenengo sortzaileak, sinpletasunari beste ezeri baino lotuago zeudenak, letren etsai biziak izan zirela. Eta azkenez, ematen du burugabe batek ere ez duela inoiz egin kristau-zaletasunaren garrak kolpetik eta zeharo harrapatu dituenek egiten duten beste zorakeria: ondasunak barra-barra eman, irainak ahantzi, iruzurrak egitea jasan, adiskideen eta etsaien artean bereizpenik egin ez, plazerak gorrotatu, barau, lo galdu, malko, neke eta umiliazioz bete, bizia gutxietsi, heriotza baino desiatu ez; hitz batez ematen du zentzu komuna zeharo galdu dutela, eta arima gorputzean barik beste nonbait bizi dela. Eta hau guztia zer da burutik eginda egotea besterik? Ez da, beraz, harritzekoa apostoluak muztioz mozkortu zirela uste izatea, edo Paulo, Festoren ustez, burutik sano ez egotea311. Dena dela, behin bederen lehoiaren larruarekin jantzi garenez312, goazen urrutiago eta adieraz dezagun kristauek hainbat eta hainbat esfortzuren ondorioz lortzen duten zorion hori sanotasun-falta eta eromen-mota bat baino ez dela; ez haserretu hitz hauekin; hobe gauzari berari kasu egiten badiozue.

Hasteko kristauak gutxi gora-behera bat datoz platoniarrekin uste izatean gorputzak bere kateekin loturik duela arima bere barruan eta bere astuntasunak arimari egia hauteman eta gozatzeko ahalbidea galarazten diola. Ondorioz, filosofia definitzen du *heriotzari buruzko gogoetatzat*313, filosofiak ikusten diren gauzetatik eta gorputzezkoetatik aldentzen duelako izpiritua, heriotzak egiten duen gauza bera. Hortaz, arimak gorputzeko organoen erabilera zuzena egiten duenean, denbora horretan sano dagoela esan ohi da; baina kateak apurtu eta askatasuna lortzen saiatzen denean ia-ia gartzelatik ihesa planteatzeraino, orduan *sanotasunik eza* deitzen zaio. Gauza hau gaisotasunagatik edo organoen akatsen batengatik gertatzen denean guztien bat-etortze osoa egoten da: hori,

sanotasunik eza da. Baina, haatik, ikusten dugu gizaki-mota hauek etorkizuna aurresaten dutela, ordura arte inoiz ikasi ez dituzten hizkuntzak eta zientziak ezagutzen dituztela eta benetan jainkozko den zerbait erakusten dutela. Ez dago zalantzarik hau gertatzen dela bere gogoa, gorputzaren kutsapenetik pitin bat askatzen denean, jatorrizko indarra erakusten hasten delako. Eta era berean uste dut gauza berdinaren eragina dela hilzorian daudenei antzeko zerbait hainbat aldiz gertatzea eta iragarpen harrigarriei buruz, barneko argi batek adierazita bezala, hitz egitea. Beraz, goi-maitasunean saiatzearren gertatzen bada, agian mota bereko sanotasunik eza ez da izango, baina, hala ere, hain da antzekoa non gizakirik gehienek sanotasun-falta bera dela uste duten, batez ere hilkor guztien jokabide arruntetik bizitza osoan urruntzen diren gizon gizagaixo gutxi batzuk baino ez direlako. Eta hauei gehienetan gertatu ohi zaie, ene ustez, Platonen alegian gertatzen zaiena haitzulo barruan kateatuta egonik gauzen itzalak, miretsirik, ikusten dutenei314, hau da: ihes egin duen batek, berriz haitzulora itzulita, besteei esaten die gauzak benetan ikusi dituela eta zeharo erraturik daudela baldin uste badute itzal ziztrin horiez kanpo ez dagoela ezer.

Jakitun gertatu den hau, egia esan, errukitu egiten da lagunekin eta errakuntza hain handia duten haitzulokideen sanotasunik eza deitoratzen du; eta hauek, aldiz, euren aldetik, irri eta barre egiten diote eldarniatzen ari dela-eta, eta begien aurretik botatzen dute. Modu berean, gizakien gehiengoak gorputzezko gauzak miresten ditu gehien eta ia-ia, horiexek baino ez direla existitzen pentsatzen du. Jainkotiarrek, aldiz, gorputzarekin zenbat eta zerikusi gehiago izan gauza batek, hainbat eta horren ardura gutxiago izaten dute eta ikustezina behatzen saiatzen dira oso-osorik. Hortaz, batzuek garrantzirik handiena aberastasunei eta hurrengo gorputzaren erosotasunei ematen diete; arima, ostera, azkenengo mandartzat uzten dute eta gehienek existitzen denik ere ez dute sinesten, begiekin ez dutelako ikusten. Era guztiz ezberdinean besteek beste ezertan baino lehenago, Jainkoarengan, gauza guztietatik sinpleenean, jartzen dute ahalegin guztia; honen ostean, baina honekin lotu-lotu eginda, berarengandik hurren dagoenarengan, ariman alegia; gorputzaren zainketa alde batera uzten dute, dirua bihotz-bihotzez gorrotatzen, oskol bat bezala, eta ez dute onartzen. Edo, mota honetako zerbaitekin harremana izan beharrean badaude, nahigabez eta unaduraz egiten dute: badute, baina ukango ez balute bezala, jabe dira, baina ez balira legez. Alderdi bakoitzean ere ezberdintasun oso handiak daude hauen artean. Lehenengo eta behin zentzumenak, gorputzarekin zerikusia guztiek duten arren, batzuk materialagoak dira, hala nola, ukimena, entzumena, ikusmena, usaimena eta dastamena. Beste batzuk gorputzetik deslotuago daude, hala nola, oroimena, adimena eta nahimena. Hortakotz, arima bere indarrak batzen dituen tokian nagusitzen da.

Jainkotiar baten arimaren indar guztia zentzumen materialenetatik urrutien dagoen hartan biltzen denez, zentzumen materialenak kamustu eta geldotuta geratzen dira. Herriak, ordea, hauexek ditu ondoen eta besteak, arimarenak, oso urri. Honexetan oinarrituta entzun izan da gizaseme gartsu batzuei ardoaren ordez olioa edatea gertatu zaiela315. Bestalde, grinen artean ere, batzuek zerikusi gehiago dute gorputzaren arazoekin, hala nola lizunkeriak, jan eta lo-zaletasunak, suminkortasunak, harrokeriak eta bekaizkeriak; jainkotiarrek hauekin etengabeko gerra mantentzen dute, herriak, aldiz, uste du hauek gabe, bizi ere ezin dela. Bitarteko grina batzuk, ia-ia naturalak direnak, ere badaude, adibidez gurasoekiko maitasuna, seme-alaba, guraso eta lagunenganako hunkimendua; herriak hauei nahiko garrantzia ematen die. Baina besteek sentimenduak eurak ere arimatik kentzen saiatzen dira, arimaren alderdirik altuenarekin nolabaiteko zerikusirik ez badute bederen, eta gurasoak maite dituzte, baina ez guraso direnez (hauek, egia esan, zer sortu dute gorputza baino?; eta Jainkoari ere gauza hau eman behar zaio hau ere aita delako), baizik gizon ona izanik *gorengo ondasun* bakarra deitzen dioten gorengo adimen haren irudia adierazten baitu, zeinengandik kanpo,

esaten dutenez, ez baitago maitatzeko eta desiratzeko duin den ezer. Arau berdinarekin neurtzen dituzte bizitzako gainerako zereginak ere eta, ondorioz, ikusten den guztia, gaitzetsi ez bada egin behar ere, ikusi ezin denari baino asko ere balio gutxiago eman behar omen zaio. Esaten dute, halaber, sakramentuetan eta jaierazko eginkizunetan euretan ere, aurki daitezkeela gorputza eta arima.

Hala barauaren kasuan ere ez diote garrantzi handirik ematen haragia eta afaria uzteari, hau da, herriak barau osotzat duen horri, horrekin batera grinak mantsotzen ez badituzte eta haserreak edo harrokeriak ohi baino askatasun gutxiago ez badute; eta gorputzaren astuntasuna hainbestean jasan beharra utzita, izpiritua zeruetako ondasunen dastamenari zein gozamenari ekiteko aukerarik ez badu. Antzera eukaristian ere, zeremonietan egiten dena ezetsi behar ez den arren, esaten dute hauek, eurak bakarrik, balio gutxikoak izango liratekeela, eta gainera kaltegarriak, baldin eduki izpirituala, hau da, bistako zeremonien bidez adierazten dena, gehituko ez balitzaio. Bertan ordea, adierazi, Kristoren heriotza adierazten da; eta hilkorrek bere grinaz hezi, iraungi eta ehortziz gero bereganatzen dute berorren antza, horrela bizi berri batera birsortu eta harekin bat eginik elkarren arteko batasuna ere lor dezaten. Jainkotiarrak horixe egiten du; horixe hausnartzen du. Herriak, aldiz, uste du sakrifizioa, aldareetara ahal denik eta gehien hurreratzea dela, ahotsen zaratotsa entzun eta mota horietako zeremoniak ikustea. Baina adibide gisa deskribatu ditudan alderdi hauetan bakarrik barik, bizitza osoan zehar, labur esanda, egiten dio ihes jainkotiarrak gorputzarekin zerikusi duen guztiari, eta betierekora, ikustezinera eta izpiritualera eroatea maite du. Beraz, hauen eta haien artean arazo guztiei buruz irizpide-ezberdintasun handia dagoenez, gertatzen da talde batek uste duela bestea burutik eginda dagoela. Nahiz eta hitz hau herriari baino egokiago jainkotiarrei dagokien, nire iritzian bederen.

LXVII

Baina hau argiagoa gertatuko da baldin, agindu dizuedan moduan, hitz gutxitan frogatzen badizuet gorengo sari hori ez dela beste ezer nolabaiteko sanotasunik eza baino. Beraz, lehenengo eta behin kontutan har ezazue Platonek jada316 holako zerbait amestu zuela *denetarik onena maitaleen lilura dela* idatzi zuenean.

Izan ere, sutsuki maite duena ez da beretzat bizi, maite duenarentzat baino, eta besteari oso-osorik emateko berarengandik urruntzen den heinean hainbat eta pozago sentitzen da. Beraz, arima gorputzetik kanpo ibiltzen saiatzen denean eta gorputzeko organoen zentzuzko erabilera egiten ez duenean, horri lilura dei dakioke inolako zalantzarik gabe. Bestela, zer esan nahi dute herriak esaten dituen esaldi hauek: *Ez dago bere senean, zatoz senera, etorri da bere senera?* Horregatik bada, maitasuna erabatekoagoa den heinean zoramena handiagoa eta zoriontsuagoa da. Zein da, hortaz, arima jainkozaleek hainbeste antsiaz nahi duten geroko bizitza zerutiar hori? Bistan dagoenez, izpirituak, indartsuagoa denez, garaile bezala irentsiko du gorputza; eta hau errazago suertatuko zaio, zati batean bederen, bizi-bizirik zegoen garaian gorputza garbitzen eta ahultzen saiatu bazen mota honetako eraldaketa bat lortzeko asmoaz. Gero, izpiritu hori miresgarriro irentsiko du hainbat eta hainbat alderditan ahaltsuagoa den jainkozko gogo goren hark. Gizakia honetara oso-osorik egongo da beregandik kanpo, eta hori dela-eta ez da zoriontsu izango ondasun gorenaren eragin esanezina, hau da, berarengana guztia erakartzen duen horrena, bere baitan somatzen duenean baino.

Egia da zoriontasun hau azkenean bete-betea bakarrik izango dela, arimek lehengo gorputzak berreskuratu ondoren hilezintasunaren dohaina hartzen dutenean; baina hala ere, jainkotiarren bizitza, bizitza honen gogoeta eta bere itzal moduko bat baino ez denez, batzuetan gertatzen da bere sari horren zaporea edo usaina hartzea lortzen dutela. Eta hau betiko zoriontasunaren iturri oparoarekin erkatuz tanta txiki-txiki bat baino ez den arren, hala eta guztiz ere gorputzeko plazer guztiak baino asko handiagoa da, nahiz eta hilkor guztien delizia guztiak bat-bakarrean bildurik egon; horraxeino da izpirituari dagokiona, gorputzari dagokiona baino gehiago eta ikustezina ikuskorra baino gehiago. Ez da, bada, harrigarria Profetak agintzen duena: *Jainkoak bera maite dutenentzat prestaturik duena ez du ikusi gizakiaren begiak, ez dute entzun bere belarriek eta ez du antzeman bere bihotzak*317. Eta hauxe da bizitza aldatuta kentzen ez den, alderantziz hobetzen den Moriaren zatia. Beraz, hau sentitu ahal izan dutenek, -oso gutxik izan duten aukera-, horiek zorotasunaren antzeko zerbait jasaten dute: koherentzia gutxirekin hitz egiten dute eta gizakien artean ohitzen ez diren gauzak esaten; gainera, zentzurik gabeko soinuak egiten dituzte eta, hori gutxi ez eta sarri aurpegiaren adierazpena bera ere oso-osorik aldatzen dute. Oraintxe daude alai-alai eta handik gutxira lur jota, negarrez ari dira eta berehala barreka hasten dira edo hasperenka; hau da, senetik kanpo daude. Gero, bere senera etortzen direnean, esaten dute ez dakitela non egon diren, gorputzaren barruan ala kanpoan, itzarrik ala lotan; ez dute gogoratzen laino eta amets artean izan ezik, zer entzun duten, ez zer ikusi duten, ez zer esan duten, ez zer egin duten; dakiten gauza bakarra da zentzua galduta egon diren bitartean oso zoriontsu izan direla. Eta senera etorri izana deitoratzen dute eta ez dute besterik nahi mota horretako sanotasunik ezarekin sekulorun sekulotan sano ez egotea baino. Eta hau ez da geroko zoriontasunaren dastaketa moduko zertxobait besterik.

LXVIII

Baina aspalditik nago nor naizen ahantzi eta nire erremuetatik kanpo irteten. Dena dela, uste baduzue harropuzkeria edo berritsukeria larregirekin esan dudala zerbait, ez ahantzi hitz egin dizuena Eromena, eta gainera emakumea, izan dela. Bestalde, greziarren esaera zahar hura izan dezakezue gogoan: sarri eroak ere zentzutasunez hitz egiten dute; baina uste dut ez zaizuela burutik pasatuko hau emakumeengatik esaten denik. Ikusten nago hitzatzearen zain zaudetela, baina oso oker zabiltzate benetan uste baduzue oraindik gogoan dudala esan dudana, hitz-nahaspila hori guztia esan ondoren. Hor dago esaera zahar hura: gorroto dut oroimen hona duen mahaikidea. Nik berriz beste hau

diotzuet: gorroto dut oroimen ona duen entzulea 318. Eta besterik gabe, MORIAren jarraitzaile ospetsuok ondo pasa, jo txaloak319, ondo bizi eta asko edan320. Amaiera